

DISKURTSO KOMUNITATEA

BERTSOLARITZAREN KASUA

2001 eta 2017ko Bertsolari Txapelketa Nagusiko
finaletako gaien azterketa

Soziologiako Gradua
Ikasturtea 2017-2018

“Soziologia eta zientzia politikoan Gradu Amaierako Lanaren I Saria”

Egilea: Maialen Akizu Bidegain
Tutorea: Eduardo Apodaka Ostaiakoetxea

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

La Asociación Vasca de Sociología y Ciencia Política AVSP puso en marcha en 2018 una iniciativa encaminada a fomentar la dedicación y el esfuerzo del alumnado de los grados de Sociología y Ciencia Política de la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU, único centro en el que se imparten estos estudios. Se trata de un premio al mejor trabajo fin de grado en ambas disciplinas.

El I Premio al mejor TFG ha recaído en el elaborado por Maialen Akizu Bidegain y titulado *Diskurtso Komunitatea: Bertsolaritzaren kasua 2001-2017ko bertsolari txapelketa nagusiko finaletako gaien azterketa*, excelente trabajo del que destaca su interés y actualidad, así como su significativa aportación científica y social. Este trabajo, que toma al Bertsolarismo como coartada, elabora una atinada radiografía de la situación social, económica y política de Euskal Herria, desde el inicio del siglo XXI hasta el momento actual, sin perder de vista el contexto global en el que se desenvuelve. El presente trabajo muestra la madurez necesaria para la investigación, acompañada de una postura crítica y reflexiva de nuestro entorno.

Finalmente, también debemos destacar la calidad de la redacción del texto, tanto desde el punto de vista de la riqueza del léxico empleado, como del ritmo que destila y que hace fácil su lectura. Espero que disfrute de ella.

José A. Oleaga
Presidente de la AVSP-ESZPE

Euskal Soziologia eta Zientzia Politikoaren Elkarteak Euskal Herriko Unibertsitateko Soziologia eta Zientzia Politikoaren Graduko, soilik zentru honetan ematen baitira ikasketa hauek EAEn, ikasleen ahalegina eta ardua sustatzeko, 2018. urtean ekimen bat martxan jarri zuen. Bi graduetako Gradu Amaierako Lan hoberenaren Saria da hain zuzen ere ekimen hau.

GRAL hoberenaren I. Saria Maialen Akizu Bidegain-ek eginiko *Diskurtso Komunitatea: Bertsolaritzaren kasua 2001-2017ko bertsolari txapelketa nagusiko finaletako gaien azterketa* lanarentzat izan da. Lan bikain hau bere interes eta gaurkotasunagatik nabarmentzen da, baita bere ekarpen zientifikoagatik eta sozialagatik. Lan honek bertsolaritza aitzakia hartzen du, eta mende hasieratik egun arte Euskal Herriaren egoera sozial, ekonomiko eta politikoaren erradiografia egiten du, testuinguru globala bistatik galdu gabe. Lan honek ikerlariak beharrezko duen heldutasuna erakusten du, gure ingurunetik jarrera kritiko eta erreflexiboarekin batera.

Azkenik, lanaren idazkeraren kalitatea azpimarratu behar dugu, bai erabilitako lexikoaren aberastasunaren ikuspegitik, bai erabiltzen duen erritmoaren ikuspegitik irakurketa erraza egiten baitu. Espero dugu irakurketa hau gozatzea.

José A. Oleaga
AVSP-ESZPE-aren lehendakaria

Laburpena

Ikerketa honetan Bertsolaritza diskurtso komunitate gisa aztertu dut, hau da, Bertsolaritza diskurtso praktika zenbaiten bidez osatutako komunitate bat delako hipotesitik zein diskurtso duen aztertu dut. Diskurtso komunitatearen ezaugarriak landu dira Gizarte Psikologiaren ikuspegitik, eta komunitate horren diskurtsoa eta praktikak zehazteko, 2001 eta 2017ko Euskal Herriko Bertsolari Txapelketaren finaleko gaiak analizatu dira diskurtso analisiaren metodologia erabiliz.

Hitz gakoak: *komunitatea, diskurtsoa, bertsolaritza, diskurtso analisia.*

Resumen

En este trabajo de investigación se ha profundizado en el Bertsolarismo como comunidad discursiva, es decir, el Bertsolarismo como una práctica aglutinadora relacionada con una comunidad concreta. Las características de dicha comunidad se han trabajado desde la teoría de la Psicología social, y para concretar, tanto la práctica como el discurso de dicha comunidad, se ha utilizado la metodología de análisis discursivo aplicado a las dos finales del 2001 y 2017 de Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa, Campeonato de Bertsolaris de Euskal Herria.

Palabras clave: *comunidad, discurso, bertsolarismo, análisis del discurso.*

Abstract

This research analyses the «bertsolaritza» as a discursive community, this is, I have analyzed the discourse starting from the hypothesis that the bertsolaritza constitutes a community through the (shared) discursive practices. Characteristics of the discursive community have been studied from the perspective of the Social Psychology, in order to define the discourse and practices of said community, the topics of the 2001 and 2017 «Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa» (Bertsolaris championship of the Basque Country) finals have been analyzed using the method of discourse analysis.

Keywords: *community, discourse, bertsolaritza, discourse analysis.*

Aurkibidea

1. Sarrera	7
1.1. Lanaren aurkezpena	7
1.2. Helburuak	9
1.3. Metodologia	10
2. Marko teoriko-metodologikoa	12
2.1. Komunitatea	12
2.2. Diskurtsoa	15
2.3. Praktika komunitatea eta imaginarioak	20
3. Bertsolaritzaren bilakaera	23
4. Bi mugarri	28
4.1. Txapelketa Nagusia, 2001	28
4.2. Txapelketa Nagusia, 2017	31
5. Analisia	33
5.1. Dilema moralak	38
Norbanakoa	38
Bazterrekoak	39
Ekonomiaren agerpena	40
5.2. Ekonomia	42
Etxea eta harrotasuna	42
Merkatuaren presentzia	43
Euskal enpresa	44

5.3. Familia	45
Familia eredu nuklearra	46
Odolak maitasuna dakar	47
5.4. Harreman afektiboak	48
Hiztegi aldaketa	49
Genero-indarkeria	50
Sexualitatea umorerako gai(a) da	53
5.5. Politika / Euskal Herria	54
Herri bat bada	56
Euskal borondatea	58
6. Ondorioak	59
7. Bibliografia	65
8. Eranskina: 2001 eta 2017ko gaiak	71

1

Sarrera

1.1. Lanaren aurkezpena

Lan honek, interes eta esperientzia pertsonala ditu abiapuntutzat. Letra larriz bakarrik idazten nuen artean. Ez nekien hitzak euren denboraren arabera aldatzen zirenik, ez nuen *hitz-egin-ezin-zitezkeen* gaien berri. Baina h-a jartzeko arau esplikagaitzaren azalpen bertsukoa da, egun batean etxean «bertso-eskolan apuntatu nahi dut» esateko izan nuen okurrentzia.

Herriko bertso-eskolan, aurrez ezagutzen ez nituen «estralurtar» batzuk topatu nituen. Pixkanaka, espezie gutxitua ez ginela konturatzten joan ginen; baziren beste bertso-eskola batzuk, zaharrei bezala gazteei ere gustatzen zitzairen bertsoa, paparra puzteke ateratzen ziren hitzak. Urtean zehar saioen batean elkartu arren, lau urtean behingo Txapelketa izaten zen bertso-jaleon bazka goren: Uztaritze, Gasteiz, Andoain... Distantziak laburtzeko gai da neurri-errimen bertso-jolasa. Herrien artekoak soilik ez. Bertso-saioan nire ondoan esertzen zenari, tripak isiltzeko eramandako intxaurrak eskaintzen nizkion; jatorragoa iruditzen zitzaidan bertsoaren batean nirekin batera negar egin zuen hura; bertsolariak esandakoarekin buruaz «*bai, bai*» egiten zuenak, bazekiela zerbaite iruditzen zitzaidan.

Bitxia suertatzen zait bertsolaritza sortzen zen, eta den, fenomeno. Taldean konpartitzen duguna ez da ikuskizun hutsa, ez arratsalde pasa bat edo hizkuntzaren aldeko aldarria (bakarrik). Zer den jakin as-

moz, interes pertsonalagatik eta gaiak bide eman dezakeenaren ustetan aztertu dut lan honetan bertsolaritza. Gizarte Psikologiaren definizio eta tresnak, bertsolaritzaren errealitatea beste begirada batekin ikusten laguntzen dutela uste dut. Fenomeno honetan, oinarrizko baldintza baita elkarrekintza. Sentimenduak, pentsamenduak eta jarrerak taldearen eraginpean daude eta horregatik, bertsolaritza diskurtso komunitate bezala aztertu dut.

Komunitate kontzeptuak ezkontide asko izan ditu, baina honakoan diskurtsoarekin lotu dugu. Diskurtsoa praktika gisa ulertzen dugu eta bertsolaritzaren praktikan, diskurtso komunitate berezia zertzen dela uste dugu. Saioak, espazioak, denborak badiren arren, diskurtsoa praktika bera da, hots, esaten dena (eta ez dena) da bertsolaritzaren muina. Komunitatean garatzen den fenomeno izaki, komunikazioa errazten da, baina, era berean, egituraketa zein dinamismo gehiago izatea suposatzen du honek. Horregatik, lan honetan komunitate honen diskurtso praktikaren bi mugarri hartu eta konparatzea deliberatu dugu, bilakaera baino dinamismoa ikusteko.

Ikerketaren eremua mugatu asmoz, eta helburuei jarraiki, 2001eko eta 2017ko Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusietako¹ Finalak aztertzea erabaki dugu. Lau urtean behin egiten den geldialdi printzipala izanik, eta hartzen dituen dimentsio espazial zein sozialengatik, epealdi baten berri ematen du Txapelketa Nagusiak. Are gehiago, Txapelketaren gailur den finalak. Finala egun bateko bertso saioa da, goiz eta arratsaldez jokatu, eta aspektu desberdin asko barnebiltzen ditu: antolakuntza, publikoa, mugimendu soziala... Guk ordea, gaietan jarririk dugu fokua.

Ondorengo lana beraz, marko teorikoan bertsolaritza diskurtso komunitate bezala definitzen hasiko da. Komunitatearen, diskurtsoaren eta hauek gauzatzen/gauzarazten dituzten praktikak, nola lotzen diren dendatuko du hasteko. Kontzeptu hauek tradizio luzea eta eragin sakona izan dute gizarte zientzietan, eta kasu honetan bertsolaritzara gerturatzeko abiapuntu zein ikuspegi dira. Jarraian, bertsolaritzaren historiari hurbilpen laburra egingo diogu, gure ustez, lan orok ikuspegi historikoa txertatua izan behar baitu. Behin oinarri hau ipinita, analisia

¹ Euskal Herriko Txapelketa Nagusia, «Txapelketa» bezala laburtuko dut lanean.

izango da lanaren mamia. 2001 eta 2017ko Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusiko finaleko gaiak aztertuko ditugu diskurtso analisian bitartez eta aztertu ahalako sailkapen analitikoaren egin bertsolaritzaren komunitatearen diskurtsoaren zantzuetakoko batzuk mahai-gainera-tzeko.

Eta bai, dugu eta gara erabiliko ditugu. Ezagutza kolektiboki jaso eta eraikitzen dela pentsatzen baitugu. *EzaGUtza* hitzak berak, ez du alperrik «gu»-a beso artean. Kontatzeko moduak asko kontatzen du kontatzen denaz. Kontuak kontu, lokatzetara.

1.2. Helburuak

Ikerketa lan honen helburu nagusia bertsolaritza diskurtso komunitate moduan aztertu eta bereziki, bere diskurtsoaren analisi bat egi-tea da. Horretarako, 2001 eta 2017ko Txapelketa Nagusien finaletako gaiak erabiliko ditugu, bai eta gai hauen garapenak ere. Kasu honetan, bertsoa bera izango da testua eta beraz aztergai. Hala ere, testua egoera eta elkarrekintza baten elementu bezala ulertuko dugu, beraz, etengabe arituko gara esatetik sortzerako bidean, zer jasotzen den, zer eman, zein den bertsolaritza komunitate bezala lotzen duen diskurtsoa.

Ikerketaren helburu nagusiarekin batera, beste helburu zehatzago batzuk ere baditu ikerlanak:

H_1 : Bertsolariaren diskurtsoak, komunitatean zein helburu bete-tzen duen ikustea.

H_2 : Diskurtsoen gaitegia identifikatzea eta bi final hauetan gai hauek dituzten diferentziak azpimarratzea.

H_3 : Kategorien artean egon daitezkeen bateraguneak identifikatu eta hauen zergatia aztertzea.

H_4 : Gaiek sortzen duten iruditegiak ondorengo bertsoetan duen eragina behatzea.

H_5 : Gaietan esaten ez dena bertsoetan nola adierazten den azal-tzea.

Errealitatea ulertzeko baliagarri delakoan, eta Gradu Amaierako Lan baten eskakizunak zein diren kontuan hartuta, lan honetan azter-keta «esploratzailea» egingo da batik bat. Hala ere, deskripzio hutsa

egitea ez da gure interesa. Analisia, hausnartzeko abiapuntu izatea nahi dugu, bai lan honetan bertan, bai balizko ondorengoetarako ere.

1.3. Metodologia

Ikerketa honen helburuei jarraiki eta aztertuko dugun materiala ikusirik, azterketa kualitatibo baten alde egin dugu, definitutako kategorien arteko erlazioak bilatzea baita helburu. Zehazki, diskurtso analisiaren metodologia erabili dugu helburu honetarako. Egiturak ez ditugu aztertuko. Horregatik iruditzen zaigu, Gizarte Psikologiak baduela marko honetan zer gehitua, bere bi kontzeptu nagusiak finean, harremanak, eta harremanek sortzen dituzten esanahi eta irudikapen sozialak baitira.

Diskurtsoaren analisiaren arabera, instituzio eta egitura sozialek forma ematen diote diskurtsoari, baina diskurtsoak berak ere forma ematen die beraiei ere. Bertsolaritzan, denbora tarte laburrean diskurtso desberdinetan parte har dezakete aktoreek. Hankak mugitu gabe egiten den «performance»-a da, gorputzaren *performancea* diskurtsoan gauzatzen da. Horregatik diskurtsoetan eta hauek sortzen duten mundu sinbolikoan jarri dugu arreta. Beraz, esan genezake, ikerlan honetan metodoa eta helburua berdinak direla.

Diskurtsoaren Analisi Kritikoak (DAK) egin dituen ekarpenak ere baliagarriak izan dira lan honetarako. DAKek hizkuntzaren eta bira linguistikoaren teorikoak ditu oinarrian. Hizkuntza errealitatearen deskribatzaile soila ez dela azpimarratzen du, eta azpimarratu, errealitatea sortzen eta eragiten duen elementua dela. Hizkuntzaren kontzepzio aktiboa garatzen da beraz, *gauzak egiteko gaitasuna du* (Austin, 1982).

Eta hizkuntzak, botere harremanak sortzen ditu, banaketa desorekatua da eta ikerketa soziala baieztapen hori onartuta egiten da. DAKak beraz, diskurtsoek zer nola baldintzatzen gaituzten jakitea du helburu. Lan honetan, hurbilpen bat egingo bada ere, Diskurtso Analisi Kritikoaren aitzindaritzat har genezakeen Michel Foucault-en ekarpenak baliatuko ditugu aipatutako helburuetara heltzeko.

Definituko dugun analisi-corpora, 2001 eta 2017ko Txapelketa Nagusiko Finaletakoa izan da. Testua, bai gaia eta bai bertsoa, ez dira

oso luzeak eta ugariak dira eta horregatik ere egin dugu metodologia honen hautua, baldintza hauek hobesteaz gain, testuak behin eta berri irakurtzeko aukera ere badugulako. Analsi diskurtsiboak metodologia bezala garrantzia duela iruditzen zaigu, bai *diskurtsioak* berak hartu duen sonagatik, bai eragiteko duen ahalagatik.

Argi dugu baina analizatzeak deskribapenetik haratago joatea eskatzen duela. Gizarte-teoriekin loturak egin eta azterketan oinarritutako ondorioztapena, iritzia, beharrezkoak direla iruditzen zaigu.

2

Marko teoriko-metodologikoa

Lan honetan bertsolaritza diskurtso komunitate bezala aztertzea da helburu. Hau da, diskurtso eta praktika multzo batzuen ondorioz komunitatea sortzen du bertsolaritzak eta komunitateak eratzen ditu diskurtso eta praktika hauek era berean. Horretarako komunitatea, diskurtsoa eta praktika definituko ditugu eta ondoren bertsolaritzarekin lotu.

2.1. Komunitatea

Komunitatearen definizioaren beharrianari autore desberdinek eman diote erantzuna. Ordura arteko «gizarte» terminoak aldaketa nabariak izan zituen XIX. mendearen amaierako Europan, eta Ferdinand Tönnies izan zen, *Gemeinschaft und Gesellschaft* (1887) liburuarekin, komunitatearen borondate esentziala eta gizartearen arrazional-erreflexiboa kontrajarri zituena. Kapitalismoaren hedapenak eta Estatu- nazioen proiektuak errealitate soziala dimentsio desberdinetan egituratu zuten (ekonomikoa, politikoa, kulturala...). Definizio hertsirik ez eman arren, komunitatea gizartearen aurretiazko organismo biziduna zela zioen, eta gizartea berriz «artefaktu mekaniko eta agregatua». Jendartea batzeko era zen, hala ere, bien arteko bereizgarri argiena: komunitateak taldeko borondatea lehenesten zuen norbanakoaren onura taldearekin berdinduz. Gizartean aldiz, bizikidetzak baketsu egon arren, loturarik gabekoa zen.

Emile Durkheim-ek ere, bere *De la division du travail social* (1893) lanean, merkatuak eta kapitalismoak giza harremanetan zuten era-

gina ikertu zuen. Baina lotura formetan arreta jarri ordez, elkartasunari eman zion garrantzia, alegia, lanaren banaketa sozialari. Elkartasun *mekanikoa* eta *organikoa* bereizi zituen. Lehena, Tönnies-en komunitatearekin etorriko litzateke bat, apenas dago lan banaketarik. Bigarrena, organikoa, gizartearekin. Biek ala biek, komunitatea gizartean «sortzetiko oinarri» dela diote, eta modernizazioak, harreman komunitarioen haustura zekarrela salatzen zuten.

Max Weberrek² (1964) komunitateaz baino «komunikazioaz» hitz egin zuen ekintza sozialaren forma tipiko-ideal gisa. Weberren ustez, harreman sozial guztiek dute komunitatetik eta gizartetik, hauek ez direlako deklinazio historikoak, «funtsezko kontzeptu soziologikoak» baizik. Talcott Parsons-ek ere Weberren bide bera jarraitzen du eta komunitatea, integrazioa eta legitimazioa funtzionalismoaren diskurtso teorikoaren erdian jarriko ditu. Agerikoa da beraz, komunitate kontzeptuak soziologia klasikoan izan duen garrantzia.

Autore klasikoetatik aparte, asko izan dira komunitateari bere ikuspegia gehitu diotenak. Benedict Anderson-ek (1983) komunitateak irudikapen multzo bat direla zioen, hau da, «imajinatuak» izatea da komunitatearen lehen baldintza. Komunitateko kideen artean ez dago harreman errealik hasieran batean, baina bai harreman horiek irudikatzeke kausa objektiboak. Hauen eraginez irudikatutako komunitatea erakunde eta egituretan zertzen da indar objektibo bihurtzeraino. Irudikatze estiloa da garrantzitsua (Anderson, 1983; hemen aipatuta: Apodaka, 2015). Castoradis-ek (1975) ere, bere burua irudikatzen ez duen komunitateak ez duela irauterik zioen, hots, komunitate baten lan nagusia bere burua irudikatzea dela. Diskurtsoaren eginkizun nagusietakoa, beraz, komunitatearen zentzu hori sortzea da.

Ikuspegi honetatik, bertso-komunitatea ere irudikatze lan baten produktu da. Irudikatze hau bi modutan egiten da: batetik zuzenki, komunitatea zer den zehazten duten diskurtsoen bidez; bestetik zeharka, diskurtso unibertsoa osatuko duten praktika, erritual, sinbolo eta abarren bitartez. Joxerra Garzia-k (2001), bertsolaritzaren baliabide

² Azken honek, *Gemeinschaft-Gesellschaft* kontzeptuei tira eginez (*Wirtschaft und Gesellschaft* liburuan, 1964) *Vergemeinschaftung-vergesellschaftung* terminoak darabiltza komunitatearen bilakaera irudikatzeke.

erretoriko poetikoen azterketan, bertsolaritzaren helburua «entzuleen artean emozioak sortzea dela» ondorioztatu zuen (Garzia, 2001: 90). Anderson eta Castoradis-en ikuspegi-ekin bateratuz esan dezakegu, eraginpe horretatik sorturiko emozioak ez direla «berezkoak». Bertsogintzaren komunitateak badakiela jakin zer sortzera doan, zer entzutera doan, eta joko horretan inkontzienteki jokatzeko dute aktore sozialek.

Alessandro Duranti antropologoak³ beste banaketa bat egin zuen bi komunitate mota bereiziz: «talde mugatuak», maila mikro-interakzionaletan praktika edo jardun «bateratzaileak» dituztenak zituztenak; bestetik, talde zabalak maila makro-interakzionaletakoak (Andersonen «komunitatearen ideia» beharrezkoa dutenak). Bertsolaritzaren kasuan, bi mailak nola txertatzen diren ikus dezakegu:

1. Maila mikroan: bertsoaren komunitateak egitura eta gauzapena du; bertso eskolak, bertso-saioak, bertso jardunaldiak eta abar egikaritzen ditu.
2. Maila eta izaera makroan: Txapelketak, Bertsozale Elkarteak zein hedabideetako presentziak dimentsio zabalagoak biltzen ditu. Komunitatearen irudikapenari begirako jarduna litzateke honakoa.

Beraz esan genezake, komunitate gisa irudikatzen dela, baina era berean, praktikan, sare baten funtzionamendua duela. Hau da, sare egitura batean bere «auto irudia» lantzen, garatzen duen komunitatea da bertsolaritzarena. Bi mailen uztarketak forma desberdinak izan badituen arren, Txapelketa da gure ustez fenomeno adierazgarrienetako bat. Izan ere, bertsoaren gauzapena izateaz gain, bertsolaritza biltzen duen komunitatearen argazkia ateratzeko lagina da, bertsoaren bilakeararen errebisio momentua. Eta Txapelketaren azken emaitza finala da. Horregatik erabaki dugu diskurtso-komunitate honen azterketa egiteko Txapelketa Nagusiko bi final aztertzea.

³ Duranti (2000) Dell Hymes hizkuntzalariaren ideian oinarritzen da. Hymes-ek (1974) *komunikazio konpetentziari* eman zien bide. Bere ustez, «hizkuntza ekintzak» (*speech events*) dira komunitatea sortzen dutenak: jendeari komunitate zentzua ematen diote eta komunitatea eratzeke bideak dira.

2.2. Diskurtsoa

Egun ahotan darabilgu «diskurtso» terminoa. «Erretorikaren» on-dorengo dela esan genezake. Erretorika hitzaren arte erreal eta egiaz-koaren domeinuari erreferentzia egiteko erabiltzen zen, «baliagarri» zen hitzaren artea. Erretorikak, diskurtso argudiatzaile eta sarkorren (persuasiboen) pragmatika bezala funtzionatzen du, baina baita, Billig-ek proposatu bezala (1987) psikologia sozialaren forma bezala ere.

Diskurtsoaren analisia egiteko hainbat teoria desberdin daude: bada hizkuntzaren ordenari garrantzia ematen duenik, komunikazioaren etnografia baten barruan diskurtsoa/hizkuntza aztertzen duenik (Hymes eta Duranti hemen kokatzen dira). Ikuspegi soziologiko batetik, Nicki Lisa Cole-k, honako definizio hau ematen digu:

«Discourse refers to how we think and communicate about people, things, the social organization of society, and the relationships among and between all three (...) sociologists frame discourse as a productive force because it shapes our thoughts, ideas, beliefs, values, identities, interactions with others, and our behavior. In doing so it produces much of what occurs within us and within society.» (Cole, 2018)⁴

Guregandik gertuago aurkitzen den Joxerra Garziarentzat, diskurtsoa honakoa da:

«Komunikazio egoera arautu samar baten aurrean xede jakin bat lortzeko propio prestatzen dugun estrategiari eta estrategia horren gauzatzeari esaten diogu diskurtsoa.» (Garzia, 2008: 40)

Kasu honetan, diskurtsoa Diskurtso Analisi Kritikoaren (DAK) ikuspuntua kontuan hartu dugu. Honek esan nahi du diskurtsoa praktika sozial gisara (Fairclough, 2003, van Dijk 2000) eta mundua irudikatzeko eta baloratzeko modura (Fairclough, 2003: 124) ulertzen dugula. Diskurtsoa ez da entitate ontologiko bat, errealitate sozialaren

⁴ Sarean eskuragarri: <https://www.thoughtco.com/discourse-definition-3026070> [Azken kontsulta, 2018-05-20]

fenomeno osatzailea da. Diskurtsoak gauzak egiteko balio duten tresnak dira: komunitate edo elkarteak sor ditzakete, eta aldi berean, komunitate baten sorrerak diskurtso unibertso komuna sortzen du.

Teun A. van Dijk-en ustez diskurtsoaren eremuak hiru dimentsio barnebiltzen ditu: lehenik, hitzaren erabilera, testua; bigarrenik, uste, iritzi edo ideologiaren komunikazioa (kognizio soziala), eta hirugarrenik, interakzio soziala (van Dijk, 2000: 2). Bertsolaritzaren kasuan agerikoa da hiru dimentsioen agerpena: hitza darabilte diskurtsoa garatzeko, eta horren bidez komunikatzen dituzte euren ideiak. Bertsoa «bota» egiten bada ere, publiko bati botatzen zaio eta bien arteko elkarrekintzan bihurtzen da diskurtsoa arrakastatsu. Interakzio soziala ezinbesteko da.

Giza Zientzien diskurtsoaren inguruko koiuntura, orokorki ez baina bai gehienbat, Michel Foucault-ek emandako adieratik egiten da. 60ko hamarkadaren bukaeran idatzitako *Arqueología del saber* (Foucault, 1978 [1969]) liburuan, «osaketa diskurtsiboen» analisirako perfil eta kontzeptu heuristikoak erabili zituen. Foucaultentzat diskurtsoak «hizkuntzaz baliatzen diren eta arauak dituzten praktika materialak dira», ez dira zeinu eta sinboloen konbinaketa hutsak, eta esanguraren produkzioaz gain, boterearen eta jakituriaren praktika bezala aztertu behar dira. «Jakituria» honela ulertzen du:

«Jakituria da, praktika diskurtsibo batean hitz egin daitekeena, bertan zehaztua dagoena (...); jakituria, subjektuak diskurtsoan ardatzen diren objektuen posesioa hartzen duen espazioa da (...); jakituria da, halaber, perpausen koordinazio zein subordinazio esparru, kontzeptuak atera, definitu, aplikatu zein transformatzen diren gune (...) praktika diskurtsibo oro, eratzen duen jakituriagatik definitu daiteke.» (Foucault 1978 [1969: 149])⁵

⁵ Jatorrizko bertsioa ez bada, euskarara itzuliko ditut zitazioak. Honakoa, erabili dudana erreferentzia: «Un saber es aquello, de lo que se puede hablar en una práctica discursiva, que así se encuentra especificada. (...); un saber es también el espacio en el que el sujeto puede tomar posición para hablar de los objetos de que trata su discurso (...); un saber es también el campo de coordinación y subordinación de los enunciados, en que los conceptos aparecen, se definen, se aplican y se transforma (...) toda práctica discursiva puede definirse por el saber qué forma (Foucault 1978 [1969: 149]).

Hau da, Foucaulten arabera jakintza praktika diskurtsoan hitz egiten den horretan ageri da, pentsatzeko eta esateko guztiaren muga da *epistemea*. Komunikazioa ahalbidetzeaz gain, zedarritu egiten du. Beraz, praktika diskurtsiboa, osatzen duen jakintzagatik definitu daiteke, eta era berean, jakintza hori komunitatearen eremu sinbolikoarekin konparatzen dugu. Praktika diskurtsiboaz ari da Foucault, eta hau, diskurtsoa praktikan jartzea litzateke. Bertsolaritzaren diskurtsoa praktikan jartzeko modua, bertsoa bera da. Praktika diskurtsiboaren eta errealitatearen arteko harremana ez da ordea norabide bakarrekoa eta diskurtso sozialak ez dira errealitate existentzialaren adierazle hutsak.

Teun A. van Dijkek ere, diskurtsoaren ulermenerako ezinbesteko baldintzatat du jakintza (2006: 6). Baina jakintza, komunitate baten sinesmen konpartitu bezala definitzen du (2006: 9). Hau da, komunitateak ezartzen ditu sinesmen «onartuak» eta hauek konpartitzea da jakintza. Berger eta Luckman-en errealitatearen eraikuntzan ere (1980 [1966]) jakintza eraikuntza, errealizazio eta prozesu gisa hartu izan dute eta horretarako, ekite indibidualaz haratago, ekintzaren eta interakzioaren ondorio da errealitatea. De Certeau-k (1996) aldiz, jakintza praktikoak «mugatu bai, baina bat- batekotasun eta subjektibotasunik ez duela ukatzen» dio.

Bertsolariek, euren jakintza, egitura baten gaineko argumentatze forman plazaratzen dute. Jon Sarasua bertsolariari, intsumiso deklaratzegatik, epaileak bertsolariaren ofizioa zer zen azaltzeko eskatu zion. Aretxabaletarrak pikaro: «una especie de juglares *sabetolodo*».

Sarritan esaten da: bertsolariek denetik jakin behar dute, denetik eta denaz. Ezinezkoa da hau, noski. Uxue Alberdik (2014) ere boligrafo gorritz azpimarratu zuen esaldia. Bere ustez, gaiak dira garrantzia dutenak, jartzen diren eta ez diren gaiak. Alberdik, emakumeari ezarritako rolei egiten zien kritika eta guk lan honetan hori aintzat hartuko badugu ere, betaurreko morerik ukatu gabe, gai guztiek sortzen duten markoari begiratuko diogu.

Alabaina, bertsolaritzaren diskurtso argudiatzailea kasu honetan Monsalve-k (1992) aipatzen duen Perelman-en (1997) definizioarekin bat dator, «argumentatzea teknika diskurtsiboen multzoa da, aurkezten diren baieztapen tesien atxikipena edo igoera sortzeko helburua duena» (Monsalve, 1992: 52). Perelmanen iritziz garrantzitsuen

ez da aktoreak (beratzat «orador») egiazat zer duen jakitea, baizik eta zuzentzen den publikoaren hautematea. Joxerra Garziak (2008) honi «xede-taldea» deitzen dio, eta bere arabera, «zure audientzian eragin nahi baduzu, audientzia hori nolakoa den jakitea komeni da aurrez, eta hortik abiatu» (2008: 63). Audientziari ondoren, hitz neutroago delakoan, *xede-taldea* deitzen dio eta guk ere aldekoak gara. Diskurtsoak, Aristotelesen erretorikaren elementuak hartuz, bi norabide ditu: diskurtsoa, ekintza eta irudikapen bezala, entzuleriari egokitu behar zaio eta diskurtsoa, *logos* edo argudiatze gisa, artikulatzen den esparru «logikoaren» barne- arauetara egokitu behar da.

Txapelketaren testuinguruan, bi aldeak nabarmentzen dira: bate-tik diskurtsoa egikaritzera bertsolariaren aurretiko lanketa pertsonala dago, eta bestetik, publikoarekiko egiten duen irakurketa, hauengan eragiteko jakintza. Van Dijkek aipatzen duen diskurtsoaren hirugarren dimentsioak, interakzio sozialak, elkarrekintza honi egiten dio erreferentzia. Diskurtso-dinamika dago, diskurtsoa beti da praktika eta praktikan beti dago diskurtsoa.

Diskurtsoak baina nonbaitetik datoz eta nonbaitera doaz. Komunitateko aktoreak ez dira diskurtso orokorren bozgorailu (bakarrik), agente (inter)aktibo sortzaileak ere badira. Boterearen eta zentzuaren joko sozialean parte hartzen dute. Eragile sozialak ez dira indar mekanikoen arabera gogo gabeko gorpuzkinak. Era berean, subjektuak ez dute arrazoi ezagun eta logikoa euren buruen jokoeraz. Bertsolarien diskurtsoak aurretiazko jakintza eta lanketa baten emaitza diren arren, bat-batean sortuak dira. Zentzu edo sen praktikoa duten eragileak dira, ekiteko edo pentsatzeko egitura bat dute. Bourdieu-ren «habitus» kontzeptua erraz lotu genezake. Habitua gizarte-egituren subjektibazioa da. Subjektuak bere gizarte-ingurua zertzen duten egiturak (harreman-sistemak, bizi-baldintzak, praktikak, kapital ekonomiko, kultural eta sozialaren banaketa...), bere egiten ditu bere burua sortu eta antolatu ahala. Aurreko praktiketatik edan dute praktikak dira, geroako izanaraziko dituztenak. Hau da, norberarena omen dena gizartekoa dela erakusten du Bourdieuk, eta alderantziz, gizartekoa norberarengan gorpuztu egiten dela (Bourdieu, 1972).

Soziolinguistikaren esparruan ere diskurtsoaren terminoa erabilia da. Kasu honetan baina. ez gara diskurtso baten bidez egiten den ko-

munitate batez ari, praktika-diskurtsiboek egiten duten komunitatea da bertsolaritzarena.

Beraz, diskurtsoak interakzio soziala behar du. Interakzio honetan, igorlea eta hartzailea teku berean daude eta testuingurua bi dimentsiok osatzen dute: toki fisikoak (errealitate materialak) eta egoerak (ikusten ez den errealitateak). Interakzioa modu desberdinetako izan daiteke, baina bertsolaritzaren kasuan egiturazko interakzioa da gertatzen dena. Maila mikroan interakzioa bera egituratua dago (entzuleak badaki diskurtso horren aurrean zer egin behar duen, txalo egin behar duela bertso ostean, isilik egon bertso aurretik eta bitartean) eta maila-makroan ere, Txapelketara mugatuta, diskurtso horiek «ordena» bat, logika bat, izaten dute (protokoloa, ariketak zehaztuak daude aurretiaz). Halaber, Txapelketaren finala espazio eta denbora konkretu batean gertatzen bada ere, espazio-denborako garapena dauka, komunitatea sortzeko beste ezinbesteko baldintzetako bat.

Orain arteko kontzeptuak batuta: komunitatea gehi diskurtsoa, berdin diskurtso-komunitatea. Swales-ek honela definitzen ditu diskurtso-komunitateak:

«Sare sozioerretorikoak dira, helburu komunak lortzeko batera lan egiten dutenak. Komunitate diskurtsiboko kideen ezaugarrietako bat, helburu horiek xendan, komunitateak dituen generoekiko duten familiartasuna da (...). Generoak, ekitaldi komunikatibo desberdinak dira, egonkortasunaren berme direnak, izendapen onartua dutenak eta abar.» (Swales, 1990: 9; hemen aipatua: Suarez, 2005)⁶

Swalesek aipatzen duen generoak ekitaldi komunikatiboari egiten dio erreferentzia. Gure kasuan generoa Txapelketa bera litzateke, bertsolaritza eta praktika diskurtsiboa garatzeko modalitatea baita. Diskurtso komunitateaz apenas ikertu da gizarte zientzietan. Diskurtsoak eta komunitatea batu izan direnetan hizkuntza komunitateaz hitz egin

⁶ «Las redes socioretóricas que se forman para trabajar hacia conjuntos de metas comunes. Una de las características que poseen los miembros establecidos en una comunidad discursiva es la familiaridad con los géneros particulares que la comunidad usa para obtener esas metas. (...) Los géneros mismos son clases de eventos comunicativos que poseen típicamente características de estabilidad, un nombre reconocido, etcétera» (Swales, 1990: 9; hemen aipatua: Suarez, 2005).

izan da. Baina komunitate-diskurtsiboko kideak ez dira komunitatearekin kategoria gisa soilik identifikatzen, partikularitasun eta ezaugarri propioak azpimarratzen dituzte. Bertsolaritzaren kasuan hau agerikoa da. Bertsolaritzaren diskurtso-komunitatean ere, diskurtsoaren gauzapeña oholtza gaineko bertsolariarena izan arren, bertsoa emaitza total baten zati besterik ez bailitzan hartzen da. Kasu honetan aztertuko ditugun gaiak ere osotasun horren parte dira, diskurtso-komunitatearen parte, eta horregatik aztertuko ditugu.

2.3. Praktika komunitatea eta imaginarioak

Diskurtsoa praktika bat da, eta diskurtsoak komunitatea egiten badu, praktikak ere bai. Diskurtso komunitatea eta praktika komunitatea eskutik helduta doaz. Lengoaiak beti du aurretiaz sortutakoaren eta sor dezakeenaren arteko tentsioa, Humbolten *ergon* eta *energia* talka.

Praktika Komunitatea (Community of Practice, *CoP*) ikaskuntza eta jakintza hedapenari buruzko teorizazioen testuinguruan sortu zen, ikaskuntza sozialari eta jakintza sortze partekatuari lotuta egon da beraz (Brown eta Duguid, 1991; Lave eta Wenger, 1991, Wenger, 1998). Wenger-en hitzetan «the term community of practice was coined to refer to the community that acts as a living curriculum for the apprentice» (Wenger & Wenger-Trayner, 2015). Honen arabera, arazoan konponbideak harreman informaletan sortzen dira eta haietan partekatzen eta hedatzen dira. Praktika komunitateak «ikaskuntzaren fabrika sozialak» dira (Wenger, 2002: 28).

Denboran zehar adierazpen desberdinak izan ditu praktika komunitateak. Kontzeptu oso emankorra izan da. Batzuen ustez, emankortasun hau «praktika» eta «komunitatea» nozioek berez ematen diote zabalegiak eta anbiguoegiak direlako (Cox, 2005; Hughes, Jewson, & Unwin, 2007).

Praktika komunitatea kontzeptua «antolakuntzen arteko ikaskuntza eremuak» definitzeko ere erabili izan da. Diziplina desberdinek jorratu dute beraz, jendearengan eta elkarrengandik ikastea ahalbidetuko duten egitura sozialetan jartzen duelako fokua.

Soziolinguistika izan da praktika komunitatea (speech community) kontzeptua sarritan erabili duena. *Speech community*ak ordea, hitz egiteko modu berdina duen taldeari egiten dio erreferentzia, hitz egiteko modurik onena eredutzat hartzen duen taldeari. Bertsolaritzan ez da hizkuntzaren modua komunitatea egiten duena, komunikazio praktika baizik. Bertsolaritza ez da interes komunitate bat, jardunetik partaideek baliabide erreperitorio partekatua (shared repertoire) sortzen dute: esperientziak, istorioak, arazoak konpontzeko ohiko bideak...

Komunitatearen sarrera zein parte hartzea librea da, ez dago baldintza objektiborik, edo dagoen baldintza bakarra, praktika da. Praktika da abiapuntu, ez edukia. Baina ere berean, praktika bera diskurtso praktika dela esatean, beti egongo da edukia.

Aipatu bezala, diskurtsoa oro har, praktika multzoa da. Praktika hauek baina ez dira soilik «linguistikoak», zentzu-emaile den bitartean edozein praktika izan daiteke. John Austinek ere, erabiltzen ditugun hitzek funtzio deskriptiboa gainditzen dutela azpimarratzen zuen *Como hacer cosas con palabras* bere 1962ko idatzian (Austin, 1998). Bi multzotan bereizten zituen: esamolde baieztatzaileak (errealitatea berresten zutenak) eta performatiboak. Bigarren hauek, errealitatea baieztatzeaz harago berau eraldatu edo produzitu egingo lukete, egingtzara daude bideratuta.

Lan honetan baztertu egin da neurri handi batean (ez guztiz) praktika NOLA gauzatzen den; testuen esanahiari, ZER-ari, erreparatu diogu. Hala ere, finalean jarritako gaiak aztertuko ditugun honetan, gaien formulazioari ere erreparatu diogu. Gaien bitartez ezartzen da imaginarioaren markoa, diskurtso komunitateak partekatzen duen mundu edo unibertso alegiazko hori izatea ahalbidetzen du eta bertsolariak komunikatzaileak, hori jakitun ekingo dio praktikari.

Imaginarioa hainbat modutara erabili izan da Gizarte Zientzietan, hainbat adiera hartu izan ditu: irudimenez bizi dugun alegiazko/egiazko mundu gisa (subjektiboa eta kolektiboa dena aldi berean), partekatutako irudi multzo gisa (iruditegia), irudimen kolektibo edo inter-subjektiboaren indar edo ahalmen eratzaile gisa, eratuta dauden erreferentzia komunen multzo bezala...

Bertsolaritzaren kasuan, azken adiera izan liteke agerikoena: imaginarioa erreferentzia komunentzako multzo dinamikoa da. Multzo hau, irudimen kolektiboaren produktutzat har liteke, potentzia edo ahalmen batetik (irudimena), kolektiboki partekaturik eta eginda dagoen (diskurtso praktiken bidez) multzoa. Hau da ikerketa honen azterketaren objektu zuzena litzatekeen erreferentzia komunentzako multzoa.

Azterketa honetan diskurtso-praktika komunitate baten bilakaera aztertu nahi dugu komunitate horren «lana» (produktu nagusia) aztertuz: haren egiazko/alegiatzko gai diskurtsiboak. Wittgensteinek «lengoaia jokoak» kontzeptua plazaratu zuen, eta adiera bera baino oinarritzeko ideia lapurtzea zilegi bedi: esangura, erabilera da.

3

Bertsolaritzaren bilakaera

Bertsolaritzak praktika-diskurtsiboen bidez zedarritu du bere komunitatea. Komunitateak denboraren eta espazioaren dimentsioak ezinbestean barnebiltzen dituenek, denboran zehar aldatu egin da.

Nor da baina bertsolari? «Gaur egun, bertsolaritzat hartzen da entzuleria baten aurrean bertsoak bat-batean asmatzeko gaitasuna daukana, eta ez beste inor» (Garzia, 2012: 10). Idatzizko bertsolaritza ere egon badagoen arren, eta honen garrantzirik ukatu gabe, bat-bateko bertsolaritza aztertuko dugu lan honetan. Zer da beraz bertsolaritza? «*Bertsolaritza* hitzak bertsoak bat-batean asmatzeko artea zein gaitasuna (bertsogintza) adieraz dezake, edo aipatutako fenomenoaren inguruan sortu den mugimendu soziala». Guk bigarren adiera honi egin diogu tira.

Historialarien arabera ahozko tradizioa orain 10.000 urte jaiotzen da (Bertsolaritzaren Datu Basea. xv. mendera arte, profazadoreak (plazaz plaza eta herriz herri ibiltzen ziren emakume abeslariak) eta erostagileak (gudu-kantuak eta eresiak egiten zituzten kantariak) izan ziren ahozkotatasunaren erreferente hiletekin batera. Esteban Garibay⁷ historialariaren arabera (1533-1559) XIV. gizaldia «andere inprobisatzaileen» mendea izan zen. Nahiz eta orduko frogak bakanen bat izan,

⁷ Esteban Garibay (1533-1599) historialariaren erreferentzia sarean dago eskuragarri: <http://bdb.bertsozale.eus/orriak/get/2-bertsolaritzari-buruz--historia>. (Azken kontsulta: 2018-04-22.)

1452. urteko Bizkaiko Foru Zaharretan agertzen ziren emakume inprobisatzaileei buruzko aipuak izango dira lehenengo datu ofizialak.

Manuel Lekuonaren arabera (1974) bertsolaritza ahozko euskal herri-literaturaren barruan kokatzen zen, kutsu magikoa zuen, eta «orain milaka urtekoa» omen zen, artzaintzarekin batera sortua. Koldo Mitxelena ere, *Historia de la literatura vasca* liburuan (1888), askok lausotu nahi zuten euskal folklorearen aspaldikotasuna azpimarratzen zuen (Mitxelena, 1888: 24) eta baieztatu, herri-literatura «nagusiki ahozkoa eta beste edozein herrirena bezain aberatsa» izan dela (Mitxelena, 1988: 13). Gerora baina, Joxe Azurmendi-k (1980) kontrako tesia mahai gaineratu zuen, Bizkaiko Foru Zaharrea aurkitutako bi aipamenak azpimarratuz (1452. urtekoak). Bertsolaritza Frantziako Iraultzaren testuinguruan nazionalismoen «asmazioekin» batera sortu zela zioen Azurmendik (1980: 7).

1799an Azpeitian Fernando Amezketarrek kantatutako bi bertso gordeak badira ere, lehen bertso-saio dokumentatua 1801ekoa da. Villabonan izan zen Joxe Joakin Erroizenea *Txabolategi* hernaniarra eta Juan Inazio Zabala amezketarraren arteko bertso-desafioa. Bosna ontza-urre jokoan, 4.000 lagun plazan. Bakoitzak epaile bana eraman zuen eta Villabonako alkateak hirugarren epaile-erabakitzaile bat izendatu zuen. Hiru epaileak bat etorri ziren azken epaia erekin: berdinketa.

Bat-bateko bertsolariaren figura soziala izan da ezinbestean. Hala ere, bertsolaritza markoa Txapelketaren testuingurura mugatuko dugu esan bezala.

Garziaren arabera ere, «bertsolari lehiaketa guztietan garrantzitsuena Euskal Herriko Txapelketa Nagusia da, lau urtean behin egiten dena» (2012: 26). Bat gatoz.

Historian zehar, Txapelketaren formatuan hamazazpi Txapelketa izan dira. Bakoitzak ezaugarri desberdinak izan baditu ere, eta hauen inguruko ezagutza desberdina dela esanda, historiaren errepasotxo bat egitea komeni (ikus I. taula).

Lehen Bertsolari Txapelketak 1935 eta 1936. urtean izan ziren. Txapelketaren ordeztu «Bertsolari eguna» izena zeramaten. Euskaltzaleak eta Eusko Gaztedia elkarteak ziren antolatzaile, eta behin gerra ostean, lekukoa Euskaltzaindiak hartu zuen. Lehenengo Txapelketa hura Iñaki

Eizmendi «Basarrik» irabazi zuen, bertsolaritzaren berrikuntzaren ikur bihurtzen ari zen zarauztarrak. Bertsoa tabernatik kalera, plazara, antzokira hedatzen hasi zen eta Basarri profesionalizatzeko honen ikur zen. Bigarren txapelduna, Joan Manuel Lujanbio «Txirrita» izan zen. Herri-hizkeran oinarrituriko bertsolaritzan zerabilen Txirritak, beraz, bazen tradizioa eta berrikuntza katramilan zebiltzan garaia, garaiko giro sozio-politikoarengandik erabat baldintzatua. Espainiako gerra zibila has-tean, eten egin behar izan zen Txapelketaren katea.

Gerra 1939an bukatu bazen ere, 1960. urtera arte ez zen Euskal Herriko Bertsolari Txapelketarik izan⁸. Euskararen errepresioaren aurkako ekintzat hartzen zen bertsolaritza, eta orobat balio tradizioaletan oinarritzen den arren, hizkuntzaren hauspotze lanean egiten da indar. 1960ko txapela Basarrik jantzi zuen eta ondorengo hirurak, 1962, 1965 eta 1967koak, Manuel Olaizola Urbieta «Uztapidek».

Euskal Herriko egoera politikoa medio Joxerra Garziak «Erresistentzia aroa» deitu zion garai-aldia izan zen Franko hil bitartekoa (1979. urtera artekoa). Bertsolariak diktadurak isildutakoen ahots bihurtu ziren eta abertzaletasunaren defentsa, frankismoarekiko kontraktasuna eta «Euskadiren defentsa» ziren, batik bat, bertsolaritzak kolektibotasun sentimendua indartzeko zerabiltzan diskurtsoaren gaiak.

Hurrengo Txapelketa Nagusia 1980an izan zen Donostian eta Xabier Amuriza izan zen garaile. Bertsolaritza antzaldatzen hasi zen. Besteak beste, Amuriza izan zen euskara batua bertsotan erabiltzen lehena, bertsokera poetikoa txertatu zuena, neurri, metrika eta errimategi berria plazaratu zuena⁹. 1982ko txapela ere Amurizak berak jantziko du, baina iritzi-kontrajarriak gero eta ugariagoak ziren, eta epaile, bertsolari zein euskal kulturaren barneko beste erreferente batzuen artean bilerak egiten hasi ziren bertsolaritzaren forma erabakitzeke asmoz. Orduko sestren ondorioz, ordura arte Txapelketaren antolatzaile nagusi

⁸ Bizkaian 1958 eta 1959an lurraldeko Txapelketak antolatu ziren eta ondoren gainerako herrialdeetan ere antolatu ziren Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusia ospatu baino lehen.

⁹ Honen adibide, *Hiztegi errimatua* eta *Hitzaren kirol nazionala* liburuak, 1981an argitaratuak.

izan zen Euskaltzaindiak Txapelketak ez antolatzea deliberatu zuen, eta bertsolariak, euren batzordea antolatu zuten 1986an: Bertsolari Elkartea.

1986ko Txapelketa lehenbizikoz Anoetako belodromoan egin zen. EITB-k zuzenean eman zuen zati bat eta hedabideetan ordura arteko presentziarik handiena izan zuen. Sebastian Lizaso azpeitiarrak, ahots sendoko bertsolari-familiako semeak irabazi zuen txapela. Ondoren, 1989koan, Jon Lopategi bizkaitarra, Amurizaren belaunaldikoa, izan zen garaile. Laurogeita hamarreko hamarkadara baina, beste pauso batz sartu zen bertsolaritza. 1993an, euskal kulturaren adierazpide esanguratsuenetako bat bilakatuko da. Orduko Txapelketa Nagusia Andoni Egaña irabazi zuen (Zarautz, 1961) eta ondorengo hiru txapelak ere bereak izan ziren (1997, 2001, 2005).

Puntu honetan pausatzea komeni zaigu. Euskal Herriko Bertsolari Txapelketaren irabazle eta urtemugak ondorengo taulan biltzen dira.

1. taula

Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusiak

Urtea	Txapelduna	Lekua
1935	Iñaki Eizmendi, <i>Basarri</i>	Donostia
1936	Jose Manuel Lujanbio, <i>Txirrita</i>	Donostia
1960	Iñaki Eizmendi, <i>Basarri</i>	Donostia
1962	Manuel Olaizola, <i>Uztapide</i>	Donostia
1965	Manuel Olaizola, <i>Uztapide</i>	Donostia
1967	Manuel Olaizola, <i>Uztapide</i>	Donostia
1980	Xabier Amuriza	Donostia
1982	Xabier Amuriza	Donostia
1986	Sebastian Lizaso	Donostia
1989	Jon Lopategi	Donostia
1993	Andoni Egaña	Donostia
1997	Andoni Egaña	Donostia
2001	Andoni Egaña	Donostia
2005	Andoni Egaña	BEC/ Barakaldo
2009	Maialen Lujanbio	BEC/ Barakaldo
2013	Amets Arzallus	BEC/ Barakaldo
2017	Maialen Lujanbio	BEC/ Barakaldo

Iturria: norberak egina.

Esan genezake, Andoni Egañaren txapel-aldiak Amurizarekin hasi zen bertsolaritzaren aldaketa garatu zuela. XX. mendean zehar aldaketa handiak izan ziren. Hori bera azpimarratzen dute Joxerra Garziak, Andoni Egañak eta Jon Sarasuak:

«Kontua da bertsolaritza goitik behera eta behetik gora aldatu zela XX. mendean zehar. Izen bera erabiltzen den arren, XX. mende hasierako bertsolaritza eta mende amaierakoa guztiz bestelakoak dira. Ez da azaleko aldaketa soilik, barre- barreneraino iristen dena baizik.» (2001: 21)

Bilakaeran agerikoa da haustura momentuak izan dituela bertsolaritza. Bertsoa eta bertsolaria, ezin bereiziko bi elementu dira eta bertsolariaren bilakaerak bertsoaren bilakaeraren zantzu handiak ematen dizkigu. Gure lanean baina, aipatu bezala, gaiak aztertuko ditugu.

Bertsolaritzaren komunitatea Txapelketa Nagusira mugatu dugu bilakaera aztertzerako garaian eta analisia ere bi Txapelketen artean egingo dugu. Jone Miren Hernándezek honela dio:

«Txapelketa sortzeko tresna da, baina baita ispilua ere. Mahai borobil bat da, bazkal osteko mahai bat, eta hor agertzen diren gaiak gizartearen dauden gaiak dira nagusiki. Iritzi ezberdinak agertzen dira, eraldatzaileak izan daitezkeenak. Bertsolariengan jartzen dugu fokua, baina gu denok gaude oholtza hortan komunitate gisa.» (Hernández, 2017)

Hernán데zen hitzak gure egin ditzakegu. Gizarte Zientzietan azterketa esparrua mugatzea ez da erraza izaten eta Txapelketak lagin tenporal-espaziala zedarritzeko aukera emateaz gain, komunitatearen egoeraren berri jakiteko ere balio du.

4

Bi mugarri

Diskurtsoak ez dira abstrakzio koherenteak, ezin dira testuingururik gabe ulertu. Diskurtsoak koherenteak dira egoera komunikatiboko partaideentzat. Horregatik 2001eko eta 2017ko Euskal Herriko Bertsolari Txapelketen finalak modu isolatuan aztertuko baditugu ere, beharrezkoa iruditzen zaigu testuinguruaren kokapen bat egitea: testuinguru globala (munduaren gerturapena baino Mendebaldearen historiara joko dugu, gertukotasunagatik eta botere-harremanengatik) bai barnekoari (bertsogintzaren barneko egoera zehatzari).

Datu estatistikoei dagokienez, 2001ean hogeita hamazazpi bertsolarik hartu zuten parte: zazpi ziren emakumezkoak eta hogeita hamar gizonezkoak. Hamahirugarren edizioa izan zen ordukoa, eta bertsolariez gain, 7 epaile eta 9 gai- jartzaile aritu ziren lanean. 2017an aldiz, berrogeita bi izan ziren bertsolari parte hartzaileak. Horietatik hamabi emakumezkoak eta hogeita hamar gizonezkoak. Emakumezkoen proportzioa %18'9koa izatetik %28'5ekoa izatera pasa da. Zifrak baina errealitatearen aurpegi bat besterik ez dira.

4.1. Txapelketa Nagusia, 2001

XX. mendearen azken urteak Berlingo Harresiaren eraistearekin (1989) eta Gerra Hotzaren amaierarekin hasi ziren. Sobietar Batasuna, Txekoslovakia eta Jugoslaviaren disoluzioak egoera ezegonkorra sortu

zuten Europan. Batzuek «historiaren bukaeraz» ziharduten, demokrazia liberalek ideologiaren borroka irabazi baitzioten komunismoari.

Ekonomian nabarmentzekoak, Maastricht-eko eta Amsterdam-eko Itunak, Europar Batasunaren kohesioa bermatu nahi zutenak batez ere. Kulturari dagokionez, kultura-aniztasunaren epealditzat hartu zen 90eko hamarkada eta kable bidezko telebista (EITB 1996an sortu zen) zein internet (Google bilatzailea 1998an kaleratu zen) teknologia berrien hedapenaren erakusle izango dira. Hamarkada honetan aipatzekoak: Pinochet-en diktadura izango da Txilen (1998. urtera arte), DVD-aren sorrera (1997), Kosovoko gerraren hasiera (1999)... Mendearen hesia pasata egon arren, 2001eko Txapelketan eragin bide zuen urte hartako irailaren 11an Al Kaedak New York-eko Dorre Bikien aurka egindako atentatuak. George Bush zen orduan presidente.

Euskal Herriari dagokionez, tentsio-politiko handiko garaiak ziren. 1995an GAL indar parapolizialak 80. hamarkadan hasitako bigarren ekin zion eta 90eko hamarkadan, Lasa eta Zabalaren gorpuak 1995an azaldu ziren. 1997ko uztailean ETA-k Miguel Angel Blanco politikaria erail zuen bi egun bahituta eduki ondoren. eta Euskal Gatazka delakoak zein bide hartuko zuen jakiterik ez zegoen garaiak ziren. Kulturari dagokionez, Rock-erradikal euskalduna indartsu zebilen. 1997an Bilboko Guggenheim Museoa zabalduko dute eta Miguel Indurainek 1991tik hasi eta ondorengo lau urteetan Frantziako Tourra irabazi zuen. 2001eko uztailean 28an Felix Iñurrategi mendizale eta bertsozalea hil zen, eta 2001eko Txapelketan buruz-buruko gai izango dena.

Barne munduari edo bertsolaritzaren endo-historiari dagokionez, 1986ko Txapelketa Nagusia bertsolariek eurek antolatu zuten eta urtebete beranduago, 1987ko ekainaren 18an Euskal Herriko Bertsolari Elkarteak sortu zuten hainbat bertsolarik. Gerora beste eragile batzuk atxiki eta Bertsozale Elkarteak bilakatu zen. Iratxe Retolaza-ren ustez, filosofia berri bat ekarri zuen aldaketa honek «puesto que la asociación pretendió reunir a todas las personas que tuvieran alguna relación con el *bertso bertsolaris, gaijartzaites*, 24 organizadores y aficionados». (Retolaza, 2011: 237). Aldaketa honen poderioz bertso-eskolak sortu ziren eta bertsolaritza «XXI. mendeko jardun literariorik arrakastatsuenetakoa bat» da Retolazarentzat.

Elkartearen hasierako urteetako funtzionamendu gora beherak asko normalizatu ziren 2001. urterako: bertako langileak finkatu ziren, bertso ekitaldiak antolatzeke LANKU zerbitzua martxan jarri (1999), Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarekin hiru urterako elkarlan hitzarmena hitzartu zen 2000.urtean... Mendearen lehen ahapaldian izan zen Txapelketa Nagusia, Bertso Egunak urtero antolatzen ziren eta «Ahozko Inprobisazioa Munduan» Kultura-arteke Topaketak antolatu ziren 2003ko udazkenean.

1990eko hamarkadan gainera, bertso-eskoletan ibilitako bertsolariak plazara saltoa ematen hasi ziren han-hemenka. Bertsolari belaualdi berriak eraspen desberdinak egin zituen: bertsoa espazio berrietan entzuten hasi zen (gaztetxeetan kasu), eta bertsoa hurbildu ahala bertsoarengana ere ordura arte gerturatu gabeko entzulea biltzen hasi zen. Beste kultura-diziplina batzuekin egindako elkar-lanek ere sustatu zuten joera hau (musikarekin eta rok-erradikal euskaldunarekin egindako harremantzeak nabarmenak akaso).

Joxerra Garziaren bertsolarien baliabide poetiko-erretorikoen azterketa (1999) lanak ere eragina izan zuen, ordura arte bertsolaritza akademiatik urrun baitzegoen. Martin Aramendi-ren ustez, Garziaren lanak «nolabaiteko iraultza ekarri zuen bertso- mundura, eta epailetzara, bereziki. Bertsoa komunikazioaren ikuspegitik aztertzen hasten da; komunikazio-ekintza den aldetik, testuinguruak ere garrantzia hartzen du» (Aramendi, 2014: 11). Hori dela eta 2000. urtean lehenengoz, *Bat-bateko bertsoak epaitzeko irizpideak* liburuxka argitaratu zuen Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak gerora, Txapelketaz Txapelketa berri-tuko dena. Epaitzeko irizpideek diskurtso- komunitatearen kontsentua bermatzea dute helburu. 2001eko Txapelketarako, besteak beste, «gaiak logika baten barruan eskaintzen dituen bide guztien onarpena» zein «topikoen gehiegizko erabilera ontzat ez jotzea» erabaki zen.

2001eko Txapelketa beraz, testuinguru makro eta mikro horretan kokatu zen. XX. mendeko gorabeherak atzean utzi eta egonkortzeko joera erakutsi zuen. Gure ustez, oso garai interesgarria da eta horregatik hautatu dugu mugarri gisa.

Lan honetan aztertu ditugun bi puntuak lotzeko, zubi XXI. mendeko lehen hamarkada da: New York-eko atentatuak Afganistango inbasioa eta Irakeko Gerra ekarri zituen eskutik helduta. Saddam Hussein

exekututua 2006an, Barack Obama AEB-ko lehendakari, *yes we can*. Kantu iraultzaileak Hego-Amerikan eta mendebaldarren egoaren zein euroaren zirkulazioa Europan. Sare-sozialen hedatzea, *Prestige*-ko sare belztua, belztua, Madrid martxoaren 11ko atentua. Mundu leher-tzear zegoela zirudien hartan, finantzak egin zuen eztanda eta ikus-ezina den diruak sortuko ditu inoiz ikusi gabeko datu ekonomiko gordinenak.

4.2. Txapelketa Nagusia, 2017

Krisi ekonomikoak baldintzatuta hasi zen XXI. mendeko bigarren hamarkada. Dimentsioak areagotu eta Estatu batzuk (Grezia, Irlanda, Portugal eta Txipre) erreskatatuak izan ziren. Ongi Izate Estatua kili-kolo zegoen, eta Europar Batasunaren desegonkortasuna Erresuma Batuen Brexit-erako arrazoi izan zen (2016). Ozeanoaren bestaldean, Kubak eta Estatu Batuek euren harreman diplomatikoak berrezarri zituzten (2014) eta Obamaren ondorengo Donald Trump errepublikanoa hautatu zuten (2017).

Udaberri Arabiarrak ere hamarkada honen lehen urteetan suertatu ziren. Tunez, Egipto zein Libiako erregimen diktatorialen kontrako matxinadak mugimendu handiak sortu zituen, errefuxiatuen oldek herrialdeetatik ateratzen hasiko dira Estatu Islamikoa egituratzen den bitartean. 2015eko urtarrileko *Charlie Hebdo*-ren aurkako atentatuak eta azarokoak Paris eta bere inguruak asaldatu zituen. Ukrainiako Gatazka ere esanguratsua izango da (2013) eta badira «Gerra Hotz Berri» batez mintzo direnak.

Bi data hauek, 2001a eta 2017a ez ditugu ausaz hartu. 2017a gertukotasunagatik hautatu dugu, azken Txapelketa da, bilakaera historiko baten azken produktua. Konparaketa egin nahi genuen aipatu bezala, eta horretarako 2001a aukeratu dugu. Aipatutako testuinguruaren datuak esanguratsuak egiteaz gain, bi izan dira berau aztertzekeko arrazoi nagusiak: batetik, 2001ean argitaratuko da Joxerra Garzia, Jon Sarasua eta Andoni Egañaren *Bat-bateko bertsolaritzarako gakoak* liburua. 1999an Garziak tesia egingo du eta bertsolaritzaren erretorika aztertzen hasiko da. Bestetik, 2001eko finala inoizko finalik gazteena izan zen eta 2001ean kantatu zuten 8 bertsolaritatik 5, 2017an ere badaude. Hau

da, bertsolariak «mantendu» egiten dira eta honek diskurtsoari erreparatzeko aukera eskaintzen digula iruditzen zaigu.

Arrazoi hauek tarteko, eta bi final hauen momentu esanguratsuak ikusirik, bi finaletako gaien analisia egin dugu.

5

Analisia

Diskurtso analisiaren etiketa, historikoki, linguistikaren alorrari atxiki izan zaio. Kontakizunak irakurtzeko bi modu daude: batetik, koherentzia eta kohesioa aztertzea, hau da subjektuak diskurtsoa nola eraikitzen den ikustea ondoren inferentziak egiteko; bestetik, testua, diskurtso-jarduna bera azertu daiteke, diskurtsoak zer dion eta horretarako hitz-gakoak identifikatu. Guk bigarren honi helduko diogu, diskurtso-jardunak «*nodal points*-etan» (Laclau & Mouffe, 1987) aletu, giltzarrietan fokua jarri, eta hauen interpretazio zein irakurketen analisia egitea da helburu.

Diskurtso Analisi Kritikoari (DAK) praktika diskurtsiboen botere desorekak interesatzen zaizkio, hauen produkzio edo erreproduktzioak nola gertatzen diren aztertzea. Ikerketa sozialak, botere banaketa berezkoa duela dio DAKak. Diskurtsoek *statu quo* soziala elikatzen eta erreproduzitzen dute, baita berau eraldatzea eragitean ere. Diskurtsoaren eta gizartearen arteko harreman estuaren ondorioz, gizartean gertatutako aldaketak diskurtsoan agertuko direla suposatzen da. Eta alderantziz. Arestian esan bezala, harremana bi norabidetakoa baita. Bertsolaritzaren kasuan, praktika sozial diskurtsiboa den heinean, harreman sozialak, mundu-irudikapenak zein ahozko hartu-eman berbalak bertsoan adieraztea aurreikusten da. Horrela al da baina?

Diskurtsoen sailkapena egiteko beharrezkoa da «egituraren eta hauen funtzioen jakintzan oinarritzea» (Van Dijk, 1980: 115). Kasu

honetan ,analisi egiteko, 2001 eta 2017ko Txapelketa Nagusiko finalerako gaiak aztertu ditugu. Bertsolaritzan gaien existentzia ez da hasieratikoa izan. Badirudi, 1935ean jokatutako «bertso gudueta» ezarri zela gai eta gai-jartzailearen presentzia, hau da, gai-jartzea Txapelketarako asmatu zen (Bertsozale Elkarte, 2002: 6). Gaiak aldatzen joan dira garaiko testuinguruaren arabera, eta beraz, gaiak dira egoeraren markoa ezartzen dutenak, «bertsolariaren eta entzulearen arteko komunikazioaren txinparta sortzeko gakoak» (Garzia, 1995). Diskurtsoa, era foucaultiar batean ulertuta, gure esan eta irudikatze ahalarren azken muga baldin bada, gaiak diskurtsoaren gauzapean dira, sintomak. Zizek-ek (2003) dio, Marx dela sintomaren nozioa garatu zuena. Ideia eta errealitatearen arteko lotura iruditegiaren mailen ondorio zela zioen Marxez. Beste era batera esanda, ikusten dena sintoma da, eta berau da era berean ikusten ez denaren dimentsioari forma ematen eta sintetizatzen dituen.

«Gai-jartzailearen eskuliburuan» (2002) gai batek honako aspektuak barnebidu behar zituela zehazten zen: alde batetik berria izatea, gaurkotasuneko; bestetik zeresana izatea. Unea eta lekua kontuan hartu behar direla alegia. Bertsolariarentzat motibagarria izateaz gain, oholtza gainekoen zein azpikoen (publikoaren) mundu erreferentzialarekin bat etorri behar zela (Bertsozale Elkarte, 2002: 12). Azken puntuan dago azterketa honen gakoak. Gaiak aztertuta, bertsolaritzaren, eta bertsolaritzak sortzen duen mundu erreferentzialaren, erradiografia bat egitea posible dela iruditzen zaigu.

Hala ere ez dira gai guztiak aztertuko. Ariketa batzuk baztertu egin ditugu ondorengo arrazoiak medio.

- Bertsolari bakoitzaren hasierako eta bukaerako **agurrak**: bertsolariaren eta Txapelketaren erritoaren sarrera/amaierak dira. Gaia testuingurua bera da, gai-jartzaileak ez du abiapunturik jartzen. Diskurtso orokorraren zantzu batzuk eman baditzaizkete ere, nagusiki, bertso prestatuak dira eta gaien faltan, alboratu egingo ditugu.
- **Lehen puntua emandako** ariketa: gai-jartzaileak ausazko gai baten inguruan jartzen dizkio hiru puntu bertsolariari. Ez dago gairik formulatuta, eta horregatik, azterketa honetan ez dira kontuan hartuko.

— **Puntukako ariketak:** bertsolariei binaka egoera bat planteatzen zaie, eta puntuka, hau da, errimatik errimarako bertso zatia bota eta txandakatuz, elkarrizketa bat osatu behar dute. Bertsoaren erdia osatzen du bertsolari bakoitzak, eta beste logika bat duen ariketa dela uste dugu.

Gai bakoitza diskurtsoa gauzatzeko aukera bat litzateke, eta gaien arteko lotura, harremanek sentiera eta kodifikazio jakin baten berri eman diezaguketela uste dugu. Informazioaren analisiaren ondorioz, bost kategoria bereizi ditugu:

DILEMA MORALAK: dilema moralak narrazio laburrak dira, historia modura, errealtateko gertakari posible bat aurkezten dute moralki gatazkatsua dena (Suárez eta Meza, 2006; Rueda-k aipatua, 2008: 15). Montuschi-ren arabera berriz (2002) dilema, ekintza kurtsoen arteko gatazka existitzen denean ageri da (2002: 19). Auttore berdinak bi dilema moral mota bereizten ditu: bi ekintza posible egon eta hauek gauzatzeko ekintza moralki desegokia hautatzeko beharra eskatzen dutenak, edo subjektua onaren eta txarraren artean erabakitzen behartzen dutenak.

Dilemak finean erantzun «onaren» aukeraketan datza. Esparru desberdinak elkartzen dira eta ondorio hurbilak eta urrunak baloratu behar dira. Ez dago argi kode morala, eta batzuetan dilema bera egoera aldatuz desagertzen da. Gaietan egoerak planteatzen dira normalki. Askotan bertsolariari egoera horrekiko ikuspegia atxikitzen zaio, rol bat ezartzen zaie alegia, eta testuingurua, jakintza, teknika eta abarrak erabilia, rol horretatik balio horiei forma eman behar die bertso-tan. Gaiari informazioa gehitzen diote dilema deuseztatu dadin. Gai guztietan gertatzen da hau, baina rolak baino ikuspegiak pisu gehiago duten gaiak sartu ditugu hemen. Dilema jokoan bidez komunitatean dauden kontraesanak edo kode antagonikoak agertu daitezke eta arazo moral orokorrak ere bai.

EKONOMIA: bi Txapelketen arteko desberdintasun handietako ekonomia izan da. 2007ko krisiak ekarri duen aldaketa bertso-gintzan ere ea sumatzen den ikusteko berezi dugu ekonomiaren partzela. Zehar-lerro gisa baino, ekonomia gaien oinarrian dagoen gaiak lirarteke kategoria honen barnekoak.

FAMILIA: familia haurraren sozializaziorako lehen esparrua izan da, balioen kabi, munduratu baino lehen igaro beharreko ezinbesteko toki. Euskal Herrian ere familiak berebiziko garrantzia izan du historikoki, eta egungo aldaketak medio, familiaren rola aztertuko ditugu.

HARREMAN AFEKTIBOAK: harremanak gai guztietan planteatzen dira. Kategoria honetan, pertsonen arteko harremanak sartuko dira. Afektibitateak besteekiko ditugun sentimendu, pentsamendu eta ekintza konpartituei egiten die men. Gradu desberdinetakoa izan daiteke afektibitatea eta harreman definitzeko ezaugarria izan liteke.

POLITIKA / EUSKAL HERRIA: bertsolaritza, euskal kultur-gintzaren barruan kokatu eta hizkuntza minorizatu batean zertu da, bere aldarri/ahots bihurtzeraino. Politikarekiko atxikimendu zuzena izan du, euskal abertzaletasunaren espresio izan da. Garai aldaketak diskurtsoan eta gaien presentzian zein leku hartzen duen jakiteko banandu dugu kategoria hau.

Kategoria bakoitza zein ariketatan azaldu den ere zehaztu dugu. Komunitateak bere diskurtsoa garatzeko arauak ezinbestean jarri behar dituela aipatu dugu, eta diskurtsoaz, edukiaz gairi, Txapelketaren generoak ariketa zehaztuak ditu. Ariketa bakoitza formagatik bereizten da, hots, bertsoaren neurria eta errima aldatzea da ariketa batetik besterako aldea, baina, forma aldatzeak ere edukian eraginik baduen edo ez ikusteko, kategorien eta urteen arteko konparaketa azaltzen digu ondorengo taulak.

Kategoria bakoitzak hainbat dimentsio ditu. Dimentsio bakoitzak aldaerak ditu eta hauek «erakusleak» daude (testu zati zehatzak). Gai guztiak aztertu baditugu ere, txosten honetan kategoriaren adierazleak direnak aipatuko ditugu. Analisisira salto egin aurretik, esan, azterketa hau lagin baten azterketa dela. Lagin mugatua da eta badakigu jakin, ezin dela erabateko inferentziarik egin, gogoetarako eta hurbilpen baterako oinarria dela, eta bi Txapelketa ez direla bertsolaritzaren diskurtso totala biltzeko gai. Behin hori esanda, aurrera.

2. taula
Kategoriak ariketaren arabera

Edukia	Neurria	2001	2017	Guztira
Dilema moralak	8ko HANDIA		1	1
	8ko TXIKIA	1		1
	10eko TXIKIA / 6ko motza / iparragirre	3	2	5
	BAKARKA	5	2	7
Harremanak	8ko HANDIA	2		2
	8ko TXIKIA	3	2	5
	10eko TXIKIA / 6ko motza / iparragirre	1	1	2
	BAKARKA	1	1	2
Ekonomia	8ko HANDIA	1	1	1
	8ko TXIKIA		1	1
	10eko TXIKIA / 6ko motza / iparragirre	1	4	5
	BAKARKA		6	6
Familia	8ko HANDIA			
	8ko TXIKIA	1	1	2
	10eko TXIKIA / 6ko motza / iparragirre		1	1
	BAKARKA	2	4	6
Euskal Herria / Politika	8ko HANDIA	1	3	4
	8ko TXIKIA		1	1
	10eko TXIKIA / 6ko motza / iparragirre	4		4
	BAKARKA	3		3

Iturria: norberak egina.

5.1. Dilema moralak

«Dilema» (1) zalantzarekin edo (2) hautabidearekin lotzen da. Ez dago dilemarik hautabiderik ez dagoenean, eta hautabide guztiek dute «zalantzarekin» lotura dilema badago. Dilema moralen adibiderik nabarmenenek betebeharrak edo exijentzia moralak barnebiltzen dituzte. Hau da, «agenteak bi hautabideren artean aukeratzeko betebeharrak du, eta ez zaio bat besteari gailentzen baina ezin dira biak aukeratu» (Mendonça, 2008: 122).

Komunitateek balio partekatuen gainean eraikitzen direla esan dugu, baina komunitatean barnean ere antagonismoak egon daitezke. Bertsolariei ofiziorik gehienetan gai baten inguruko bi posizio jartzen dizkie. Biak ez dira zertan kontrajarriak izan baina gizabanakoak bere iritzia ezkutatu eta masaren, komunitatearen, ideiekin bat egiteko joera izaten du Noelle-Neuman-en «isiltasunaren espirala» (1974) aintzat hartuz. Azken finean, iritzi publikoa bera kontrol sozialerako modu da. Noelle-Neuman-ek zioen, iritzi publikoaren iritzi-klima hautematen duela norbanakoak eta horren arabera jokatzeko duela. Publikoak zein bertsolariak egiten du inferentzia hau gure ustez, baina bere burua kritikatzeko, bere hori masak ere egiten duela jakinda, legitimitatea lortzeko modua ere bada.

Gure sailkapenean, 2001eko bederatzi gai eta 2017ko bost daude atal honetan. Gai-kopuruaren desberdintasuna, esanguratsua. Zigmunt Bauman-ek zioen, komunitateak sare bihurtu diren honetan, moralaren axolagabekeria handitu egin dela (Bauman eta Donskis, 2016: 27) eta horren adibide, «itsutasun morala» liburuaren izenburua. Morala gure portaerak gidatzeko irizpidea da, geure burua zein besteena baloratze-koa. Bertsolaritzaren hartu-eman komunikatiboan, moralaren presentzia ukazina da.

Norbanakoa

2001eko «dilema moralen» gai tipo gisa, 3. gaia jar genezake. «3. gaia: zuek biok itxaropena zarete. Zu, Sustrai, txiroen itxaropena zara, eta Igor aberatsen itxaropena da». Bertsolariak «itxaropena» bezalako abstrakzio batetik kantatu zuten, nahiz eta pobre/aberats adjektiboen kargetik «itxaropenaren» sentimendua rolaekin berdindu

(aberatsaren itxaropena ez al da oximoron bat?). Aldiz, 2017an kategoria berdinean, 11. gaia kasu: «11. gaia: irakasleak dira Aitor eta Maialen. Murrizketak direla eta, greba egin zuten atzo ere. Gaur, lanera bueltatu dira»¹⁰.

2001eko figurak despertsonalizatuta daude (ikus 4. gaia ere). 2017an ez da abstrakziorik ageri. Pertsonaia «errealetan» kokatzen dira gaiak, gorputzetan. Gorputzaren presentziak beste dimentsio batzuk hartu ditu egun. Jone Miren Hernandez-en arabera, «bertsolaritza gorputz-ariketa da» (2010). Jean Baudrillard-ek dio (1974), urte luzeetan gorputzaren ukapena bizi izan dugula, gorputzik apenas dugula sinesterraino. Orain aldiz, pertsona bakoitza bere gorputzaz konbentzitzen saiatzen da sistema, gorputza norbanakoak ezinbestean duen objektua izaki, instituzionalizatu eta iturri produktibo bihurtzeko eremu da. Marka eta bereizgarritasun elementu bihurtu da, bai gorputza eta baita norbanakoa bera ere. Carmen Larrañaga-k (1994), bertsolaritzan bakoitzaren figurak, gorputzak, duen zentraltasuna kritikatu izan du jarduera ordezkatzeko duelako.

2017ra bitartean gaietan egiten den aldaketetako bat, gai beraren aurrean bi bertsolariak posizio berdinetan jartzearena da. 2001eko gai polarizatuak albo utzi eta posiziorik zehaztuko gabeko diskurtsoa garatzea planteatzen zaie bertsolariei. Gure ustez, aldaketa hau egungo nortasunaren ziurgabetasuna eta erlatibizatzearen erakusle izan daiteke. Dilema bigarren mailan gelditzen da kontra-posizio agerikorik ez dagoelako. Hala ere, bertsolariak xede-taldearen diskurtsoaren ahots direla aipatu dugu. Prest al daude talde horrek «txartzat» dituen posizioetatik kantatzeko? Hala ere, bertsolariak prest daude horretarako? Greba osteko hurrengo egunean lanera joan behar duten irakasleek (11.gazia) posizio desberdinak hartzen dituzte? Aurrerago jorratuko dugu galdera hau.

Bazterrekoak

Moralaren logikak, bi aspektu bereizten ditu: faktikoa eta normatiboa. Beraz, komunitatearekiko norbanakoaren jarrera erregulatzen

¹⁰ Kategoriak analisirako tresnak dira. Bertso bat, hainbat kategoriatan egon daiteke, baina kategoria bakarrean kokatu dugu analisian. Kategorien arteko loturak eta uztardurak ere kontuan hartu behar dira.

den bezala, komunitateen barneko batasuna eta bereizketa egiteko ere balio du, joko horretan hartzen baitu komunitatek bere buruaren kontzientzia eta estimua. Bertsolarien lana «komunitatearen» balioak zehaztea da hein batean, zer den «ona» eta «zer hobetu daitekeen» esatea. Baina hau, bertsoaren alderdi bat da, funtzio normatiboa. Moralaren kasuan, gure ustez, bertsolariak komunitatean balioak transmititzen dituzte gehiago, balizko egoeretan (gaietan) komunitateak zer egiten duen edo zer egin behar lukeen diote.

Maialen Lujanbiori 2001ean bakarka jarritako gaia har dezagun. «5. gaia: ezindua zara. Zure gurpil-aulkia duzu derrigorrezko ibilgailu. Aulkiari erantsita duzun motxilatik kartera ostu dizute gaur». Ezindua, gurpildun aulkia derrigorrean darabilena, eta gainera, lapurtu. Gizarteak zapaltzen duen figura are zapalduago planteatzen du gaiak. Lapur zorritzoa! Zein da erantzun moralak? Komunitateak lapurreta bera baino, ezinduari lapurtzearen txarkeria txalotzen du. Ezindua ez da «besteok bezalakoa» eta komunitateak «bera baino okerrago» dagoenari, errukia dio.

2017ko gaietan, ertzeko pertsonaiak jartzeari iskin egiten zaio. Baina kartzelako gaiak zabaltzeak, badirudi horretarako bide ematen dutela¹¹. Honela zion 2017ko goizeko gaiak. «13. gaia: atetik sartu zarenean, isildu egin dira denak». Gaia zabaltzeak bertsolariari erabakitzeke ahalmen handitzen dio. Minbiziaren notizi txarrak, euskaraz ari ez den irakasleria, ihesa pasa ostean etxera itzultzen den alaba, Katalunia, haur marokoarraren eskolako presentzia, aitaren heriotzaren aurreko dolu momentua, Parisko atentatuaren aurrean moro baten susmagarritasuna, Gabonetan familia-afarira aspaldiko partez agertu dena... Gai aniztasuna nabaria den arren, isiltasuna, beldurrarekin, mesfidantzarekin, konfiantza faltarekin, lotzen dute denek. Ateetik sartzean, ez dira isildu notizia on bat entzuteko.

Ekonomiaren agerpena

Ekonomiari, duen garrantziagatik, beste leku bat eskaini diogun arren, dilema ekonomikoak atal honetan kokatzea erabaki dugu mo-

¹¹ Kartzelako gaiak, bai 2001 eta bai 2017koa, gaitik aztertuko ditugu. Hau da, bertsolari bakoitzaren aldaerak ez ditugu sailkatuko eta irakurketa orokorra izango da.

ralarekin duten loturagatik. Horretarako urte bakoitzeko bi gai kontrajarriko ditugu. 2001eko 8. gaia: «*8. gaia: Bizitzan hamaika lan egina zara, eta baita diru mordoska pilatu ere. Heriotza hurbil sumatu eta zure diru guztiei su ematea erabaki duzu. Suari begira, hiru bertso, nahi duzun neurri eta doinuan*». Hau da, diru izugarri du pertsonaiak, baina ez zerutik behera eroritako dirua, «hamaika lanen» ondorio den dirua da berea. *Mordoska* bai, baina merezita. Dirua lanaren ondorio izatea «ontzat» hartzen dugu baina dirua erretzea ez da ohiko eta bertsolariak legitimatu egin behar du egindako ekintza.

Unai Iturriagari egokitu zitzaion gaia eta hasieratik marraztu zuen bere pertsonaia: «*aurretik neuzkan printzipioei / nahi nien nik gogor etsi (...) gero eskuak igurtzi / nire ingurua ta familia / diruak ez dezan hautsi*». Hirugarren eta azken bertsoaren azken esaldia ere adierazgarria: «*eta dirua euki nahi dunak / berak irabazi beza*». Belodromoan ari ziren kantuan, 2001a zen eta lan egitea ez zen bulegoarekin, enpresarekin lotzen. Gai honetan baina, klase ikuspegia baino dilema morala agerikoagoa da. Komunitateak, aberatsa «gaizki ikusten zuen» (ikus 3. gaia) beraz, dirua izatea justifikatu egin behar da eta hala ere, ezin da pertsonaiaren «lehentasun» bihurtu. Ardura sozial/familiarra da garrantzia duena benetan.

2017an dilema moralak ekonomiaren forma 10.gaian hartzen du. «*10. gaia: kirolari profesionalak dira Maialen eta Unai, eta publizitate egiteko eskaintza asko jasotzen dituzte. Maialen edozer iragartzeko prest dago. Unai, ordea, ez*». Kirola eta dirua lotzean, futbolarien figuratik kantatzen dute bertsolariak eta publizitatea egiteko aukera etekin ekonomiarekin berdintzen da. Publizitatea egiteko prest dagoenak honela dio: «*ta honezkero ze inporta zait / pixka bat salduxeago*». Aurre-suposatzen du, bertso hori entzungo duen xede- taldeak «futbolariek gehiegi irabazten dutela» uste duela. Aldiz, bigarren rola, etekin ekonomiko gehiagoren beharrik ez duenak, «familia xume» batetik etorri izana erabiltzen du argudio gisa. Xumetasuna, txikitasuna, gai andanatan azalduko da.

Bi gaietan interesatzen zaiguna da, dilema morala dela ekonomia bertsolaritzaaren komunitatean, eta dirua izatea edo honen desira justifikatu egin behar dela.

5.2. Ekonomia

2007ko krisialdi ekonomiaren ondotik, ekonomiaren presentzia areagotu egin da. Gaien sailkapen hau zurruna ez bada ere, eta puntu askotan elkar ukitzen badute ere, sailkapen honen arabera, 2001ean ekonomiari loturiko bi gai azaldu ziren; 2017an, berriz, zortzi. Bertsolaritza gizartea aztertzeke lagin baliagarria denaren beste ebidentzia bat.

Etxea eta harrotasuna

2001eko bi gaietatik, 16. gaia da esanguratsuen orduko ekonomiaren argazkirako: «16. gaia: zu, Sustrai, hamasei urteko gaztea zara. Etxean ikusten dituzun diru arazoez ohartuta, zeu lanean hasteko proposamena egin diozu Maialen, gurasoari». Ekonomia etxearekin lotzen da eta ekonomia hobetzea ongizatearekin. Eta horretarako truku bakarra dago: lana. «Egunez eta gauzez / egingo dut lana, harro egon daitezten / aita eta ama». Semeak dio gogotik egingo duela lan, bizitza modu horretan aterako duela aurrera, eta bere auto-errealizazioa ez ezik, gurasoen harrotasuna eskuratuko duela. Autore askoren arabera, harrotasuna «emozio soziala» da edo gainerako emozioak baino «sozialagoa», auto-kontzientea delako. Harrotasunak jendartearen alderdi asko ditu, beste pertsona baten begirada, balorazioa, onarpena funtsezko elementu baititu. Lorpenen emaitza izateaz gain, gaitasunen ondorio ere bada (Ben-Ze'ev, 2000; hemen aipatuta: Etxeberria et al., 2011).

Uste hori aldatu ez delakoan gaude, baina ikasketek beste pisu bat dute egun. Langabeziaren igoerak, lan-eskuaren aldaketak zein aurretik aipatutako norbanakoaren garrantziak eragin dute besteak beste. 2017an jarritako 24. gaiak ondo barnebiltzen du dena. «24. gaia: gaztetan ez zenuen ikasteko aukerarik izan. Urteetan aurrera zoaz eta orain ikasten hastea erabaki duzu». Batetik, gaiak ez dio «gaztetan ez zenuen ikasi». Kasu horretan bertsolariaren esku legoke arrazoa asmatzea eta beste hari bati tira egitea, baina gaiak «aukerarik ez zenuela izan» dio. Ikastea ona da, garaiz ikastea da ona, eta berandu ikasiz gero ere, ona izan liteke. Ahaleginaren kultura baten erakusle da diskurtso hau. Saiatuz gero bakarrik lortu daiteke zerbait, gora meritokrazia! «eta iristen saiatzen ez dena / ez da inora iristen». Are, ahaleginaren eta lor-

penaren arteko lotura estutu egiten da testuingurua kontratan badugu. Bertsolariak honela hasten du lehen bertsoa: «*etxean zuten diru murritza / ojala gehio izan balitza*». Familia xumea berriro ere.

24. gai honetan, bertsolariak ikasi ezinaren ondorioz hautatu zuen lanbidea garbitzailearena dela aipatzen du. Diskurtsoen ulermenean eta aipatutako imaginarioan estereotipoak asko erabiltzen dira eta estereotipo hauetan generoa faktore behinenetakoa da. Bertsolariak ez du garbitzailearen pertsonaia gehiegi marrazten, ez du inongo elementurik aipatzen eta zalantza egin dugu, bertsolaria kasu honetan gizonezko gisa aurkezten denez, publikoak gizon gazte garbitzailea ikusi ote zuen edo pertsonaia eta diskurtsoa aldendu egin ziren. Bigarrenaren ustekoak gara gu. Garbitzailea emakumearekin lotzen dugu oraino, are gehiago orain urte batzuk lanean hasi baldin bazen eta komunitatearen legitimitatea zein ulermena kolokan jarriko zitzaizkion bertsolariari pertsonaia garatu izan balu.

Merkatuaren presentzia

2017an ekonomia etxearekin baino, merkatuarekin eta enpleguarekin lotzen da. «*17. gaia: arropa denda bat dute elkarrekin Ametsek eta Aitorrek. Ametsek jaiegunetan ere denda zabaltzen hasi nahi du. Aitorrek ez du ireki nahi*». Gaiak, iradoki badezake ere, ez du esaten. Gatazka hau ordea, denda txikietan dago eta lehen bertsoetik zehazten da/du hori: «*ulertzen ditut lan-baldintza ta / mila langilen borroka, baina guk goiko marka klaseei / joa diegu erronka*».

Igandeetan zabaltzearen alde dagoenak honela jarraitzen du: *baina denda handi ta frankiziek / bide horixe dakarte (...) beren borroka ildo berean / hartu behar dugu parte*. Arrain handiak jaten du txikia. Euskal literaturan, politikan, zineman, errepikatzen den toposa da txikitasuna. Gai honetan txikiaren (denda txikien) ahotik kantatzea nabarmenagoa izan badaiteke ere (igandeetako irekiera ez baita oro har frankizien gatazka), euskal diskurtsoak txikitasunarekiko lotura duela uste dugu. Hurbilagotzat, gertuagokoagotzat, bertakoagotzat dugu. Txikian handi.

Hala ere, diskurtsoaren adierazpide honetan, denda jaiegunetan irekitzearen kontra dagoenak ere ez du diru nahia alboratzen: «*nik ere*

nahi det irabazia / kontu korrontea gora. Ta astean behin irabaziak / erabiltzeko denbora». Diru gosea edonork balukeen gisan mintzo da. Baina berriro ere, dilema moraletan ikusi bezala, diruak ezin du lehen-tasun izan.

Bi urte mugen artean ekonomia aldatu egin da eta bere dimentsioak ere bai. 2001eko ekonomia norberaren diru-sarrerekin lotzen zen, enpleguarekin batik bat. 2017an berriz, orokorragoa da ekonomia eta honek duen eragina. Honek ez du esan nahi norberaren ekonomia, ekonomia globalak ordeztua izan denik. Kategoria hau bikoiztu egin delakoan gaude.

Euskal enpresa

Lehenengo atalean, dilema moralen artean ekonomiaren balio al-daketetan ikusi dugu dirua «gaizkiarekin» lotzen dela. Iruditzen zaigu, hori problematizatzeko jarri zutela 21. gaia. «*21. gaia: nazioartean kontratu garrantzitsuak lortu izan dituen euskal enpresa bateko komertzialak dira Aitor eta Sustrai. Negozio ekimen bakoitzean milioi asko jarri obi dituzte jokoan. Sustrai Aitorri esan dio ezin duela erantzukizuna gehiago jasan*». Enpresa bateko komertzialak dira baina gai-jar-tzaileek beharrezkotasuna ikusi zuten enpresari «euskal»-a gehitzeko.

Zer da «euskal»-a BEC-entzat? Bertsolaritza euskaraz soilik gartzten den fenomeno da, euskarak erabateko presentzia duena. Esan dezakegu, euskalduna bertsozalearentzat ez dela izen-lagun deskriptibo hutsa, jokabide eta estrategia bati lotzen zaio. Euskal enpresak tokiko enpresa irudikatzen duela uste dugu, baina nazioartean ibiltzen den enpresa izaki, herri-identitatearen galeraren auzia da gaiaren gatazka. Identitatearen galera, ekonomia igoerarekin eskutik helduta doa, eta dilema morala planteatzen da berriz ere.

Nola erantzun honi. Lanean jarraitzearen alde agertzen denak «herri oso bati» lana ekartzen diotela aipatzen du bere aldeko argumetutzat. Herria. Bigarren bertsolariak baina, euskal enpresa zehatz bat hautatzen du: CAF. Publikoaren markoa eta gaiak izan zezakeen lausotasuna asko zehazten du elementu honek. «Petronor» ere izan zitekeen euskal enpresa, baina CAF, Gipuzkoako Goierri eskualdean kokatutako enpresa da, tokikoa, hain handi eta hain «gaiztoa» ez dena. Gainera,

trenen produkziara bideratutako enpresa izanik, tren bezalako elementu metaforikoari heltzeko aukera ematen die bertsolariei. Eta bertsolariek heldu: «*guri esker doa ekonomia / gurpilen gainean*» zein «*ta gutxi falta da nere tren / deskarrilatze*» metaforekin makilatutako arrazoiak bota zituzten.

Bertsolariek euren jardunbidea justifikatzeko legitimazioa eskuratu behar zuten, eta arrazoietan baino, metafora eta hitz-jokoen bidez garatzen dute diskurtsoa. Metaforen esan/ez-esan joko horretan, bertsolariek ihes bide gisa erabiltzen dutela esango da baten batek, baina bat-bateko jardunaren errekurtsoa izanik, ez dago hori baieztatzeko ebidentziarik. Bestalde, gaiaren itxierako bertsoak honela zion: *izan arren nabiko zama / heltzeko herriarengana / norbaitek egin behar du beti / sukaldeko lana*. Enpresarioak, enpresako langileak ere ez direnek egiten dute herriaren ekonomiaren alde sukaldeko lana. Publikoak txalo.

5.3. Familia

«Familiaren inguruko gaiak ikaragarri jarri dituzte aurten». Bati baino gehiagori entzun genion finalaren ostean halakorik. Gaien kontaktari erreparatuta, 2001ean hiru gai ziren familia zehar-lerro gisa lantzen zutenak. 2017an berriz sei. Diskurtsoak zein ariketatan garatu diren ikusten badugu, bakarkako gaien nagusitasuna nabaria da (ikus 2. aula).

Familia elkarren artean nolabaiteko ahaidetasun loturak dituen pertsona taldea da. Ahaidetasun egitura hiru harreman motakoa izan daiteke: bikote ahaidetasuna, arbaso berberak dituen talde edo haurridetasuna (anaia-arreben artekoa). Hainbat faktore medio, familia birdefinitzen ari da, eta egun ez dauka ahaidetasunarekin lotura zehatzik.

Euskal Herrian, ganboatar eta beamondarren ondorengotzatik, oro har familiak garrantzia handia (izan) du. Historikoki, Estatuaren batz bestetik gorako pertsonadun familiak ziren euskal familiak, eta maioraizkoaren sistemak, herentziaren banaketaz gaindi, egitura soziala bestelakoa izatea ahalbidetu du. Lan honetan, familiaren historia baino, oraingo familia eta honen errepresentazioa interesatzen zaigu ordea. Bi Txapelketa Nagusi hauetan baina nola garatu da familiaren gaia?

Familia eredu nuklearra

Familia ulertzeko modu desberdinak egon dira. Etxeko trapaak ere tokian- tokikoak, garaian-garaikoak. 2001ean, oso txalotua izan zen ondorengo gaiarekin osaturiko bertsoaldia. «25. gaia: sei urteko semea- rekin batera bizi zaren ama ezkongabea zara. Gaur, semea ikastolan, «aita, ama eta ni» deritzan marrazkia egin duela esanez datorkizu». Gaiaren arabera, ama ezkongabea zen, senarrik ez du izan ezezaguna den arrazoi batengatik. Bertsolariak haurraren marrazkiaren gertae- rari baino, ama ezkongabearen zergatiari heltzen dio. Haurdunaldian umearen aita istripu batean hil zela kontatzen du. Gizon zintzoa zen, ia gizon denak bezalakoa. Bat-bateko lana izaki, ezin dezakegu jakin hautu kontzientea izan zen edo ez, baina gaude, 2001eko testuingu- ruan eta imaginarioan, ama ezkongabea oraindik oso figura lausoa zela: amatasuna bera ezkontzarekiko definitzen da. Ama bakarra ez da exis- titzen. 2017ra bitarteko aldaketek eta batik bat feminismoaren eragi- nak, emakumearen estereotipoa asko aberastu eta antzaldatu dute eta era berean familiarena ere bai.

25. gaiak, «aita, ama eta ni» zeritzan marrazkia aipatzen du. Kasu honetan, semeak aitaren faltarekiko duen sentsibilitateak familia nu- clearra da oinarri. Familiak hainbat forma eta eduki izan ditu historian zehar baina mende honen lehen hamarkadatik bigarrenerako saltoan egon da ezberdintasunik. Gizarte post- industrialetako familia, intere- sak eta beharrak elkartutako norbanakoek osaturiko komunitatea zen; aldiz egun, kontrol, arrisku eta mugaketa desberdinak dituen espe- rientzia eta plan propioen talde izatera pasa da (Beck, Ulrich; & Beck -Gernsheim Elisabeth, 2001: 102).

Familia nuklearra desagertzen ari dela dirudi. EAEn, EUSTAT-en 2016ko datuen arabera, familia nuklearrak 487,5 mila ziren¹². Familia nu- clearrak, guraso eta seme- alaba bat edo gehiagoz osatuak ziren. Familia moten artean hurrengo kopurutsuena pertsona bakarreko familia zen. Al- daketa hauen zergatiak asko izan daitezke: kapitalismoaren aldaketa, indi- bidualizazio prozesua, desinstituzionlizazioa, sekularizazioa... Gizarte alda-

¹² Datuen iturria, EUSTAT: http://www.eustat.eus/elementos/ele0004400/Familias_por_tipo_y_tamano_medio_en_miles/tbl0004447_c.html. (Azken kontsulta, 2018-03-29.)

keta batean gaudela esateko 2017ko familia eredu berrien agerpena izan daiteke erakusle. «30. *gaia: hamar urteko haur bat duzu harreran. Gaur du asteroko bisita familia biologikoarekin. Noiz itzuliko zain zaude*». Harrerako familiaren egoera 2001 publikoaren hiztegian ez zen existitzen.

Aldaketak egon badiren arren, familiaren gaia da forma tradizionalak eta berriak gehien batzen dituen gaia gure ustez. Izan ere, harrerako haurrarekin batera jarri zen ondorengo gaia ere. «28. *gaia: gurasoak dira Aitor eta Beñat. Seme-alabak koskortu eta etxetik joan zaizkie. Haien gelak husten hasi dira*». Bi bertsolariek, seme- alabak etxetik joateak sortzen dien ezinegon eta noraezetik kantatu zutela uste dugu. Kate Millet-ek zioen, familiaren dominazio modurik indartsuena gurasoek haurrari egina dela, bizitzaren lehen arnasalditik bere dispositiboak modu zehatz batean zuzentzen baitizkiote (Millet, 1986: 89). 28. gaiak familiaren desinstituzionalizazioa erakuts badezake ere, bi bertsolariek nostalgiari heltzen diote. Kasualitatea al da joera hori? Zergatik egiten dute hautu berdina?

Gure ustez, hasteko, gaiak badu bere erantzukizuna. «*Gelak husten*» esaten du eta «husteak» konnotazio negatiboa du dena beteta, dena ahalik eta gehien, beteen, nahi dugun balio-sistema honetan. Bestetik, diskurtsoaren eta testuinguruaren arteko lotura ere halako gaietan nabarmenagoa da. Familia gaiaren sakratutasuna oraindik indarrean dagoela demostra dezake, historiko dakargun euskal familiaren pisua. Bertsolariei gai berdina gaztetxe batean jarriz gero, ikuspegi berdinetik kantatuko luketenik ez dugu uste. Hala ere, iraganarekiko nostalgia behin baino gehiagotan ateratzen da finaletako diskurtsoetan. Bertsolaritzaren berrikuntza ezin da ukatu, baina iraganaren pisua zenbatekoa den jakitea garrantzitsua da.

Odolak maitasuna dakar

Familia eredu nuklearrak funtzionalismotik edan du, gurasoen eta seme-alaben arteko «hurbiltasun emozionala» berezkozat hartuz. Lazo komunitario zaharrak haustean, familia (ezkontideengan finkatua) bihurtzen da arduraren espazio eta sentimendu zein balioen kabi.

2017an familiari lotzen zaizkion gaiak gurasotasunetik abiatzen dira. Familia nuklearra ezkontideen arteko harremanean eta gurasota-

sunean oinarritu da eta gure ustez, bertsolaritzan bi oinarriak desberdin garatu dira.

Ezkontideen maitasunaren berrirakurketan mugimendu feministak berebiziko garrantzia izan du. Nekez entzungo dugu printze urdinaren bila dabilenik, laranja erdirik edo Becquer-en poesiarik. Kontrara, seme-alabekiko maitasun erromantikoarekin ez da halakorik gertatzen, edo zer gauza utzi daiteke (utzi behar da) haurrengatik. Adibidetzat 30. gaian kantatzen den bigarren bertsoa, harreran hartutako gurasoa zain dago: «*arratsalde bat pasatuko da ta ikusiko ditut beltzak / muxu eman nahi, irri egin nahi ta sentitu nahi neretzat / bospasei ordu joango zaizkit gorputzeko hutsunetzat / gauza hauek sortu ditzakeelako norberaren haurrik ezak*». 28. gaian azpimarratu dugun hutsunea berriro. Izan etxetik joan zaizkigun seme-alaba gazteak, izan amatasuna, izan harre-rako haurraren itxaronaldia, 2017ko familiarekin lotutako gai denetan hutsunearen presentzia aurkitzen da.

Jose Ignacio Pichardok 2009an egindako ikerketa batean arabera, familia ereduak aldatu badira ere, familiaren balorerik garrantzitsuenak maitasunak eta zaintzak izaten jarraitzen dute. Bere lanean, bikote homosexual zein heterosexualetan amatasunaren eta aitatasunaren diskurtsoak antzekoak direla jabetu zen. Bertsolaritzan sexu-generoaren markak erabat ezabatu dira gaietatik. 2017an adibidez,

28. gaian bi gizezkoak kantatu zuten guraso paperetik. Inork ez zuen zehaztu bikote homosexuala edo heterosexuala ziren eta aurrera pauso bat da hori, baina, era berean, diskurtsoan ez dago aldaketarik. Familiaren formen aldaketak badirudi ez duela edukietan eragin berdina izan.

5.4. Harreman afektiboak

Harremanak ez dira bat eta bakarrak, molde, eduki, norabide askotakoak dira. Bertsolaritzaren gai guztietan planteatzen da nolabaiteko harremana, baina kategoria honetan afektibotasunarekin zein sexuarekin zerikusia dutenak.

Intimoak terminoak «maitasunarekin» lotu izan ditugu. Gizarte Zientziak, gaur arte, maitasuna ikertzeko beldurrez egon dira. Shulamith Fi-

restone-k hala zioen: badago analisi honen hutsunerako arrazoirik: emakumeak eta maitasuna ezinbesteko zutabe dira. Aztertuz gero, kulturaren egitura osoa jarriko duzue mehatxupearan (Firestone, 1976: 159).

2001ean zazpi gai sartu ditugu kategoria honen barruan eta 2017an berriz lau. 2001ekoak 2017koak ez bezala, afektibotasuna maitasun sexualarekin berdintzen zuten. Maitasun sexual gisa definitzen dugu bikotean kontzentratzen den harreman afektiboa, afektibitate positibotzat izendatua, erakarpena, desira eta praktika sexualak barnebiltzen dituena. Afektibitatea eremu zabalagoa da. Bikotetik haratago, afektu positibo zein negatiboei egiten die erreferentzia. Bertso-laritzan, arau eta mugapen batzuk oinarrian daudela ahaztu gabe, nola ageri da hau?

Hiztegi aldaketa

Aldaketa kulturalak edukien eta formen aldaketa suposatzen ditu eta aldaketa sozialak sexu-generoen harreman aldaketekin badu zerikusirik (Beck eta Beck- Gernsheim, 2001). Sexualitateak teoria sozial feministan leku zentrala hartu du, erregulazio sozialerako instituzio izan dela salatuta. Lan honetan, *nolari* baino, diskurtsoek *zer* esaten duten aztertzea da helburu. Afektibitatea deituriko kategoria honen barruan baina, azpimarratzekoa irudituz zaigu 2001eko sexuaren presentzia esplizitua.

«34. gaia: *elkarrekin bizi zareten neska-mutilak zarete. Jon, neska, egunero joaten zara lanera. Jexux Mari, mutila, etxean gelditzen da etxeko lanak egiten. lana bukatu eta gosez amorratzen etorri zara, Jon, etxera, baina mahai gainean lore sorta eder bat aurkitu duzu*». Lehen bertsoan, Jexux Mari, platerean arrosak jarri dizkionak, honela hasten du elkarrizketa: «*arrazoi dezu, krabelin batzuk jarri dizkizut lehenbizi / ta afaria gelan daukazu bere postre eta guzi*». Behin hori esanda, bikoteak sexu-gosetik egiten du tira. Giddens-en arabera (2000) intimitatea sexualitatea eta maitasun erromantikoa lotzetik, erreproduktibotik baztertzen den identitatearen bilaketa konpultsibo izatera pasa da. «Sexualitate plastikoa» deitzen dio Giddensek sexualitate berri honi eta demokratizazio prozesu baten ondorio dela azpimarratzen du.

Demokratizazio prozesu hau mugimendu feministarekin eskutik helduta doa gure ustez.

2017an, 41.gaiak soilik aipatzen du sexu modu esplizituan: «40. *gaia: bizilagunak dira igor eta Maialen. Bart gauen birritan esnatu du Igor Maialenek sexu jolasetan zebilela. Gaur goizean, igogailuan egin dute topo*». Sexu jolasetan ibilia zen Maialenek «irrintziak» eta «izerdi putzuak» aipatzen ditu lehen bertsoaren hasieran, arrazoi baino deskripzio gisa eta ondoren sexualitatea praktika gisa baino edukitako/ez-edukitako objektu gisa darabilte bertsoari.

Bada ordea batura-gunerik bi urtemugen artean. Bietan, maitasuna, sexualitatea edo harreman sexuala denok desio dugun zerbait bezala marrazten da. Horren adibide da, 2017ko 41. gaiaren lehen bertsoa: «*sexua suertea da eta ez da luxu / bart gauetz dena irrintzi ta izerdi putzu. / Zuk berriz beakoa serioa duzu / duzun inbidi horrek zimeldu zaitu zu*. Sexua duenari inbidia zaio. Moral judutar-kristauaren birjinitatearen eta errukiaren garaitik, sexuaren hitz-jariora pasa gara. Foucaulten ustez (1976) sexuaren ukazioa jasan izana sinetsi dugu, baina botereak sexua erreprimitu baino, berau eraiki du, eraiki, noski, subjektibotasun baten intereserako. Kontzientziak eta gorputzak izan dira boterearen interesgune sexualitatea gure desiren gailurra bihurtu da.

Egun, erreproduktzioarako beharrean gozamenerako da sexua. Denok nahi dugu eta beraz naturala da. Izan beldurra, desira, edo dirunahia, sentimendu/jarrera/keren hedapena eta normalizazioa batera doaz. Sexologia erlijioarekin eta medikuntzarekin oso lotuta egon da, boterearekin beraz. Sexua erregulatzetik, aholkuak ematera pasa zen sexologia, denbora gutxiren buruan sexua derrigorra bihurtzeko intentziorik. Berrero ere Foucaultekin bat eginez, botereak ez du sexua erreprimitu, eraiki baizik.

Genero-indarkeria

Generoa gai guztietan ageri da, gai guztietan du eragina. Gaiak jar-tzerako garaian baina, ikusgarritasuna gutxi batzuetan hartzen du. Indarkeriaren kasua da azpimarratzen dena, eta honek genero-gatazka biolentziaren terminotan soilik garatzeko arriskua dakar.

2001eko afektibitatea maitasun sexualarekin eta positiboki garatu zela esan badugu ere, generoaren gatazkari egin zitzaion imintziorik. Gaiak honela zioen «34. *gaia: hirurogeita bost bat urteko bi emakume*

zarete, adiskideak. Bizitza latza eman duzue zuen senarraren ondoan. Zuk, Sustrai, gebiago ezin eta banatzeko erabakia hartu duzu. Andoniri gogorra egiten zaio bide hori hartzea. Hiruna bertso, zortziko handian, Sustrai hasita». Gaiak zehaztu egiten du emakumeak direla, eta ez edonolako emakumeak, hirurogeita bost bat urtekoak, hots, zaharrak. Zergatik? Emakume gazte batek ez duelako senarrarekin horren bizitza latza igaro, emakumeak sufritzeko ahalmena duelako eta ez zaiolako komeni «azkarregi» kexatzea.

Bertsolarien diskurtsoari dagokionez, errukia aipatzen da, «beste atsoen marmar» jasan ezina, morroi izan nahi eza... Estereotipoen erabilera nabarmena bezain arrunta da, diskurtso normatiboak ezin baitu komunitatearen markotik gehiegi urrundu. Eta aldi berean hau ez dela muga sentitu eta sentiarazi behar da.

Ordutik egin du euririk. 2017ak, azken hogeitertan indarkeria matxistagatik jarritako salaketek gora egin dute. Bertsozale Elkarteak generoaren inguruan egindako lanketa oparoa izan da. 1993an lehen aldiz Emakume Bertsolarien Topaketa egin zen, eta ondoren 2003an egindako topaketak bide eman zion bertsolaritzaren inguruan zebiltzan emakume desberdinen lekukotasunari. Hari horri tiraka, 2008an Bertsozale Elkarteko Genero Taldea sortu zen. Gerora, ikerketa, hitzaldi, formazio... desberdinak egin dira. Miren Artetxek, Txapelketaz galdetuta «genero ikuspegia txertatzeko lanketa» azpimarratzen zuen (Mujika, 2018). Nola islatu zen hau 2017ko Final Nagusian?

«41. gaia: lagunak dira Unai eta Aitor. Ez zaie gustatzen bere koardrilako bati bikotekidek nola hitz egiten dion, eta Aitorrek Unairi esan dio beren lagunarekin hitz egin behar luketela». Bigarren bertsoan lagunaren sexu-generoa zehazten da: Miren. Gaiak ez du adierazten halakorik, ez lagunarenik, ez bere bikotekidearenik.

«*Bikote tonto horrek*» botatzen du lehenengo bertsolariak eta bukarran bikotea «*bere mutila*» bezala izendatu. Inor ez da harritzen, bikotea heterosexuala delako oraino imaginario kolektiboan. Lagun izanda nola laguntzen da horrelako egoera batean? 2017ko Txapelketa osoan zehar azaldu zen konfliktu hau. Adibide nabarmenena Donibane Lohizuneko saioa. «*Gezurra esan duzu. Merezi izan du*» gaiari, bi bertsolarik indarkeria matxistako kasu baten epaiketan, gezurrezko testigantza emango zuenaren bidea hartu zuten. Estitxu Eizagirre-ren arabera,

bertsoaren bat- batekotasunik ukatu gabe, «gezuraren susmoa, faltsu-keriaren lurrina erasotua izan den emakumearen aldean jartzea, gainkarga izateaz gainera, ez dator errealitatearekin batere parean» (2017).

Uxue Alberdik 2014an egindako hitzaldi batean azpimarratu zuen, «emakume» eta «arazo» hitzak bateratzeko joera dagoela. «Problematizazioa eta biktimizazioa emakumeak dauden lekuan mantentzeko beste erreminta bat da» (Alberdi, 2014: 162).

41. gaian, lehen bertsoan «salaketa» aipatzen da. Bigarren bertsoak honela jarraitzen du: «*bai maitasuna itsua omen da / itsuegia da*». Miren ez da errealitateaz ohartzeko eta beraz nola lagundu! Genero indarkeria jasaten duten biktimekiko diskurtso erabilia da, objektu bihurtu eta agentzia eza egozten zaio. Lagunei kasurik ez diela egingo aurre-suposatzen dute, eurak amorratuta daudela azpimarratu, baina berak, Mirenek, ikusi ezean ezingo dutela ezer egin. Azken bertsoan, to soluzioa: «*agian zerbait esan behar zaio / bere mutilari*».

Badakigu bat-batean ari direla bertsolariak eta inkonstzientek, presioak, denborak eragiten dutela esaten denean. Hala ere iruditzen zaigu gai hauekiko gogoeta ez duela oztopatu behar honek eta sistematikoki ateratzen den egoera izaki, are.

Bi gizonen egokitu zitzaizen gaia. *Standpoint* edo *Ezagutza Koka-tuaren* Teoriaren arabera, ezagutza oso egoera historikoa eta sozial partikularretatik dator, eta «egiazko» ezagutza unibertsal eta neutralik ezin da egin. Gizonezkoek ez dute bereziki bizi behar generoaren determinazioa, hegemonia dute, genero «neutrala» dira. Horregatik gai honetan «neutro» gisa jokatu ahal dute, hau da, mistifikazio ideologiko batetik.

Generoak eragin nabarmena duela uste badugu ere, gaiak ezarritako testuinguruari ere jarri nahi genioke fokua. Biolentzia kasuetan hiru figura bereizten dira: erasotzailea, biktima eta testigua. Lehen bi paperak garatuago daude baina zein da testiguruaren ardura? Lévinas-en *Bestearen Errekonozimendu Etikoa*-ren Teoria aplikagarria izan daiteke (Lévinas, 1961, 1991; hemen aipatua: Fuentes et al., 2013). Bere ustez, Besteaz hitz egiteak transzendentzia etikoa eskatzen du, eta transzendentzia horrek Bestearen ulermen totala galtzea dakar. Hau da, Lévinasen dimentsio komunikatiboak, Bestearen zapatak jartzea

ezinezkoa dela dio, edo jarri bai baina beti geldituko zaizkigula desberdin onartuta. Printzipio horrekin subjektuaren objektibizazioa egitea ezinezko suertatzen da.

41. gai honetan agerikoa da biktima subjektu pseudo-soberanista gisa azaltzen dela, bere emantzipazioa bermatuta balego bezala hitz har dezakeelako, salaketa jar dezakeelako. Biolentziaren inguruko gure sen ona, modernitateako askatasunaren eta autonomiaren printzipioekin nahasten da, norbanakoa subjektu soberanoa dela baitiogu. Printzipio hauek beteko balira baina, ez litzateke biolentziarik egongo gure ustez, eta oinarri teorikoei heltzea ihesbide delakoan gaude. Fokua tesiguan jartzeak indarkeriaren egiturazko izaera erakutsiko luke.

Butler-rek dio (Butler, 1997, Fuentes et al.-ek aipatua, 2013), subordinazio egoeran aurkezten den subjektua aurretiko diskurtso batekin interpelatzen dela, eta bertsolaritzan, beste estereotipo askorekin gertatzen den bezala, genero-indarkeriaren biktimari aurre-irudi bat ezartzen zaio, agentziarik gabea eta diskurtsoan ezustekorik ez duena.

Analisian deskribapen hutsik ez dugun egin nahi eta iruditzen zaigu ausartu egin behar dela gaien inguruko irtenbideak edo gakoak planteatzera. Gure ustez, errukia moral judu-kristaudun komunitatearen elementu den arren, transformaziorako, eragiteko beste sentimendu batzuk probatu beharko lirateke estrategia komunikatibo gisa. Bertsolaritzak alderdi honetan bidea egin dezake, eta Miren *gaixoari*, akaso, bere (mutil)laguna nazkante, urde, babalorea dela konturatzen lagundu diezaioke.

Sexualitatea umorerako gai(a) da

Ezkitukoa azaleratzeak sortzen du. Sexualitatea eraikia izan bada ere, tabutzat hartu izan da eta beraz, hortaz hitz egitea boterearen aurkako ekintza zen. Umoreak aukera ematen du tonu informal eta ez konprometitu batean hitz egiteko, diskurtso hegemonikotik ihes egiteko, arma kritiko gisa, dominazio mekanismoei erantzuna ematekoa.

2001eko zazpi gaietatik hiru izan ziren 8ko txikian ezarriak, hirurak ere sexualitatea ardatz zutenak. Gaiari sexu-jolasik ageri ez zenean ere, harreman- sexualetara jotzen zuten bertsolariek. Sexualitatea esplitzitu agertzen den gaia baina.

37. gaia dugu: «37. gaia: zuek, Unai eta Sustrai, lagunak zarete. Zuri, Unai, amodioa era tradizionallean egitea gustatzen zaizu. Sustrairi, ordea, obikoa ez diren leku eta egoeretan». 8ko txikiko neurriak umorerako bide ematen du¹³ eta bertsolariek amodioa sexuarekin, erotismoarekin eta plazerarekin lotzen du. Zehazten diren praktika-sexual apurrak praktika-erreproduktiboekin loturik daude. Generoaren pisua nabarmena da. Maialen Lujanbio zen oholtza gaineko emakume bakarra, eta gizonezkoa zen beti sexu-grina iradokitzen ziona, eta Maialen zen gaiaz hitz egiteari iskin egiten ziona (40. gaia adibide).

Hamasei urte beranduago, sexuaren eremua zabaldu bada ere, grazia egiten jarraitzen digu sexuak. 41. gaia kasu. Publikoak «sexu-jolasen» aipamena entzuterako egin zuen barre, eta saioko bertso-aldi txalotuenetako bat izan zen. Sexualitatearen gaiak beti eragingo du grazia. Beno, ez dezagun baieztapenik egin: sexualitatearen gaiak, beti eragingo al du grazia?

5.5. Politika / Euskal Herria

Bertsolaritza Euskal Herrian garatu da, euskara hutsean garatu, salbuespenak salbuespen. Jon Sarasuaren arabera (2012) «hizkuntza minorizatu baten bizi-kinka bere politikaren korapiloan duen herri batean bizi gara». Bertsoa aldarrietarako erabilia izan da historikoki. Bertso-paperak dira adibide behinenak. Denborak baina kontzeptuak aldatu egiten ditu eta hauen formak ere bai. Nola azaldu ziren politika eta Euskal Herria 2001 eta 2017 urteetan?

Gai guztietan bezala, komeni da testuingururen erreferentzia batzuk azpimarratzea. Euskal Herri eta Politika kontzeptuak batuz Euskal Herriko Politika ateratzen dela pentsa genezake. Hala ere, apropos bereizi ditugu hitzok, 2001ean Politika baitzen kategoria nagusia, berau Euskal Herriaren markoan. 2017an aldiz Euskal Herria politizatu-tako herri/gune/identitate bat bezala azaltzen da, eta Politika da bere aldagaietako bat.

¹³ 2. taulan ikusi dugun bezala, kategoria bakoitza proportzio desberdinetan ateratzen da ariketa bakoitzean. 8ko txikia, neurririk laburrena, eta beraz, azkarrena izaki, doinu biziak erabiltzen da eta umoreko gaiekin, arinekin, lotzen da.

Politikaren definizioa anitza da, erakundeetan kokatzen da letra larritz idatzitako Politika; mugimendu, aldaketa eta bestelako estrategian politika txikiagoa. Euskal Herriko Politika Euskal Herriko Gatazkarekin eskutik helduta aurkezten da, xx. mendearen erdibidean abiatutako gatazka da hau, Euskal Herriaren Nazio Askapenerako Mugimendu izan dena. *Euskadi ta Askatasuna* erakundearen eta Espainiako zein Frantziako Estatuaren arteko gatazka izan zen batik bat, euskal komunitateari derrigor eragin ziona.

Euskal Herria mendez aldatzear zegoela, GAL indar parapolizialen zein ETA-ren erailketak ugariak ziren. 1998ko irailaren 12an Lizarran hitzarmen bat sinatu zuten hainbat alderdik: EAJ, EA, Euskal Herritarrok, Zutik, Abertzaleen Batasuna, Ezker Batua, EAE/ANV taldean. Gero Donibane-Garazi berretsi eta Lizarra-Garaziko hitzarmena izan eman zioten. ETAk su-etena deklaratu zuen baina hitzartutako betetzen ez zela-eta, 2000ko urtarrilean berriz ekin zien atentatuei. 2000. urtean Espainian Partidu Popularrak gehiengo absolutua lortu zuen eta José María Aznarrek hartu zuen ordura arteko Felipe González-en erreleboa. EAE-ko lehendakari zen Juan Jose Ibarretxek hauteskundeak aurreratu zituen 2001eko maiatzera, eta ondorengoak izan ziren emaitzak: EAJ/EA-k 75 eserlekutik 33 eskuratu zituen; PP-Unidad Alavesak 19; PSE-EE-k 13 eta Euskal Herritarrok-ek 7 eta EB-k 3.

1998ko azaroan ETAk zauritu eta eraildako pertsonen senitarte-koek osatzen zuten «Terrorismoaren Biktimen Kolektiboa» sortu zen. Talde honen sorrera, borroka armatuaren legitimazio sozialaren apaltzarekin batera ulertu behar da. 2001eko Txapelketa Nagusia hasi aurreko egunetan, «Ibarretxe Plana», Euskadiko Erkidegoaren Estatutu Politikoa deitu aurkeztu izana ere garrantzitsua iruditzen zaigu. Mugimenduak ari ziren gertatzen esparru sozial zein publikoan. Tentsio handiko garai politikoa zen beraz 2001. urtea bueltakoa.

2003ko otsailaren 20an, ETA-ri laguntzea egotzita «Euskaldunon Egunkaria» itxi zuten. Nahiz eta denbora gutxira «Berria» egunkariak ordezkatu gertaera sonatua izan zen euskal komunitatearen artean. Urte berean Batasuna, Euskal Herritarrok-en alderdi berreraikia legez kanpo utzi zuten. Madrileko maiatzaren 11ko atentatuaren ostean, José Luis Rodríguez Zapatero (PSOE) izendatu zuten presidente. Sozialistak buru ziren Gobernuak errefusatu egin zuen «Ibarretxeren Plana».

2006an ETak su-eten iraunkorra deklaratu zuen, eta PSOE, ezker abertzalea eta EAJ-ren negoziazioak Loiolako Akordioetan amaitu zuten. Desadostasunak medio, 2006an Barajasko aireportuan izandako atentatu batekin eman zion su-etenari bukaera.

2009ko hauteskundeetan PSE-EE eta PP-k koalizioa osatu eta ezker abertzalearen legezkatze falta zela medio, Patxi Lopez jarri zuten lehendakari.

2017ra bitarte, Euskal Gatazka asko antzaldatu zen. 2011ko urriaren 20an behin betiko utzi zuen ETak borroka armatua, eta elkarriketa prozesu bati ekin zitzaion. Gorabehera askoko epealdia izan da ordutik. 2016ko abenduaren 16an «bakearen artisaun» delakoek Nazioarteko Egiaztatze Batzordearekin 2011an hasitako armagabetzearen bitartekaritza lanei ekin zien. 2017ko apirilaren 7an izan zen armagabetzearen erabateko gauzatzea, eta urte amaieran, abenduaren 9an, Parisen «Orain presoak» lelopean manifestazioa egin zen. Hurrengo astean izan zen Bertsolari Txapelketa Nagusiaren finala, eta buruz buruko gaietako bat izan zen.

Herri bat bada

2001eko Txapelketako politikaren diskurtsoa aztertu zuen Andoni Otamendik. Finala markotzat hartuta, kartzelako gaien jorratutako diskurtsoak erabili zituen. Gaiak honela zion: «47. *gaiia: Aturritik Ebrora herri bat badela belodromoak izan liteke lekuko. Urte asko daramatzazu zuk nahi baino tristura gehiago ikusiz. Zure ondorengoentzat beste zer-bait nahi zenuke*». Gaitik bertatik punta asko atera daitezke, hala ere bertsoetan zentratu zen Otamendi. Zertzelada interesgarriak ditu azterketak, baina batzuk azpimarratu nahi nituzke.

47. gaiak aipatzen ez bazuen ere, bertsolari guziek herriaren existentzia baieztatu zutela zioen Otamendik. Herria, Belodromoak sinbolizatzen zuen gaien bertan eta bertsolari askok egun hartako batasunari ohore egin zioten. Zein da baina herri hori? Ba al dago oraindik?

2017an jarri zuten lehenbiziko gaiak honakoa zen: «51. *gaiia: euskara-elkarte bateko borondatezko bi kide dira Igor eta Aitor. Igorrek uste du taldearen jarduna profesionalizatzen hasi beharra dagoela. Aitor ez dago ados*». Sarasuak aipatu bezala, hizkuntza minorizatua korapilo po-

litikoz josita dago, eta euskara aipatzean herri batekiko lotura zuzenean egiten du bertsolariak, bere komunitateak ere egiten duelako finean. «*Gure herria beti izan da / ekin gogor, gogor ekin*». Gure herria. Otamen-dik 2001ean planteatzen duen galdera bera egin dezakegu: zein «herri»? Zein «gu»?

54. gaian ere aipatzen da herria. «*54. gaia: bakearen artisauak dira Aitor eta Maialen. Lehengo larunbatean lanean aritu ziren Parisen. As-tebete pasatu da, eta etorkizunari begira jarri dira*». Gai honek badu 2001eko gai nagusiarekin antzekotasunik. Bietan aipatzen baita leku-kotasuna, bietan aipatzen baita ekintza eta iragan-etorkizun perspek-tiba. Bertsolariak honela botatzen du: «*herriak zerbait behar zuela / lehengo astean argi zen*». Herria. 21. gaian ere, «euskal enpresarioen» bertso batek ere herri oso bati lana ekartzen ziotela zioen.

Gure artean «nazioa» eta «herria» sinonimotzat erabiltzen dira (C. Ulises, Moulines, 2008: 76). Nazioak baina autokontzientzia politi-koa duten herri gisa definitzen baditugu, Parisen lanean aritutakoak na-zioaz ari direla esan genezake eta aldiz, euskal enpresarioak herriaz, lurralde batek elkartzen dituen populazioaz alegia.

2001. urtean, Euskal Gatazka bestelako dimentsioetan ari zen mu-gitzen. Bazirudien, auzia, Euskal Herriaren eta Espainiaren arteko au-zia zela. Frantziak beste paper bat zuen.. Horren erakusle da 44. gaia. «*44. gaia: zuek nortasun agiri edo identifikazio kartak zarete. Aitor, ENA edo Euskal Nortasun Agiria zara, eta Maialen, Espainiako norta-sun agiria. Biok zaudete pertsona beraren karteran*». Ez da Frantziako nortasun agiririk edo bestelakorik ageri. Gaude, gaur egun oraino Es-painiaren figura agerikoagoa dela Euskal Gatazkan, baina diskurtsiboki Frantzia ere zaku berean sartzen da. Hau baina, bertsolaritza beste es-parru kultural-politiko batzuetan baino nabarmenago ematen dela uste dugu. Bertsolari Txapelketa Nagusia, aurten lehenengoz zazpi herrial-deetatik pasa bada ere, bertsoa euskara hutsean garatzeak euskaraz hitz egiten den lurraldearen kontzientzia handiagoa izatea dakar.

Hala ere, 2001eko Txapelketa Nagusia konparatiborako erabiltzea-ren beste motiboetako bat inflexio puntu izanarena da. «*48. gaia: Eus-kal Herrian aspalditxotik bizi dugun gatazka honetan seme bana galdu duzue biok. Zuk, Maialen, seme iheslaria galdu zenuen; Andonik seme ertzaina. Hilerritik etxera bidean hizketan hasi zarete*». Gai hau, Li-

zarra-Garaziko giroan ulertu behar da. Gatazka politikoaren legitimitate soziala aldatu egingo da, eta gai honek bateratu egiten ditu «bi aldeak». Bertsolarien diskurtsoak ere hala dio: «*baina ama baten ideologia / maitasuna bakarrik da*» edo «*gure hutsunea berdina bada / bete dezagun batera*». Iruditzen zaigu hemen moralak garrantzia duela, sozialki diskurtso hori sortu behar zela testuinguru politikoa jakinda.

Euskal borondatea

Arestian aipatu bezala, euskarak, hizkuntza minorizatua den heinean, politikarekin ezinbesteko lotura du. Bai 2001ean eta bai 2017an gaietan esplizituki azaltzen da hizkuntzaren auzia. 2001eko 50. gaian bere semeari erdaraz zuzentzen zaion errainak, Kamiltxo hartz euskalduna oparitu diola dio (berriz ere, bertsolaria ez da komunitateak «erruduntzat» duen rolean ezartzen). Bertsolariak gaiari «etorkizuna» aipatuz edo «*euskeraz egitea da / oparirik ederrena*» bezalakoekin erantzuten dio.

Esan genezake, euskarak izugarritzko garrantzia duen komunitate diskurtsiboa dela Bertsolari Txapelketakoa. Euskara hizkuntza bat ez ezik, identitate batekin lotzen da, dimentsio politikoa du. Dimentsio politikoa duelako erabakitzen da diskurtsiboki zeren alde eta zeren kontra egin.

Euskara hizkuntza batetik haratago «zera» bat izaki, ekonomiaren alorrean ikusi dugun merkatuaren kontrako jarrera azaltzen da «*euskara ez dago patrikan / baizik eta bihotzean*» (50. gaia) edo «*hiztunak behar ditu euskerak / ez funtzionarioak*» (52. gaia). Herriak aurrera euskaraz egingo du, eta euskaraz herriarekin bakarrik egingo du aurrera. Horretarako borondatea behar da «*horrek guztiak ez du balio / borondaterik ez bada*» (52. gaia). Euskal identitatean borondateak duen funtsa askok azpimarratu dute. Borondatea konpromisoarekin lotzen da, euskaldunek dirudienez argi dute euskara eta euskalduntasunak ez duela iraungo, beraiek izanarazi edo iraunarazi gabe. Komunitate baten aldeko afera pertsonala da euskal nortasunarena.

6

Ondorioak

Lan honek bertsolaritza izan du azterbide. Diskurtso komunitate bezala aztertu eta bere diskurtsoaren nondik norakoak jakitea zen helburu nagusia. 2001 eta 2017ko Txapelketa Nagusien diskurtso analisi kritiko konparatua egin da finaletako gaietatik abiatuta. Bertsolaritzaren komunitatea, praktikan bilakatzen da komunitate, eta praktika horietan esanguratsuenetako bat da Txapelketarena. Praktikan egiten da diskurtsoa, eta diskurtsoaren bidez egikaritzen dira komunitatearen iruditegi, balio, bateragune eta abarrak. Diskurtso praktika komunen bidez sortzen da aldi berean, komunitatea (harreman-sarea) eta diskurtsoa. Beraz, final nagusiak bertsolaritzaren nolabaiteko ispilu dira, eta bi urtemugen konparaketak, egon daitezkeen aldaketak, joerak, identifikatzeko balio izan digu.

Analisia egin ahala bost izan dira zedarritu ditugun kategoriak: dilema moralak, ekonomia, familia, harremanak eta politika/Euskal Herria. Kategoria bakoitzean bi urte mugen desberdintasunak azpimarratzeaz gain (H_2) bateraguneak bilatu ditugu, bai kategorien barnean, bai kategorien artean (H_3).

Dilema moralen kasuan «bazterreko» pertsonaien diskurtsoak komunitatearen atxikipena lortzen du, eta bi urtemugetan bertsolariak bazterrekoen ahotsa izateko nolabaiteko joera ikusten da. Gure ustez, euskara hutsean egiten den fenomenoak izateak badauka honekin zeri-kusirik (euskara normalizazio egoeran ez dagoela uste baitugu). Horretarako baina, komunitateak nor/nortzuk dituen bazterrekoetat jakin

behar du. Ertzekoegiak ezin dira izan. Diskurtsoek hitz egiteko muga baina aukera ematen digute. Mugen barruan beti. Aipatzekoa gorputzaren presentzia. Gorputz berriak azaltzeaz gain, bi Txapelketen arteko ezberdintasuna da, gaiak gorputzetan kokatzen direla, gorputzetik kantatu behar dute bertsolariek 2017an, 2001ean ez bezala.

Ekonomiaren gaia dilema moral gisa azaldu da bi urteetan. Diruaren logikaren aldeko diskurtsoa kritikatu egiten da bi garaitan, eta dirua duen pertsonaiak, justifikatu egin behar du bere burua. Lanez, merezimenduz lortutako dirua bakarrik da onargarria. Bertsolariek moralaren funtzio normatiboa izanda, komunitatearen balioak islatzen dituzte. Balizko egoeretan, komunitateko kideek egiten dutena edo egin beharko luketena.

Ekonomiari dagokionez, 2001ean ekonomia etxe barruko fenomeno zen. 2017an berriz, dimentsio zabalagoak hartzen ditu eta merkatuaren pisua agerikoa da. Gure ustez, testuinguruaren, eta batez ere krisi ekonomikoaren, eragina nabaria da. Hala ere, ez du esan nahi ekonomia globalak etxekoa ordeztu duenik, ekonomiaren gaia bikoiztu egin dela baizik.

Dilema moraletan diruaren logika kritikatu egiten da eta ekonomiaren diskurtsoan «besteak» dira ekonomiaren boterea dutenak. Bertsolaritzaren praktika diskurtsiboen komunitatea menpeko posizioan dago, edo hala irudikatzen da, ekonomiaren alorrean. «Bestea», hau da, gu ez garena, da «gaiztoa» edo guk egiten duguna egin arren, egin behar ez genukeena adierazten du «besteak». Balio guztiek beraien kontrabalioak dituzte eta komunitatearen diskurtsoa kontrabalioetatik ere erakitzen da. Kontrabalioak gehiago azaltzen diren azken Txapelketan, 2001ean baino.

Hirugarren kategoria familiarena izan da. Familia eredu nuklearrak 2001ean pisu handiagoa zuen 2017an baino. Eta gaietan azaldu da hori. Familia eredu desberdinak atera dira, xede-taldeak ere familiaren iruditegia aldatu duelako. Hala ere familia gurasotasunarekin dago lotuta batik bat. Gai hauetan jartzen diren rol/ pertsonaiak euren haurrarekiko harremanean definitzen dira. Bi finalak konparatuz gurasotasunaren diskurtsoa askorik ez dela aldatu ikusi dugu, balore positiboekin lotzen da gurasotasuna eta sentitze *irrazional* bezala definitzen dela. Kategoria honetan, gaien bilakaera agerikoa da, familia

molde desberdinagoak daude, aldiz, garatzen den diskurtsoaren bila-kaera ez.

Gizaki soziala, elkarrekintzez eta harremanez osatzen da. Harreman afektiboen kategorian, 2001ean intimitatea afektibitate-sexualean oinarritzen zen. 2017an, aldiz, beste harreman intimo batzuk azaltzen dira, sexu-jolasa inplizituago da. Alabaina, sexu- jolasak konnotazio positiboa du, umorerako praktikarako gaia da eta umorea eragiten du komunitatean.

Generoa zehar-lerro gisa aztertu badugu ere, genero-indarkeriari multzo honetan egin diogu leku. Bai 2001ean eta bai 2017an azaltzen da gaia eta bietan genero indarkeriaren biktima emakumea da. 2001ean lehen pertsonan jartzen da gaia, 2017an testiguak bezala. Desberdintasun hau gaiak hartu duen kontzientziagatik dela uste dugu. Bertsolaritzaren komunitatean gai delikatuak izanik eta kasuen hedapena ikusita, genero-indarkeria jasan dutenen gorputza, bizipenak, izatea ezinezkoa dela onartuta balego bezala.

Hamaika adibide daude bertsolaritzaren komunitatea generoa lan-keta egiten ari dela esateko. Final Nagusiko gaiak eta hauen garapena aztertuta baina, bietan emakumea ahularen rolean azaltzen da, agentziarik gabeko rolean. Emakumea arazoarekin lotzen da oraino eta genero-indarkeria auzi pertsonala bailitzan tratatzen dela iruditzen zaigu.

Bosgarren eta azken kategoria politika/Euskal Herriarena izan da. Gure ustez, 2001ean Euskal Herriaz hitz egiteko modua zen politika, eta alderantziz. 2017an baina, Euskal Herriaz hitz egiten da eta Euskal Herriaren barneko gaietako bat da politika. 2001ean bertsoa eta kultura bera, politika egiteko modutzat hartuak zirela uste dugu; aldiz 2017an kulturak bere leku propioa balu bezala jokutzen da. Hala ere, egoera politikoaren eraginak garbi ikusten dira bi urteetan, eta bi urteak trantsizio urte direla ere esan genezake. Beraz, perspektiba eta azterketa sakonago batekin esan beharko genuke halakorik.

Bertsolaritzaren baitan biltzen den komunitateak ez du bere burua «multzo» edo «talde soiltzat» hartzen, «herria» dela adierazten du. Herri kontzeptua bi finaletan ageri da. 2001ean termino politika gisa ageri badaiteke ere —eta nazioarekin berdinduta—, 2017an dimentsio sozio-kulturalarekin lotuago dago. Alabaina, bertsolaritzaren kasuan kultura eta politika bereizten zaila dela iruditzen zaigu.

Euskal Herriaren eta politikaren oinarri hizkuntzak, euskarak, izan behar duela esaten da bi finaletan. Ez da lurraldea, identitatea, Estatua. Horiek ere barnebildu ditzake euskarak, baina hizkuntzak du erabateko fokua, ez beste elementuek. Euskara hauspotu dadin, gehiago azpimarratzen da borondatearen indarra, lege, instituzio eta abarrena baino. Eta joera hau, bazterreko ahots izatearekin, txikitasunaren aldarriarekin, zein diruaren kontrakotasunarekin harilkatzen da.

Lan honen muina analisia izan da. Bertsolaritzaren fenomenoak aldaketa nabariak dituenaren ustea, lurrera ekarri eta kokatzen zein aztertzen saiatu gara. Praktika eta komunitate bat aldatu dela esatea hitz potoloa baita, eta jakin badakigu, aldaketak ez direla homogeneoak denbora eta espazioari dagokionez. Hala ere, ondorioztatu genezake, bertsolaritzaren komunitatea biltzen duena ez dela praktika soila, diskurtoak, diskurtso jakin batzuk zehazki, balio jakin batzuk, batzen dutela komunitatea. Diskurtoa bera da bitarteko eta helburu komunitate honetan (H_1).

Gaitegian bi urteen artean aurkitu dugun desberdintasun handiena terminologian egon da, bai egoerei erreferentzia egiterako garaian, bai bertsolariek garatutako diskurtoetan. Edukian baina, balio antzerakoak agertzen dira bi finaletan. Gaiek sortzen duten iruditegia bertsolarien diskurto joerarekin bat dator (H_4).

Gaiak jartzeko, komunitatearen kodea ezagutu behar da. Gai-jartzailleak ere horren parte dira eta jakin badakite, gaiek beti daukatela tonu bat, esatez denaz gaindi, iradokitzen dena eta esaten ez dena ere asko dela. Kodeak ezagutzeak ez du esan nahi eurek dominatzen zaituztenik, alderantziz, hauen ezagutzak eta erabilerak berak sortzen du boterea, onarpenetik, inolako jazarpenik gabe. Bertsolariek modu horretan lortzen dute diskurtsorako ahala (H_5). Horregatik diogu, konpartitzen dena ez dela imaginario zehatz eta ondo mugatua, gehiago du komun batetik. Sentitu baina, ezin dugu sentitu modu abstraktuan, eta gaien bidez gauzaten dugu prozesu hau. Bertsolaritzak sortzen duen komunitatearen borondate esentziala, gizartearen arrazional-erreflexiboarekin kontrajartzen da.

Gaien intentzioen norabidea, gure ustez, ez da askorik aldatu urteen joanean; *berdinzalea* da bertsolaritzaren praktika komunitatea, ongia eta gaizkia estereotipo berdintsuekin lotzen da, helburu eta balioak ere bai... Bertsolariaren zailtasuna, publikoak entzun «nahi» duena

kantatzea eta era berean publikoa «heztearen» ariketa egitea da. Eta hezkuntza horretarako erabakigarria da lau urtetik behin egiten den Txapelketa Nagusia.

Txapelketa ez baita lehia hutsa. Txapelketan praktika komunitate horren praktika zein den erabakitzen da, zein balioren alde egin, zeintzuk «ez diren» komunitate horren parte, zer den bestearen larruan egotea, atzerritarraren kasuan, genero-indarkeria pairatu duenarengan, haurrak etxetik joan zaizkien gurasoenean. Zer dion isiltzen denak, zer, atea zabaltzean besteak isilarazi dituenak, zer, sekula hitzik egin ez duenak.

Denbora, jakintza eta baliabide falta medio, lan honi zirrikituak gelditu zaizkio. Batetik, bi Txapelketa Nagusiren finalak bakarrik aztertuta ezin da praktika komunitate horren errealitate totala aztertu. Bertsolaritzak aktore-sare baten funtzionamendua du eta aktore desberdinen praktikak aztertu beharko lirateke azterketa osoago baterako. Gainera, Txapelketan zehar egondako gaiak analizatzea ere interesgarria eta beharrezkoa da ondorio trinkoagoetara iristeko, eta finalean bertan ere baztertutako ariketen ekarpenak zertzelada politik eman ditzake.

Bestetik, oso zaila da bertsolaritza bezalako fenomeno heterogeneo eta berezia pragmatikoki analizatzea. Guk kategorizazio bat egin dugu, baina kategoria bakoitzeko gaiek ez zuten posizio berdina; batzuk esanguratsuagoak ziren, kategoriarekin lotuagoak, eta ondorioak ateratzerako garaian horiei egin diegu tira. Diskurtso Analisisian ez dago analisia egiteko teknika zehatzik. Txanponaren aurkia eta ifrentzua teknika eza da. Honek ez du esan nahi «denak balio duenik». Teoriarekin kontrastatuz, eztabaidatuz, loturak eginez... garatu dugu ikerketa, baina, egia da, ikerlarien subjektibotasunak pisu gehiegi hartu duelakoan gaudela. Ikerlari printzipala bertsolaritzaren barne-mundukoa izateak, jakintza, begirada, eta oinarri batzuk ahalbidetu ditu, baina, ikerketa objektuaren kanpo-begirada zaildu dute. Txanponaren alde biak.

Generoaren ikuspegi, lan osoan izaten saiatu bagara ere, zehar-lerro gisa planteatu dugu eta garrantzitsua da alor horri bakarrik begiratzea ere, gaietan, kategorietan, bertsoetan. Maialen Lujanbioren jarduna aztertzea interesgarria da. Bere diskurtsoaren bilakaerak, komunitate honen diskurtsora hurbiltzen lagunduko ligukeela uste dugu eta bertsolaritzaren iragan hurbilaren zein etorkizun berehalakoaren gakoak aurkitu ditzakegula beregan.

Lan honetan erradiografia txiki bat egin dugu (gu ere, «txikian handi» zaleak). Finala objektu isolatu gisa hartu dugula kontuan izanda, zabala da hala ere. Bertsolari bakoitzak zer esan duen ez dugu zehaztu, kantatzen zena inorena edo «denena» balitza bezala, egituran jarri nahi baikenuen fokua. Honek badauka bere ahulgunea ordea. Diskurtsoa ulertu dugun bezala ulertuta, esamolde performatibo eraginkorra izateko, autoritatea, boterea behar baita. Boterea ez da botere mikrofonoa duelako, mikrofonoa du, boterea duelako. Bertsolari bakoitza desberdina da eta bakoitzaren gaitasuna, materialtasuna, ekitea ez dugu ukatzen. Lan honetan baina, soinu berean bildu ditugu ahots denak.

Ondorengo balizko ikerketa batzuetarako ere interesgarria iruditzen zaigu diskurtso hauek aurrera eramaten dituzten pertsonaien azterketa egitea. Zein pertsonaia dira bertsolaritzaren performatibitatearen emaitza? Bertsolariez gain, zein gorputz igotzen dira oholtza gainera? Zer, nola, zeini, entzuteko prest gaude, nola kantatu komunitatearen mugen barruan, baina mugak zabalduz aldi berean? Izan ere, analisisan ikusi dugun bezala, 24. gaia kasu, batzuetan diskurtsoa eta pertsonaia aldenitu egiten dira, pertsonaia batzuk garatzeak diskurtsoaren ulermena kolokan jartzen duelako. Diskurtsoaren azterketa eta pertsonaia osagarriak direlakoan gaude.

Diskurtsoa aztertzeak badauka arrisku bat: diskurtsoa bera ikuspegi total bezala hartzea. Fenomeno linguistiko guztiak sozialak dira, baina fenomeno sozial guztiak ez dira linguistikoak. Sintomez hitz egin dugu, ez ispiluez. Gure ustez, diskurtsoak ez dira errealitatean deskripzio hutsak, baina errealitatea bera ere ez da produkzio diskurtsiboa bakarrik. Bertsolaritzaren kasuan, badira bertatik kanpo geratzen diren dimentsio material zein immaterialak, esperientzia-harremanetan sortzen diren botere eta identitateak kasu. Egoera komunikatiboari jarri behar zaio arreta egoera linguistikoari bainoago. Praktika bera diskurtsora mugatzen da bertsolaritzan ordea, eta beraz, ekintzarako gaitasuna edo errealitatea antzaldatzekoarena duela esatekotan, kakotxak erabili behar.

Errealitateak badu joera, existitzen den bakarra, bera dela sinestartzeko. Diskurtsoek, dena/denetik esango baligukete, aspaldi geundeke mutu. Bertsolaritzak, praktikan egin dut bere mintza, komunitatean bizitza, eta isilean hitza.

7

Bibliografia

- ALBERDI, Uxue (2014). «Gorputzak, gorpuzkerak eta gorputzaldiak. Bertsolaritzan» in Alvarez Uria, Amaia; Lasarte Leonet, Gema (arg.): *Gorputza eta Generoa Euskal kulturaren eta literaturaren*. Bilbo: UEU, 245-263.
- ÁLVARO, Daniel (2010). Los conceptos de comunidad. *Papeles del CEIC*, (1).
- ANDERSON, Benedict (1983). *Imagined communities: Reflections on the origin and Spread of Nationalism*, Verso, London, 1983.
- APODAKA, Eduardo (2000). Euskal nortasuna eta norgintza modernoa (ii). Euskal norgintza gaur: hizkuntza eta herria. *Inguruak*, 28, 125-152.
- APODAKA, Eduardo (2015). *Identitateak eta Anomalia*. Iruñea: Pamiela.
- ARAMENDI, Martin (2016): «Bat-bateko bertsoak epaitzeko irizpideen bila-kaera eta bertsozintzaren zenbait aje», HABEren C2ko Gaikuntza Ikastaroa, proiektua. Sarean eskuragarri: http://bdb.bertsozale.eus/uploads/liburutegia/xdz5_ld_000854.pdf (Azken kontsulta, 2018-03-12).
- AUSTIN, John (1982). *Cómo hacer cosas con palabras*. Barcelona: Paidós.
- AZURMENDI, Joxe (1980) «Bertsolaritzaren estudiorako». *Jakin*. Apirila-Iraila n.º 14-15, 139-164.
- BAUDRILLARD, Jean (1974) *La sociedad de consumo. Sus mitos, sus estructuras*, Ed. Plaza y Janés, Barcelona.
- BAUMAN, Zygmunt & DONSKIS, Leonidas (2016). *Ceguera Moral: la pérdida de sensibilidad en la modernidad líquida*. Barcelona.
- BECK, Ulrich & BECK-GERNSHEIM, Elisabeth (2001). *El normal caos del amor: las nuevas formas de la relación amorosa*. Barcelona: Paidós.

- BERGER, Peter L & LUCKMANN, Thomas (1980). *Die gesellschaftliche Konstruktion der Wirklichkeit. Eine Theorie der Wissenssoziologia*. Frankfurt/M.:Fischer. [Orig.: The social construction of knowledge. New York: Doubleday, 1966].
- BERTSOZALE ELKARTEA (2002). *Gai-jartzailearen eskuliburua*. Sarean eskuragarri: <http://bdb.bertsozale.eus/es/web/liburutegia/view/3392-gai-jartzailearen-eskuliburua>. (Azken kontsulta, 2018-02-22.)
- BERTSOZALE ELKARTEA (2005). *Bat-bateko bertsoak epaitzeko irizpideak. 2005eko Txapelketa Nagusia*. Sarean eskuragarri: <http://www.bertsozale.com/liburua/epailetza2005/sarrera/sarrera1.htm>. (Azken kontsulta, 2018-02-22.)
- BILLIG, Michael (1987). *Arguing and thinking: A Rhetorical Approach to Social Psychology*. Cambridge, Cambridge University Press.
- BOURDIEU, P. (1972). *Esquisse d'une théorie de la pratique*. Librairie Droz, 157- 243.
- BROWN, John Seely, & DUGUID, Paul. (1991). Organizational learning and Communities of Practice: Toward a Unified View of Working, Learning and Innovation. *Organization Science* 2 (1), 40-57.
- CAUSSE, Mercedes C. (2009). El concepto de comunidad desde el punto de vista socio-histórico-cultural y lingüístico. *Ciencia en su PC*, (3).
- CASTORIADIS, Cornelius (1975). *L'Institution imaginaire de la société*, Paris, Seuil.
- CERTEAU, Michel De (1996). *La invención de lo cotidiano I, Artes de hacer*, Universidad Iberoamericana, México.
- COX, Andrew (2005). What are communities of practice? A comparative review of four seminal works. *Journal of Information Science*, 31 (6), 527-540.
- DE LUNA, Iñaki M. (2016). Diskurtso multzo koherentea XXI. mendeko giltzarri (bizikidetzarena, identitatearena, berdintasunarena, aniztasunarena, erantzukizunarena, justiziarena eta errespetuarena). *Bat: Soziolinguistika aldizkaria*, (98), 39-56.
- DURANTI, Alessandro. (2000) *Antropologia del linguaggio*. Roma: Melteni, 259.
- EIZAGIRRE, Estitxu (2017). «Ez dugu gezurrezko testigantzen beharrik, eskerrik asko», *Argia*, 2017-11-28. Sarean eskuragarri: <http://www>.

- argia.eus/blogak/estitxu-eizagirre/2017/11/28/ez-dugu-gezurrezko-
testigantzen-beharrik-eskerrik-asko/. (Azken kontsulta, 2017-04-14.)
- EPELDE, Edurne; ARANGUREN, Miren; & RETOLAZA, Iratxe (2014). *Gure genealogia feministak. Euskal Herriko mugimendu feministaren kronika bat*. Iruña: Emagin/EHBF.
- ETXEBARRIA, Itziar, CONEJERO, Susana, & Pascual, Aitzibel (2011). Harrotasuna, aurrera egiten laguntzen digun adiskidea (bere berezitasunekin...) in K. Korta & J. M. Larrazabal (arg.) *Gogoz, hitzez eta egitez. Pello Huiziri eskainitako lanak*. Donostia: UPV/EHU.
- FAIRCLUGH, Norman (2003). *Analysing Discourse*. Londres: Routledge. 12-134.
- FIRESTONE, Shulamith (1976). *La dialéctica del sexo*, Kairós, Barcelona, 150- 170.
- FOUCAULT, Michel (1976). *Historia de la sexualidad, tomo I*. Madrid: siglo veintiuno de España editores, s.a.
- FOUCAULT, Michel (1978). *La arqueología del saber*. Madrid: Siglo XXI. [Orig.: *L'archéologie du savoir*. Paris: Gallimard, 1969].
- FUENTES, Maria Jose G., & PUENTE, Sonia N. (2013). Medios, ética y violencia de género: más allá de la victimización. *Asparkia. Investigació feminista*, (24), 145-160.
- GARCÍA, Antonio Agustin, & APARICIO, Elena (2006). Violencia de género: dinámicas identitarias y de reconocimiento. In *El doble filo de la navaja: violencia y representación* (89-106). Trotta.
- GARZIA, Joxerra (1995). «Jartzailea gaitzat harturik», *Bertsolari* 18, 46-63. Sarean eskuragarri: <https://issuu.com/egunea/docs/b18>. (Azken kontsulta, 2018-04-3.)
- GARZIA, Joxerra & Urkiola, I. Z. (1999). *Gaur egungo bertsolarien baliabide poetiko-erretorikoak: (marko teorikoa eta aplikazio didaktikoa)*. Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua, 2000, doktore-tesia.
- GARZIA, Joxerra, SARASUA, Jon eta EGAÑA, Andoni (2001). *Bat-bateko bertsolaritza. Gakoak eta azterbideak*. Donostia: Bertsozale Elkarte.
- GARZIA, Joxerra (2012). *Bertsolaritza: euskarazko bat-bateko bertsogintzaren gaur egungo egoera, tradizioa eta etorkizuna*. Etxepare Euskal Institutua= Instituto Vasco Etxepare.

- GIDDENS, Anthony (2000). *La transformación de la intimidad. Sexualidad, amor y erotismo en las sociedades modernas*, Cátedra, Madrid.
- GUASCH, Oscar (1993). Para una sociología de la sexualidad. *Reis*, 105-121.
- HERNÁNDEZ, Jone. M. (2006). Emakume Bertsolariak: ahozkatu gabeko identitatea/» Bertsolari» women: a voice without a name. *Kobie. Antropología cultural*, (12), 61-70.
- HERNÁNDEZ, Jone M. (2010). «Bertsoa eta generoa», *Bertsolari* 78, 8-17.
- HUGHES, Jason, JEWSON, Nick, & UNWIN, Lorna (2007). *Communities of practice. Critical perspectives*. New York: Routledge.
- LACLAU, Ernesto & MOUFFE, Chantal (1987). *Hegemony and Socialist Strategy*, London, Verso.
- LARRAÑAGA, Carmen (1994). «Bertsolarismo: habitat de masculinidad», *Bitarte* 4, 29-51.
- LARRAÑAGA, Carmen (1997). «Del bertsolarismo silenciado», *Jentilbaratz* 6, 57- 73.
- LAVE, Jane, & WENGER, Etienne (1991). *Situated learning: legitimate peripheral participation*. Cambridge: Cambridge University Press.
- JUARISTI, Patxi (2016). Hizkuntza-komunitateak harremanetan Euskal herrian: balio etikoetan oinarritutako diskurtsoaren beharra. *Euskera: Euskaltzaindiaren lan eta agiriak= Trabajos y actas de la Real Academia de la Lengua Vasca= Travaux et actes de l'Academie de la Langue basque*, 61(2), 375-406.
- KELLER, Reiner (2010). El análisis del discurso basado en la sociología del conocimiento (ADSC). Un programa de investigación para el análisis de relaciones sociales y políticas de conocimiento. In *Forum: Qualitative Social Research* (Vol. 11, No. 3).
- MENDONCA, Daniel (2008). Sobre el concepto de dilema moral. *Discusiones*, (8), 117-127.
- MILLET, Kate (1986). *Teoría de la política sexual. Política sexual*. Valencia: Cátedra, 67-99.
- MITXELENA, Koldo (1988). *Historia de la literatura vasca*. Erein, Donostia. 1-30.
- MONTUSCHI, Luisa (2002). *Ética y razonamiento moral. Dilemas morales y comportamiento ético en las organizaciones*. Sarean eskuragarri: <http://>

- www.cema.edu.or/publicaciones/download/documentos/219.pdf. (Azken kontsulta: 2018-03-16.)
- MONSALVE, Alfonso (1992). *Teoría de la argumentación*, Medellín, Universidad de Antioquia. 92.
- MOULINES, Caslos Ulises (2008). *Manifestu nazionalista, are separatista ere esango nioke, estutuz gero*. Txalaparta, 76.
- MUJICA, Amagoia (2017). «Bec jendez, bertsoz, puntaz betetzeko pronto», *Gaur8*, 2017-12-16, https://www.naiz.eus/eu/hemeroteca/gaur8/editions/gaur8_2017-12-16-06-00.pdf. (Azken kontsulta, 2018-03-12.)
- NOELLE-NEUMANN, Elisabeth (1974). The spiral of silence a theory of public opinion. *Journal of communication*, 24(2), 43-51.
- OTAMENDI, Andoni (2011). Bertsolaritza. Politikaren diskurtsoa 2001eko Tapelketa Nagusian. In *Joxemartin Apalategi Begiristain: Oroimenez= En recuerdo de= A la mémoire de* (265-302). Sociedad de Estudios Vascos, Eusko Ikaskuntza.
- PERELMAN, Chaim (1997). *El imperio retórico. Retórica y argumentación*, Santafé de Bogotá: editorial Norma.
- PICHARDO, Jose Ignacio (2009), *Entender la diversidad familiar. Relaciones homosexuales y nuevos modelos de familia*, Ediciones Bellaterra, Barcelona.
- RUEDA, José Luis M. (2008). Los dilemas morales: una estrategia didáctica para la formación del sujeto moral en el ámbito universitario. *Actualidades Pedagógicas*, (52), 13-24.
- SANTANDER, Pedro (2011). Por qué y cómo hacer Análisis de Discurso. *Cinta de moebio*, (41), 207-224. Sarean eskuragarri: <https://dx.doi.org/10.4067/S0717-554X2011000200006>. (Azken kontsulta, 2018-03-16.)
- SARASUA, Jon (2012). Kultur bizitzaren azterketa kualitatiboaren emaitzak, ondorioak eta proposamenak. *Bat: Soziolinguistika aldizkaria*, (83), 11-28.
- SUÁREZ, Iraís H. (2005). Conocimiento y discurso desde la perspectiva del género. *Comprensión de textos escritos*, Eudeba, Buenos Aires, 2005.
- ULLOA, Alejandro S. & CARVAJAL, Giovanna B. (2008). Teoría del texto y tipología discursiva. *Signo y Pensamiento*, 27(53).
- VAN DIJK, Teun A. (1980): *Estructuras y funciones del discurso*, México, Siglo XXI. 110- 115.

- VAN DIJK Teun A. (2000). El estudio del discurso. In Teun A. van Dijk (konp.) *El discurso como estructura y proceso*. Bartzelona: Gedisa. 21-65.
- VAN DIJK, Teun A. (2005). Ideología y análisis del discurso. Utopía y Praxis Latinoamericana, 10(29), 9-36. Sarean eskuragarri: http://www.scielo.org.ve/scielo.php?script=sci_arttext&pid=S1315-52162005000200002&lng=es&tlng=es. (Azken kontsulta, 2018-02-05.)
- VAN DIJK, Teun. A. (2006). De la Gramática del Texto al Análisis Crítico del Discurso. Una breve autobiografía académica. *Universidad Pompeu Fabra*.
- VENEGAS, Mar (2011). Un modelo sociológico para investigar las relaciones afectivosexuales. *Revista mexicana de sociología*, 73(4), 559-589. Sarean eskuragarri: http://www.scielo.org.mx/scielo.php?script=sci_arttext&pid=S0188-25032011000400001&lng=es&tlng=es. (Azken kontsulta, 2018-04-4.)
- WENGER, Etienne (1998). *Communities of Practice: learning, meaning and identity*. Cambridge: University Press.
- WENGER, Etienne, MCDERMOTT, Richard, & SNYDER, William. (2002). *Cultivating Communities of Practice*. Harvard: Business School Press.
- WENGER, Etienne & WENGER-TRAYNER, Beverly. (2015). Communities of practice a brief introduction. Sarean eskuragarri: <http://wenger-trayner.com/wp-content/uploads/2015/04/07-Brief-introduction-to-communities-of-practice.pdf>. (Azken kontsulta, 2018-05-08.)
- ZIZEK, Slavoj (2003). *Ideología*. Buenos Aires: FCE.

8

Eranskina: 2001 eta 2017ko gaiak**8.1. Dilema moralak**

2001	72
1. Piercing	72
2. Drogak caritasen	74
3. Itxaropena	75
4. Lehena, onena	77
5. Ezindua	78
6. Kale-garbitzailea	79
7. Abeslari amorantea	81
8. Diruari Su	82
9. Hitzak: eskua (2001), izerdia (2017)	83
2017	85
10. Kirolariak	85
11. Irakasleak	86
12. Eutanasia	88
13. Atetik Sartu	90
14. Clown	90

2001

1. *Piercing*

1. gaia: Zu, Jexus Mari, piercing eta belarritako beteta zatozen gaztea zara, eta Aitor aireportuko segurtasun zaintzailea. Hegazkinera bidean, metalak detektatzen dituen makina txistuka hasi da. Launa bertso, zortziko txikian, Jexus Mari hasita.

Doinua: Nere senarrarekin

1. Gaur egunean errex
ez da biajatzen,
zenbat arazo gero
abioitan sartzen!
Banekin komeria
zein izan behar zen;
nahi badezu zeu hasi
banan-banan kentzen! (bis)

2. Hasi edo ez hasi
da nere zalantza,
baina hainbeste izanda
ez da gero martxa!
Bateko uztaia ta
besteko arantza,
zeuk osorik daukazu
arma baten antza. (bis)

3. Aizu, errespetua
gaur nerekin kasu,
neri adarra jotzen
zabiltza jo ta su!
Osorik arma antza
hartzen badidazu,
motxilak bezelaxe
pasatu nazazu. (bis)

4. Goitik behera txatarraz
hornitzen zera ta
begira jarri ezkerro,
hau da gero marka!

Gabon pinuen antza
ere ez zaizu falta;
denak jausiko al dira
batetik tirata? (bis)

5. Seguridadekoak
damutuan planta,
bekainetik hasi nahi
kolpetik tiraka.
Berak jartzea nahi du,
horixe da marka!
Zuk dadukazuna da
inbiri galanta! (bis)

6. Hainbeste burni jarri
apaintzeko fedez,
persona ote zeran
ezin jakin errez.
Nik jartzeko ez daukat
hainbeste interes,
edozer ematen dit,
baina inbiririk ez. (bis)

7. Nunbait ez dizut sortzen

inungo atsegina,
ez dezu gustokoa
nere imajina.
Kontuz ibili zaitez
ai, nere propina,
plomoa ez beste dena
delako pirtzina. (bis)

8. Holako eztabaidari
zertarako ekin?
Zergatik katiatu
metal kontuekin?
Hainbeste burni zati
dezunez zurekin,
sartuko zera baina
ekipaiarekin. (bis)

2. *Drogak caritasen*

2. gaia: Zu, Jexus Mari, Bilboko langile auzo batean Caritasek drogazaleentzat ireki duen zentroko arduraduna zara. Maialen, auzo horretako auzo- elkarteko ordezkaria. Hiruna bertso, seiko motzean, Jexus Mari hasita.

Doinua: Aizak bi mutil mainontzi

1. Ez destino ta ez patu,
drogarekin zenbat tratu!
Egoera hau suertatu zaigu,
guk nahiz borrokatu.
Nahiz ta zuk txartzat juzgatu,
auzoko ohiturak puskatu;
behar dunari ez zaiozula
laguntza ukatu! (bis)

2. Onik ezin det itxaro;
jeringillatan oparo
jarriak gaude, gure auzoa da
minaren arrago.
Barrio txiro hau dago
gero eta etsiago,
laguntza guk geuk behar degu ta ez
arazo gehiago. (bis)

3. Kontra ari zera bero,
neska ez al zaude ero?
Nahiago nuke bulego zahar
hau inon ez balego!
Nahiz ta ez dezun espero,
gauzak aldatu ezkerro,
zure seme bat izan liteke
hemengo bezero. (bis)

4. Alaba dabil drogatzen,
ta ni kristonak pasatzen,
baina Azkuna alkate jauna
mintzatu da ozen:
«Zentro bat jartzera goazen»,
auzo txiroan hain zuzen,

drogazaleak ta auzotarrak
usteldu daitezzen. (bis)

5. Zuk darraizu afanean
zeure kontraesanean;
usteltzerikan ez degu nahi ta
laguntza planean.
Segituko det lanean,
borondate onenean
eta gehiena neu poztuko naiz
behar ez denean. (bis)

6. Zu poztu egingo zara
ta nik bertatik bertara
emango dizut, lortu ezkerro,
nere besarkada.
Droga ez da arazo, hara:
beha kale beltzetara;
gure auzoaren bizi ezinaren
ondorioa da. (bis)

3. *Itxaropena*

3. gaia: zuek biok itxaropena zarete. Zu, Sustrai, txiroen itxaropena zara, eta Igor aberatsen itxaropena da. Hiruna bertso, sei puntuko moztzean, Sustrai hasita.

Doinua: Aizak bi mutil mainontzi

1. Topera nago aurrena,
ez naizezer'ehurrena,
gauzakaguroaldatzendira
bizitzan barrena.
Esperantza etsipena
ez ote da txiroena?
Ni nautelako bizitzan duten
armarik onena. (bis)

2. Nahiz ta ez naizen krudela,
aberatsekin fidela;
nahi dutdiruak segidezala

lehenago bezela,
dirudunentzat horrela
beti irabazi itzela,
ta esperantza daukat halaxe
gertatuko dela. (bis)

3. Jokatzen badute trebe,
egiten diet mesede,
auzo batzutan nahiz etsipena
den beti errege,
animatzea dut xede,
normala da alafede,
aberats egin nezakeelako
pobreena ere. (bis)

4. Bota duzu mila mezu
ta ni ez naiz horren kexu,
nigatik bada pobre artean
segi dezakezu;
eta sinets nazakezu,
gaur hartzen dut konpromezu
geroago ta gehiagorena
izan zaitezzen zu. (bis)

5. Izan arren atsegina,
ni gozo ta hau gordina,
zentzu berean ez baitijoa
gure ahalegina.
Hori da daukazun mina,
zure nahia ta ezina,
anbizioa ta esperantza
ez dela berdina. (bis)

6. Zu ikusten zaitut gazte,
ene, zenbat buruhauste!
Esperantzaren bila burua
hor dijoa aske.
Aberatsentzat nahibeste,
pobreak zorion eske;
horrela bada biok egia
bihurtu gaitezke. (bis)

4. *Lehena, onena*

4. gaia: Zuretzat, Andoni, mundu honetan garrantzitsuena, onena, lehena izatea da. Unai, ordea, nahiago du ez nabarmentzea. Hiruna bertso, seiko motzean, Andoni hasita.

Doinua: Aizak bi mutil mainontzi

1. Zizpuru eta hasperen
beti glorian ondoren,
geroak gutxibaliokodu,
beti carpe diem;
beti goian, beti lehenen,
ez dakit berdin ez zaren;
bestelaesanhemen gaurkoan
zergatikan zauden? (bis)
2. Hori ez da zure problema,
nik badut neure barrena
eta hor dudan bertsoen maila
nahiko nuke berma.
Ondo doakizu dena,
orain bai, baina hurrena k
azetariak esango dute
noiz zaren azkena. (bis)
3. Anbizioan zimendu,
hortikan sortu bi mendu,
zeuk ere hobe nere jarrera
hartuko bazendu:
nabarmendu, nabarmendu,
gailendu, beti gailendu.
Apaltasuna ez al da ezin
dutenen ukendu? (bis)
4. Zu zaude laudorioz blai
ta ez zara ikusteko gai
gautik goizera nola aldatzen
diren mila epai:
«Bertsolaria ez da Unai,
baina tranposo bada bai...»
Nik neuk ez nuke sasijakintsu
hioen eskutan nahi. (bis)

5. Zure etorri bustia,
 sarri zedari whiskia,
 ez du merezi hemen ezina
 goratzen hastia.
 Badator une tristia:
 arbolatikan jaistia;
 orduan nik neuk tapatuko dut
 neronen uzkia. (bis)

6. Ez zan arrazoi makala!
 Baina tapatu ahala
 ikusiko da beste Andoni bat
 normal ta apala.
 Segi orain arte bezala:
 famatu ta zerbitzala;
 bide ertzean egongo gara
 ni ta nere itzala.(bis)

5. *Ezindua*

5. gaia: Ezindua zara. Zure gurpil-aulkia duzu derrigorrezko ibilgailu. Aulkiari erantsita duzun motxilatik kartera ostu dizute gaur. Hiru bertso, nahi duzun neurri eta doinuan.

Doinua: Haizea dator iparraldetik II

1. Inpotentzia sentitzen det nik
 besterikan ezinean,
 bizi guzia pasa beharra
 arantzez bete minean;
 hanka bikoak tratatu nahia
 berdinean-berdinean,
 zurikeria hutsa baino ez da
 gizartean mingainean.
 Aulki gurpildun gainean nabil
 nahiz gazte izan adinean
 bestela ezin-ta kartera eta
 motxilatxo soinean.
 Bainabizia,bizi alu hau,
 ikus litekeenheinean,
 gurpil gainean goazenontzat
 ez doa kurpil gainean.

2. Atzekaldetik etorriko zan,
gu horretan ahulak gara,
ispilurik ez ta ezin luza
atzerako begirada.
Motxila beltzan patrikatxoan
egingo zun labankada,
nerca zena, kartera, doa
orain bere patrikara.
Inork ez nau ni laguntzen, inork
ez nezake gaur anpara;
saldutanago, etsitanago,
ume galduen gisara.
Dena ezina, dena bide estu,
dena arantza ta traba,
ta okerrena ohitu ein naizela
sensazio honetara.

3. Zer egingo det, gurpilei eman
ta etxeratu beharko;
nere kartera zaborren baten
azalduko da biharko.
Ezinduaren karneta hantxe
ta dirua da faltako,
ta lapur esku-zurin bat noski
dotore eta galako.
Hemen eseri ta negar egin
nezake, baina zertako?
Bihozgabeak nere dirua
hartu dezala aintzako;
gozatu eta aprobetxatu,
hori jotzen det ontzako,
beretzat baino askoz gutxio
balio du neretzako.

6. *Kale-garbitzailea*

6. gaia: Kale-garbitzailea zara. Zure lana amaitu eta atsedean hartzeko bankuan eseri zara. Ordu erdiz egon zara jendeak kalea berriro nola zikintzen duen begira. Hiru bertso, nahi duzun neurri eta doinu-nuan.

Doinua: Leiho ertzetik entzun dezaket

1. Hiru t'erditan jeiki naiz eta
 egina dut lan itzela;
 orain artean pensatu nuen
 egoki ari nintzela,
 baina jendea hor ikusten dut
 ta ez naiz harritzen bela:
 lehenbizi bota papela,
 edo kolilla bestela. (bis)
 Hementxe nago arras etsita,
 barrena goibel-goibela,
 sarri askotan pentsatzen baitut
 alperrik ari naizela. (bis)

2. Nahiz ta garbitzen jarri ditudan
 nere indar ta kemenak,
 zuek horrela ikusi eta
 akabo itxaropenak!
 Beztu egin zait kopeta eta
 nahastu zaizkit barrenak,
 zikintzailearen senak
 baitakartza nere penak. (bis)
 Zuei begira, zuei begira
 etortzen dira problemak,
 hanka bikoak zaretelako
 zaborrikan haundienak. (bis)

3. Zaborra biltzen, kale garbitzen
 pasa horrenbeste urte;
 pasadizoak, pasatakoak
 denak esango nituzke.
 Gizabanako gehientsuenek
 errespetorik ez dute;
 dugula nahiko bertute
 entzun nahi genuke guk'e. (bis)
 Alper-alperrik ari naizela,
 orain nik hori dut uste;
 zuen kalea zuena da-ta zuek
 garbitu zazute. (bis)

7. *Abeslari amorantea*

7. gaia: Abeslaria zara. Amodio kontuetan ez duzu zorte handirik izan bizitzan. Hala ere, zure amodio kantuei esker harreman asko erne dira. Hiru bertso, nahi duzun neurri eta doinuan.

Doinua: Munduan libre bizi izatea

1. Nik nire minak ta haserreak
kantatzen ditut benetan,
zer pasa zaidan amodioa
sentitutako egunetan.
Nere aurrean jende ugari
hor jartzen da buelta-bueltan;
ni hor neure kantuetan
ta beraiek edozertan.
Malko bat jaurti eta hasten dira
bikote harremanetan,
ta ni oholtzatik hor egoten naiz
haiei beha negarretan. (bis)
2. Ez dut gogoko halakoetan
nire aurreko ikusmira,
ni nire penak kontatzen eta
jendearen jira-bira.
Haiek musuka hor hasten dira
nik eginik despedida;
eta kantuen harira,
bikoteak sortu di-da.
Niretzat ez da polita, baina zer
gertatzen den begira:
mina sentitzen den egunetan
kantu onak egiten dira. (bis)
3. Nire kantuak dira askoren
maitasunaren hasera,
baina sekula ez zait gertatzen
niri beraien antzera.
Sarri heltzen naiz entzulegoa
benetan gorrotatzera;
arrakastaren aukera
izan leikela, bai zera!

Trasteak batu ta hauek hor doaz
 goxo larrua jotzera;
 ni furgonetan bakarrik sartu eta
 negarrez etxera. (bis)

8. *Diruari su*

8. gaia: Bizitzan hamaika lan egina zara, eta baita diru mordoxka pilatu ere. Heriotza hurbil sumatu eta zure diru guztiei su ematea erabaki duzu. Suari begira, hiru bertso, nahi duzun neurri eta doinuan.

Doinua: Munduan libre bizi izatea

1. Denetik neukan nire etxean:
 hainbat diru, hainbat bitxi...
 Jende gehienak badaki hori,
 nahiz inoiz ez erakutsi.
 Aurretik neuzkan printzipioei
 nahi nien nik gogor eutsi;
 txistua tinko iruntzi,
 gero eskuak igurtzi.
 Hau dena zertan erre dudan nik
 azaltzen behar zait utzi:
 nire ingurua ta familia
 diruak ez dezan hautsi. (bis)

2. Inoiz pentsatu izan dut nik: hau
 guztiok egin genuke,
 dirua erre, horretarako
 pasata hamaika urte;
 neurri batean neure burua
 igual zurituko nuke.
 Parean dena da sute,
 banuen nahiko entzute
 nireganaino hurreratzeko
 familiko hamaika putre,
 baina nirekin horretarako
 aukera haundirik ez dute. (bis)

3. Seguru nago pikutara joan
 dala askoren amesa,

neba-arrebek esango dute
 «hori zan hori pieza, l
 lehenengo alde eta hilurren
 agertzea da erreza!».
 Bizitza da gazi geza,
 sarri alperrik da presa.
 Nik dana sutan erretzea nuen
 ai, aspaldiko amesa,
 eta dirua euki nahi dunak berak
 irabazi beza. (bis)

9. *Hitzak: eskua (2001), izerdia (2017)*

9. gaia: Eskua

Doinua: Beroiarena

1. Langileek lakar ta
 pianistek fin-fin,
 instrumentua joaz
 bost hatz hoiekin.
 Eskua eman leike
 edo kendu berdin.
 Sinbolizatu nahi det
 nik herriarekin;
 hemen hainbeste min
 eta biziezin,
 hainbat negar gordin,
 behingoz buka dedin,
 heldu eskutik eta
 aurrera egin. (bis)

2. Sarri ikusi dezu
 atzamar erara,
 alde hortatik ere
 a ze bolada!
 Hertsiko bagenuke,
 indarran islada;
 ukabil deitzen zaio,
 nolako pasada!
 Hemen lagun gara,

aitortzen dut, hara;
ta Maialen jada
hor doa bertara;
gehien estimatzen dut
bosteko bada. (bis)

9. gaia: Izerdia

Doinua: Horra sei bertso kale I

1. Izerdia ze izerdi?
Askoren galdera
lehenengo begiratu
besape aldera
ni konturatu gabe
umeldu ote da?
Horko batzuenak bai
dexente gainera!
Baina hemen norbera
ta ze egoera
kezka da sobera
ta izerditzzen gera
baina denonak ez du
balio bera. (bis)

2. Izerdiak lehenago
fama ona zekarren
pixka bat moteldu da
urteetan barren
lehen lana ta izerdia
zen balore aurren
gaur egunera arte
lagunak elkarren
izerdia zer den
zail da esaten zeren
jai eta astelehen
hartuta atsedean
besterenetik asko
bizi da hemen. (bis)

2017

10. *Kirolariak*

10. gaia: Kirolari profesionalak dira Maialen eta Unai, eta publizitatea egiteko eskaintza asko jasotzen dituzte. Maialen edozer iragartzeko prest dago. Unai, ordea, ez.

Doinua: Beste bateko inularretan

1. Hemen dirua baita kontua
nola ez esan akabo!
Futbol zelaian egiten degu
izerdi eta ur-trago.
Real Sociedad SAri ta
txinoei salduta nago
ta honezkero ze inporta zait
pixka bat salduxeago.
2. Real Sociedad SA-a jarri
degu zerura bidian
gauza hoiekin larritu xamar
dago Unai aspaldian
Edozer gauza ein leikela ta
nago beldurrak aidian.
Diru beharrik izango banu
egingo nuke agian.
3. Bederatzia bizkarrean ta
orain oparo zabilta
promesa eta errealitate
dena aparra, dena bitsa
baina hautsi ezkerro belauna edo
zartatu iztarreko mintza,
Unai esnatu, laburra da ta
futbolarion bizitza.
4. Barkatu baina hau izango da
segun nun jarri tamaina
ni familia xume batetik
etorri naiz alajaina.
Gure bizitza oso laburra

degu futbolean baina,
urte betean irabazi det
nornahik bizi_osoan aina.

5. Nahikoa diru badezu behintzat
hortan ez zera labaintzen
nik hala ere segitu nahi dut
banku kontua bikaintzen.
ta hor azaltzen naiz kremekin edo
txanpuaz ilea zaintzen,
futbolarioi ez digute ta
pentsatzearren ordaintzen.

6. Berak zipitzik ez du pentsatzen
gogorra izan da gero.
Nere burmuinak kontu honekin
orain daude bero-bero.
Baina sekula saldu ez naizenik
ere ez zazu espero
sagarodana igual ingo det
Unaik eskatu ezkerro.

11. *Irakasleak*

11. gaia: Irakasleak dira Aitor eta Maialen. Murrizketak direla-eta, greba egin zuten atzo ere. Gaur, lanera bueltatu dira.

Doinua: Esmesaltzailearena

1. Atzo pankarta atzean
denok indarrean.
Lagun bat eskubidean
ta zu ezkerrean,
azken aldi honetan
gaude beharrean
begiratu gaur ere
muturren aurrean
hogeithamar ikasle
gela bakarrean.

2. Ta hogeita hamarrekin
ez dakit zer egin,
Ze harramintarekin
nola ta zerrekin.
Baina greba bihurtu
zaigu ya errekin
kostako zaigu lortzen
nahiz joan elkarrekin
hemen ezer berririk
forma hain zaharrekin.

3. Gaur egungo hezkuntzan
horrenbeste hesi
integraziorako
hamaika gabezi
ta politikariak
gugandik ihesi,
ez logopeda eta
ez behar berezi
horrela ezin dugu
gizarterik hezi.

4. Hezkuntzak ez dauka ez
hamaika bertute
HEZIBerri ta LONCE
hortxe dihardute.
Baina ikasleak datoz
zeozeren truke
Pakistan, Marokotik
pentsa ze itute.
Guk greba egindakoa
nora joan ez dute.

5. Ta gainera bihurtu
gara puntu-mira
dianan jarri eta
harria nork tira
hau ez da baldintza ona
egia hori da
eta etorkizunera
jarrita begira

honen ondorioak
antzemango dira.

6. Guk umeak hezi nahi
eta hezi ezin
nahiz tratatzen ditugun
maiteenak bezin.
Hezkuntza kondizioz
dago nahiko erkin
baina gizarte hontako
panoramarekin.
Nork enpatizatzen du
funtzionarioekin.

12. *Eutanasia*

12. gaia: Medikuntza ikasten ari dira Igor eta Beñat. Jakin berri dute beren irakasle bat medikuntzarako inhabilitatu dutela eutanasia aplikatzea leporatuta. Haren aldeko sinadurak biltzea proposatu dio Beñatek Igorri.

Doinua: Aresoarren bandera

1. Badu mediku nibela
ta kanporatu horrela
eutnasiak neure ere pixka't
nahastu sabela.
Ekari duzu papela
haren laguntza bezela
uste al duzu zerbaiteko
balio duela?

2. Medikuaeren nibela
ez nuen uste nik bela
irakaslea auziperatu
egingo zutela.
Nahiz ta zerorrek bezela
jakin askorik ez dela
gutxienean jakin dezala
berekin gaudela.

Babesa duela gugan
gaur halako tesituran
ni sendatzeko hasi naiz hemen
orain nago dudan
zegoena heriotz mugan
eroan du abiaduran
ta ez dakit ziur nik ze ikasgai
atera behar dudan.

Ikaskide ilustrera
ikasgaiari lustrea
elkartasuna zuretzat al da
gutxi ikustea?
Ez al da etika haustea?
Hori da nere ustea:
ezin bizirik dagoenari
hiltzen ez uztea.

Sufrimentu ta hasperen
hori zilegi ote den
edo hobe den behingoatik
hartuta atseden
baina sinadurek hemen
ez dute hainbeste helmen
nik berarekin hitz egin nahi dut
ezer baino lehen.

Berak ere hala nahi du
zauria ez baita orbaindu
egin dioten kaltea diruz
ezin da ordaindu.
Hasiko gara orain gu
gaixoak zaindu
ta zaindu
mundu gaixo hau sendatzen gehio
kostatuko zaigu.

13. *Atetik sartu*

13. gaia: Atetik sartu zarenean, isildu egin dira denak.

14. *Clown*

14. gaia: Lotsa dela eta, gauza asko utzi dituzu egin gabe bizitzan. Clown ikastaro batean eman duzu izena.

Doinua: Gai horrek badu mamia

1. Umetan zein gaztaroan
zer suma ta zer gerta
lanean seriedadada
ta etxean oreka
lagun arteko liskarrik
balitz elkarrizketa
antiojuek ipinia
serio etiketa.

Clown ikastorora egin
gura nuen nik buelta
aspergarria izaten
aspertu nintzen eta!

2. Nahiz ta hasieran lotsa
neukan hara joateko
irri-terapi horrekin
gero askoz hobeto
beste hainbat seriorekin
jarririk bekoz beko
kasik barrez lehertu gara
orduan bai ederto
sudur gorri bat ipini
behar izan dut tarteko
sudur puntan jartzen zaidan
guztia egiteko.

3. Eta ni nintzelakoan
berez, neurez, goibela
sudurtxo bat ipinita
grazioso itzela

bizitza osoak buelta
 emango du horrela
 ze barru-barruan neukan
 pailazoan papela.
 Abisatu egingo diet
 Igor badatorrela
 etxean eta lanean
 prepara daitezela!

8.2. Ekonomia

2001	91
15. Prostituzioa	91
16. Gaztea lanean	93
2017	95
17. Denda txikiak	95
18. Polizia maleteroan	96
19. Errepide-langileak	98
20. Musikariak	100
21. Euskal enpresa	102
22. Santurtziko portua	103
23. Zahartzaroa	105
24. Ikasketak gerora	106

2001

15. *Prostituzioa*

15. gaia: Polizia-etxera eramán zaituzte, zu, Igor, prostituta, atxiloturik. Han, Unai poliziaburua ikusi duzu, eta ezaguna duzunez, beregana jo duzu. Hiruna bertso, zortziko handian, Igor hasita.

Doinua: Zeru altuan zegoen jaunak

1. Hasera baten atxiloketa
 ez da izan dotorea,
 baina polizi etxera heldu
 ta hau da gero ohorea!

Sarri askotan zu probatua
zara gurean ohea,
ta orain berriz hemen gaudenez
proba dezagun zurea.

2. Hemen ez dago oherik, neska,
eta horixe da dena;
zuk delitu bat egin duzu ta
hori da duzun problema;
zuk norbaitekin nahastu nauzu,
ni seguru nago nena,
badut lehengusu sarjentu soil bat nire
antza handia duena.

3. Parkatu baina aurpegi hori
dut nik oso ezaguna;
bestek igoal bai, ez dut sinisten
nik esan berri duzuna.
Lotu nazazu ta gogorretik
hartu nazazu laguna,
badakit sadomasokismoa
dela gustatzen zaizuna.

4. Egia da bai gustokoa dut
kolpetara jolastea,
baina hortarako erabiltzen dut
hemengo jente gaztea.
Kostatu zaizu nire aurpegia
hori ez dela sinestea!
Aizu, neskato, ez dezu nahiko
arrautzak erakustea?

5. Arren hurrengo proposamenai
ez ciozu egin uko,
neri berdin zait menpeko denak
baldin badira lekuko.
Baina goazen behingoz ziegara
berandu egin orduko,
gaurkoagatik askatasuna
baino ez dizut kobratuko.

6. Mila alditan esplikatua,
baina honekin alperrik;
honi ez zaiola sinistu behar
ez dago esan beharrik.
Benga sarjento, sartu Basaurin
nahiz ez dun egin deus txarrik,
eta atera zazue nire
egun libreetan bakarrik.

16. *Gaztea lanean*

16. gaia: Zu, Sustrai, hamasei urteko gaztea zara. Etxean ikusten dituzun diru arazoez ohartuta, zeu lanean hasteko proposamena egin diozu Maialen, gurasoari. Hiruna bertso, hamarreko txikian, Sustrai hasita.

Doinua: Hamalau heriotzena

1. Etxea bihurtu da
etsipen arrago,
denak sentitzen gara
triste ta arraro.
Guztiak gose eta
jatekoik ezdago,
ni laneanhasteko
gertu-gertunago,
etxean izan nahi dut
beste bat gehiago.

2. Aita elbarria da
ta ni langile fin,
eta zuk Telepizzan
ze kontratu zikin!
Eskertu nahi nizuke
nik bihotzarekin,
baina gazteegi zara,
ez lanari ekin;
ikas'zagun bizitzen
gutxiagorekin.

3. Holako bizitzarik
ez gendunamestu,
egokitu zaigu ta
beharko sinestu.
Etxean denak gaude
larri eta estu,
lanean hasi nahi dut
bihotz eta esku;
tamalez pobreziak
adinikan ez du.

4. Adinik ez du eta
zu harrapatu ote?
Badezu nahiko bihotz
ta nahiko bertute,
baina gaixo, bakarrik
hamasei bat urte;
badakit: zuk ikasi
egin nahi zenduke;
ez zure ametsa saldu
lau peztaren truke.

5. Kontutan hartuko dut
amatxok esana,
ta ez ditut salduko
izen ta izana.
Zoritxarrez beharrak
hortara narama;
egunez eta gauez
egingo dut lana,
harro egon daitezen
aita eta ama.

6. Lehen ere harro gaude
zu zeu zarelako,
zure laneko grina
uztazu biharko.
Nik promes egin nuen
zu izaterako:
nere seme-alabek
sekula santako
ez zutela behin ere
zer janik faltako.

2017

17. *Denda txikiak*

17. gaia: Arropa denda bat dute elkarrekin Ametsek eta Aitorrek. Ametsek jaiegunetan ere denda zabaltzen hasi nahi du. Aitorrek ez du ireki nahi.

Doinua: Menditarra naiz eta gogoan

1. Ulertzen ditut lan-baldintza ta
mila langilen borroka
baina guk goiko marka klaseei
joa diegu erronka.
Eta aurrera ibili dadin
geure poltsikoko errota
Igandetan saldu behar da
igandetako erropa.
2. Baina ezin al da lan-jardun hori
larunbatean amaitu
letorkeenak sei egunetan
aski denbora bai baitu.
Horiek pasata zazpigarrenez
zertan lanean jarraitu.
Eroslearen kapritxoaren
esklabo egingo gaitu.
3. Baina denda handi ta frankiziek
bide horixe dakarte
eta geuk ere merkatu hontan
izateko aski suerte
beren borroka ildo berean
hartu behar dugu parte.
Bestela hola segiko dute
gu erabat ito arte.
4. Aste osoko lanaldi hori
inondik ez da mejora,
orain artean eutsi diogu
horixe bera da froga.
Nik ere nahi det irabazia

kontu korronea gora,
ta astean behin irabaziak
erabiltzeko denbora.

5. Bai baina nik zer esan nahi dudan
Aitor ez zara ohartu
nik ez zaitut nahi esplotazio
kate luze hortan sartu
igandectan irekitzea
dezagun biok hitzartu.
Ta igandectan irekitzeko
langile bat gehio hartu.

6. Beraz jaiean ez zabaltzeak
behar omen gaitu ito
ta langile bat hortan jartzea
zergatik dezu begiko.
Zatozte biak ta igandeko
xoxak zuentzat ta kito.
Pila bat bada poz hartuko det
baina ez naiz etorriko.

18. *Polizia maleteroan*

18. gaia: Sustrai arkeologoa da. Lanean ari den indusketa-gu-
nean topatutako giza hezurak daramatza autoan. Laborategira bidean
doala, Aitor poliziak geratu du.

Doinua: Kantatzera nijoia

1. Mugan berriz kontrola
kauenla, kauenla.
Nik hezurak atzean
nola ba bestela.
Ikusiz nere planta
zuri ta zimela
pentsatu ote duzu
nireak zirela?

2. Aizu polizia naiz
ta errespetoa
maleta izan ohi da

beti atzekoa.
Bat soinekoa eta
bat aldatzekoa.
Baina beti txaketa
ez eskeletoa.

3. Nik eman nahi nituen
mugako jauziak
baina guardizibilen
eskutan jausiak.
Nik garraiatzen ditut
hezur biluziak,
hori badaki zer den
zure nagusiak.

4. Aizu ni ez nahastu
kolpetik lehenean
ta zentratu gaitezen
orain gaudenean.
Hezurdura bat dezu
kotxe barrenean
hitz egiten al zuen
irten zarenean?

5. Indusketak egiten
tematu naiz aurten,
hezurrek ez baitute
hain gutxi irauten
asko esaten dute
asko di-da baten.
Zuei buruz ez dute
deus onik esaten.

6. Neri ez zait ba inporta
ez onik ez txarrrik
atxilotuta zatoz
eta ez alperrik.
Eskuburdinak dauzkat
pare bat bakarrik,
zure lagunak ez du
ipini beharrik.

19. *Errepide-langileak*

19. gaia: Errepideak konpontzen egiten dute lan Unaik eta Igorrek. Sarritan ikusten dute beren burua arriskuan. Gaur ere bide bazterrean ari dira lanean.

Doinua: Zer da gaur Donostian

1. Eguzkitan kiskali
ta ebitan blaitu
lantegi hontan ezin
gintezke lasaitu.
Errepideak txukun
hasi ta amaitu
jendearen bizitzak
hau merezi baitu
ta kotxe ero batek
eramango gaitu.

2. Oraintxe pasa da bat
zer esango nuke
txoferrak juxtu zeuzkan
hemezortzi urte
BMV handi bat
aitaxoren truke,
abiada bizia
hor eraman dute
ileak orraztuta
utzi dizkigute.

3. Herri txiki hauetan
hamaika jenio
euskaldun gazte hauekin
ez naiz oso fio
120 badator
gazte bat dedio
gu bidea konpontzen
serio, serio
honi ez konponduta're
berdin-berdin dio.

4. Gazteak ralieta
beti jo ta hautsi
batek apostua jo
ta besteak eutsi.
Beste bat pasatu da
eginaz igurtzi
belozidade asko
eta garun gutxi
eurak hil daitezela
ta gu lasai utzi.

5. Ez naiz asko fidatzen
ustea doi-doia
hemen bada euria
harria ta loia
gazte jendeak jo du
autoetan goia
nik luze eduki nahi det
holako sasoia
aurretikan atzera
pasa kamioia.

6. Baina beste norantza
ere hor urrean
ta handikoak ere
datoz haserrean.
Beste zerbaitetara
noa beharrean
ez nukelako gura
hementxe aurrean
lore sorta bat izan
bide bazterrean.

20. *Musikariak*

20. gaia: Musikariak dira Sustrai eta Amets. Gaur ere, beste askotan bezala, beren herrian musu-truk jotzeko eskatu diete.

Doinua: Hamalau heriotzeta I

1. Bizitza daramagu
abestiak sortzen
alanbrean gainean
zutitu ta erortzen.
Zerbeza jartzen duna
ta ez dena agortzen.
Baflea jartzen duna
entzun dadin ozen,
hoiek ez dira inoiz
debalde etortzen.

2. Nork deitu zigun ere
naiz ni gogoraten
euskara elkarteko
huraxe bera zen.
Funtzionario joan
zena bilakatzen
nahiz ta berez musika
ohi zaigun gustatzen
gu beti debalde ta
horiek kobratzen.

3. Artista ta langile
ez gara bi bando
nahiz ta mugetan izan
aski kontrabando.
Jo ondoren hamaika
pieza da fandango
zein etorriko zaigu
esatera «ondo»
eskerrik asko ere
ez digute esango.

4. Ez izan hain ezkorra
hain arranopola!
Dena dantzariz bete
baita plaza-zola
ta denak irrifartsu
ta gainera nola,
eskerrak nik pentsatzen
dudan maiz ta hola
horrelako ordainik
inon ez dagola.

5. Bihar iritsiko da
gaur zegona entzuten,
plazan topatu baietz
galde-erantzuten.
Joan okindegira
inoizko arrunten,
ogia eska zazu
al bada sin gluten
eta ea debalde
ematen dizuten.

6. Eta berriz hasiko
balirake teman
musu-truk jo dezagun
plazan zein tabernan.
Nere adostasuna
ohi dute antzeman
baina erantzungo diet
gauza bat eskeman,
nik erabakiko dut
musu zeinek eman.

21. *Euskal enpresa*

21. gaia: Nazioartean kontratu garrantzitsuak lortu izan dituen euskal enpresa bateko komertzialak dira Aitor eta Sustrai. Negozio ekimen bakoitzean milioi asko jarri ohi dituzte jokoan. Sustraik Aitorri esan dio ezin duela erantzukizuna gehiago jasan.

Doinua: Dozena bat bertso berri A

1. Ai, aitzakiak aitzaki
zure hutsen adabaki
ez dakizula zure burua
non, nola ebaki?
Hartu zenbait erabaki
hobe izan honen zati
lana ekartzen diogulako
herri oso bati.

2. Mundu hontan lau ertzeko
sentitzen gara etxeko
trenak saltzen gu gabiltzalako
espabilatzeko.
Ni ez nago prest CAFeko
zamak niregan hartzeko
ta gutxi falta da nere trenea
deskarrilatzeko.

3. Presio latza zainean
lehenean ta orainean
kontratu asko sinatu ditut
ahal dudan heinean.
Ez fijatu orbainean
estres horren ordainean
guri esker doa ekonomia
gurpilen gainean.

4. Krisi internazionala
gugana iritsi ahala
sentitu ginen bikote haundi
eder ta mundiala.
Nago ahituta bezala

beti petxuan puñala
ta iruditzen zait hurrengo trena
ni gabe doala.

5. Ulertzen du zuk esana
baina hori ez da dana
ez zazu ahaztu guk nola josi
dugun iragana.
Izan arren nahiko zama
heltzeko herriarengana
norbaitek egin behar du beti
sukaldeko lana.

6. Beti jartzear brotxea
urrian ez bada brontzea
ta azkenerako asko estutu
zaigunez korsea
sukaldarien posea
dugunez holakoxea
ez ahaztu gaurko ogia dela
biharko gosea.

22. *Santurtziko portua*

22. gaia: Santurtziko portuko zamaketariak dira Maialen eta Amets. Armaz betetako kontainerrak kargatu behar dituzte atzerrira doan itsasontzi batean. Uko egitea proposatu dio Ametsek Maialeni. (BALO-REAK).

Doinua: Aresoarren bandera

1. Ai gerraren gerizpea
ze bizileku tristea!
Hala're zaila dugu gu biok
hori craistea
txarra dela sinistea
eta liskarra piztea
baino hobea ez ote dugu
begiak ixtea?

2. Barku horretan sartzean
ta gero bidaiatzean
deskargatuko dira Riaden
nahiz Qatar ertzean
ta gero noraezean
agian geure etxean
ez dezagula eskurik jaso
Parisen lehertzean!

3. Nahiz gu geraarazi nahi
inkoherentziak hor darrai
eta Parisen gertatzen bada
gu ez gaude lasai
Siria, Arabia, ai!
Han kargumentu honen zai
nik han gerrarik ez dut nahi baina
etxean jana bai.

4. Gerra ta gerraondo
itsaso ta itsas hondo
nik gaurko lana ukatzen dut ta
egingo dut tongo
gero Dáesheko frango
hemen baitira izango
eta zuk hil ta gero ez duzu
zer janik emango.

5. Dáesh hainbeste urteko
kontu gordin entzuteko
hori gugana helduko danik
ez duzu usteko?
Ni kapaza naiz eusteko
ta lanari ez uzteko
horma craikitzen ari dira ta
hau ez ikusteko.

6. Ta hola goaz itsutzen
nahiz tantak diren isurtzen
ta nahiz zaila den gure mundua
bi hitzez laburtzen
han zernahi dugu lapurtzen

ta armaz ditugu egurtzen
biktimarena eginez gabiltz
piztia laguntzen.

23. *Zabartzaroa*

23. gaia: Urteetan egin duzu lana adineko pertsonak zaintzen. Geroz eta hurbilago ikusten duzu zeuk zaintza beharko duzun unea.

*Doinua: ETAre*n *su-etenetik*

1. Urtetan adinekoei
horrenbeste errespeto
lagunduaz jeikitzeke
edo argia pizteke
gauzak betetzeko edo
betebeharrak husteko
ez neuzkan alde batera
besterik gabe uzteke
eta hel zekidakeenik
nahiz ta ez nuen usteko
nahiz eta gutxi falta den
nere zikloa ixteke
ez dakit ba prest nagoen
horretara iristeko.

2. Orain arte bai sasoia
orain arte indarrean
adinekoak bakarrik
neuzkala nere aurrean
baina begiak ipini
ditut nik lehen txarrean
bizitza bizi liteke
gaztean eta zaharrean
denok gabiltza kulunkan
bizitzaren dantzarrean
baina badaukat beldur bat
nago esan beharrean:
ez dut bakarrik egon nahiz
bizitzaren hondarrean.

3. Soiltzen ari zait burua
 eta zimurtzen azala
 beraiek dakuskit nigan
 hemen ohean natzala.
 Bizitza ez da bakarrik
 argia eta itzala
 ni saiatu naiz izaten
 bai zaintzaile zerbitzala
 eta azken urteetan
 pentsatu nahi dut, oxala!
 Nik lehen egin dudana
 alperrekoa ez zala
 eta zaindu nazatela
 zaindu ditudana bezala.

24. *Ikasketak gerora*

24. gaia: Gaztetan ez zenuen ikasteko aukerarik izan. Urteetan aurrera zoaz eta orain ikasten hastea erabaki duzu.

Doinua: Kas pote batzuk, txarroko ura

1. Etxean zuten diru murrizta
 ojala gehio izan balitza!
 Garbitzailatzat hartu langintza
 eta geroztik hortan gabiltza
 baina damutik eta penatik
 besterik ezin naiz mintza
 hortik irtengo nintzela noizbait
 eman nuen nere hitza
 ia berdin zait mekanikoa
 edota sukaldaritza
 bizitzan hontan hastera doa
 nere bigarren bizitza.

2. Lehen aukerarik ez zen bereizten
 ez ez nuen jakin ikasten
 ez aritzea norbera hezten
 ez dakit sarri kezka hutsa ez den.
 Orain denetik entzun dezaket
 denetik dabiltz irizten

batzuk animoz eta besteak
 alarma gorriak pizten
 baina ez du noski inork sinisten
 neuk ez badet hau sinisten
 eta iristen saiatzen ez dena
 ez da inora iristen.

3. Denon bizitza ez baita bera
 nik hori lehendik dakit sobera
 ze eskasia, ze egoera
 orain egingo al du hobera?
 Jarrantuko det garbitzen baina
 liburuekin batera
 ahaleginduko naiz ikasten ta
 titulo hori atera.
 Aurrera noan, animoz nago
 indartsu eta topera!
 Alperrik galtzen ez det utzi nahi
 nere azkeneko aukera

8.3. Familia

2001	108
25. Neoprenoa	108
26. «Aita, ama eta ni»	110
27. Alabak	111
2017	112
28. Bideokontsola	112
29. Gela hutsak	113
30. Ama bakarra	115
31. Harrerako haurra	116
32. Lana vs Familia	117
33. Gerra kazetaria	119

2001

25. *Neoprenoa*

25. gaia: Aitona eta biloba zarete. Zuk, Andoni, bilobak, Igor, aitona, ikusi duzu baratzean lanean. Euria ari duela-eta surfean erabiltzen duzun neoprenozko jantzia dauka soinean. Launa bertso, zortziko txikian, Andoni hasita.

Doinua: Dama gazte xarmant bat

1. Nere Jantziarekin
soroan barrena,
ze irudimena!
Atxur eta itaia...
ulertzen dut dena,
paketea da gehien
harritu nauena. (bis)

2. Baratzean lanean
nenbilen luzaro,
ta zuk sumatu duzu
zeozer arraro.
Paketeak harritu
ei zaitu gehiago,
hondartzara joateko
moduan al nago? (bis)

3. Hondartzan bazenuke
nahiko konpromisu,
ez joanda hobe da,
horra nik abisu.
Zeinen xeblebre zauden,
ai, aitona, aizu;
karakolak barrezka
hasiko zaizkizu. (bis)

4. Oraingo txiste hori
niretzat da hitsa,
beharginarentzako
esaldi bortitza;
karakolak barrez ta

astiro dabilta,
zeu ere lanerako
halaxe zabilta. (bis)

5. Baina zu zaharra zera
eta ni gaztea.
Halare lanean zu,
ez al da tristea?
Gogorra egin du lana
aipatzen hastea,
nik nahikoa lan badut
parreai eustea. (bis)

6. Beraz bakar-bakarrik
behar dut konpondu,
neoprenoarekin
hementxe bero gu;
uriak eta denak
horrek dizkit ondu,
gerria ez bihurtzeko
ere balio du. (bis)

7. Neoprenozko trajez
gizon bat sendoa,
eta taularen orde
hesola mordoa;
Kutxako fotografo
haundi bat hor doa...
Kalendariorako nolako
koadro! (bis)

8. Gure ilobatxo hau
erotu ote da?
Niri adarra joaz
galanta aukera.
Fotografoa ere
ekarri gainera,
atxurrarekin joko
zaitut goitik behera! (bis)

26. «Aita, ama eta ni»

26. gaia: Sei urteko semearekin batera bizi zaren ama ezkongabea zara. Gaur, semea ikastolan, «aita, ama eta ni» deritzan marrazkia egin duela esanez datorkizu. Hirubertso, nahi duzun neurri eta doinuan.

Doinua: Itsaso hori dago zatarra

1. Haren goxoa, haren epela,
orain malkoek musu umela,
aita ta hirurok marraztu
eta ume hona zatozela. (bis)

Zu jaiotzeko zinela
istripu batean bela...
a ze destino krudela!

Ta orain berriz marraztu dezu
bera balitza bezela;
banekien bai ikusi ez ta're
bihotzean zenuela! (bis)

2. Umea zuri zenbat goraintzi,
oroimenak du mila garrantzi,
zuri barrutik atera zaizu
zenbat maitasun ta antsi! (bis)

Aita gabe ezin etsi,
ta marraztera iritsi;
haurra ezin det sinetsi!
Bere argazki bat badago gelan,
sekula ez dizut utzi,

ta ze marrazki egin diozun zoaz eta
erakutsi. (bis)

3. Istripu hura ez zan makala
baina sortu da bere ezpala,
bere irudia bere aurpegian,
soinean, daramadala. (bis)

Haurra eder ta kabala,
maitekorra ta apala,
aitak nahiko zuen ala!

Marrazki horrek etorkizuna
zerbait goxatu dezala,
eta ez zazu sekula ahaztu
etxean hiru gerala. (bis)

27. *Alabak*

27. gaia: Azkenaldian zure herrian eraso sexual bortitzak izan dira. Lehen, ez zenion gaiari arreta handirik jartzen. Orain, ordea, bi alaba gazte dituzu etxean. Hiru bertso, nahi duzun neurri eta doinuan.

Doinua: Historiaren hari zahar hori

1. Hainbat eraso gertatzen dira
bertatik eta bertara,
herrira heldu da jada,
lehenago ez nuen sinisten baina
orain sortu zait ikara. (bis)
Beti urruneko sentitzen Nuen
eta azkenean, hara!
Nik baditut bi alaba,
sentimentuak azaleratu
ta ezin gordean laga;
maiz biolentoa sentitzen naiz ni,
ez dut nahi baina hala da. (bis)
2. Emakumeak ustez ez dauka
gizonak aina indarririk,
maiz dago galdu samarrik,
eta jakina, hari ez zaio
inoiz faltako okerririk. (bis)
Nornahik badauka asmo lizunik
ta agian asmo txarrik,
nahiz ta ez izan beharrik.
Aita bezela nik pentsatzen det:
harrapatzea alperrik,
ni gizarteak kezkatzen bainau
ez gizon batek bakarrik. (bis)
3. Maiz gizartea aldatu ohi da
nahi dunaren arabera,
badu hainbat gorabehera,
gaur erantzuna eman lezake
ta bihar ahaztu galdera. (bis)
Horren aurrean kezkatzea da
guraso denen jarrera,
beti begira kalera;

horrexegatik nahiz ta hitz egin
berriz bihartik aurrera,
gaurkoz horixe eskatu behar det:
ez zaitezela atera. (bis)

2017

28. *Bideokontsola*

28. gaia: Aitor semea eta Unai aita dira. Aitak uzten ez zion arren, Aitorrek moda-modako bideokontsola erosi zuen bere aurrezkiekin. Orain Aitorrek baino gehiago erabiltzen du Unaik.

Doinua: Gizona zoroa da

1. Nahiz ta ez zenuen nahi
ni nendila ari
begiraiozu ondo
zure buruari.
Sala erdian jarrita
zaude adi-adi
kea irten zaio
play-sationari.

2. Aita batek badauka
babesteko senik
ni hola ikusita
zuk ez hartu penik.
Ez pentsa buruantzat
hau hain ona denik
zuk ez erabiltzeko
erabiltzen det nik.

3. Nolako artea ta
nolako abaila
bistan geratu zaigu
aitak daukan maila.
Beti joku berdina
gainera ez zaila,
ta oraindik ez du pasa
lehengo pantaila.

4. Nola hasi zeran gaur
 hemen jo ta kian
 ez det pasatu baina
 zuretzat kaltian.
 Lehengo pantailakin
 ni utzi pakian,
 ez dezu erabiliko
 hau pasa artian.

5. Ba orduan nik dizut
 gaur erakutsiko
 horrek bi mando dauzka
 diot neurekiko
 soluzioa hau da
 behin eta betiko
 biok elkarren kontra
 jokatu ta kitto.

6. Aitarekin ibili
 nahi luke obretan,
 joku gutxi ditugu
 famili pobretan.
 Ez nuke ibili nahi
 joku gogorretan,
 lehia gauza txarra da
 edade horretan.

29. *Gela hutsak*

29. gaia: Gurasoak dira Aitor eta Beñat. Seme-alabak koskortu eta etxetik joan zaizkie. Haien gelak husten hasi dira.

Doinua: Lagundurikan danoi II

1. Ezinbestekoa zen
 ezin zen saihestu
 baina barruan zerbait
 sentitzen det estu.
 Jostailuak trasteak
 doaz estu-estu
 kajetan ganbarara

igo eta ahaztu
gure etxe hau ez da
orain arte hustu.

2. Gazteak joatea
izaten du arau
dauzkate 20 urte
eta 24
orain bidea ez da
hain errez ta hain lau
beren gelak hustuaz
ari gara rirau
ta orain nola beteko
degu hutsune hau.

3. Ezin daiteke bete
ta onartzen amaitu
joaten den horrek huts bat
beti uzten baitu
beraiengatik poztu
joateaz alaitu
heldu behar dute eta
bide bat jarraitu
baina horrek zu eta ni
non kokatzen gaitu?

4. Bakoitzak bere aulki
ta bere platera
ta orain biak hustu
zaizkigu batera
biak zaizkigulako
etxetik atera.
Gu etxetik gabiltza
gutxi gora behera
haiek heldu dira ta
gu umetu gera.

5. Benetan ote gaude
umeen neurriko
zaharra pentsatzen ari
nintzen nereko
nahiz ta ez aldatzea

nahi genuen kito.
 Pasatzen dena pasa
 egin da betiko
 eta joan dena ez da
 berriz itzuliko.

6. Bat erronkoso da
 bestea alferra
 baina faltan botatzen
 degu lehengo gerra.
 Bisitan etortzea
 ez denez okerra
 lenteja batzuk eta
 oilasko izterra,
 jarriko al diegu
 lehengo taperra?

30. *Ama bakarra*

30. gaia: Ama izan zara. Denek diote pozik egon behar zenukeela,
 baina ez zara hala sentitzen.

Doinua: Lurraren pean sar nindaiteke

1. Gizartearen joera batek
 ote nindun hona bultza.
 Nere bizitzan egiteraino
 horrenbesteko doikuntza
 ama bakarra izan nahi nuen
 eta jaso dut laguntza,
 tratamentutan nekea eta
 osasuna ta dirutza.
 Ta azkenean zabaldu da ba
 nire ametsaren kutxa
 ume txiki bat bilakatu dut
 nere bizitzaren funtsa,
 lehen ezaren hutsa nuen ta
 gaur izan ondoko hutsa.

2. Hain pozgarria behar zuena
 izan zitekenik hitsa
 bera negarrez bera ohiuka

berak ezpainetan bitsa,
 eta nik nola ondo ez dakidan
 nola den ama langintza
 umearekin nabil nolabait
 ezin aurkiturik giltza.
 Nere lagunek ta medikuek
 ai ze aholkularitza
 ia lau urte eta erditan
 tratamenduan gabiltza
 nik ez dakit zein puntutararte
 behartu behar den bizitza.

3. Ez dut esango ume txikiak
 egiterik enbarazu
 baina batzutan erotzen nau bai
 negar egiten du gartsu
 nola liteke izan hain txiki
 hain handi ta hain ahaltzu
 egunen baten haziko zara
 ta egingo didazu kasu.
 Triste ta pozik, pozik ta triste
 mila sentipen jo ta su
 xiringa baten genea baina
 nere aurpegia daukazu
 ta luze gabe adiskide izan
 beharko gara ni ta zu.

31. *Harrerako haurra*

31. gaia: Hamar urteko haur bat duzu harreran. Gaur du asteroko bisita familia biologikoarekin. Noiz itzuliko zain zaude.

Doinua: Oso polita zara izatez

1. Laguntza behar duen haur tropa
 hain da luze ta zabala
 jakin nuen ta nire eskua
 luzatu nun berehala.
 Laguntzaile huts nahiz eta naizen
 ta ideia razionala
 ezin dudala berekin sortu

harreman bat pasionala
 ya nahiz ta ia egin ditudan
 mamia eta azala
 ez dut nahi baina senti nezake
 nerea balitz bezala.

2. Arratsalde bat pasatuko da
 ta ikusiko ditut beltzak
 muxu eman nahi irri egin nahi
 ta sentitu nahi neretzat
 bospasei ordu joango zaizkit
 gorputzeko hutsunetzat
 gauza hauek sortu ditzakeelako
 norberaren haurrik ezak
 ta pentsa horko orduak neri
 hala igurtzirik ertzak
 ez dut jakin nahi ze izango den
 bere guraso batentzat!

3. Bere guraso gizagaixoek
 ze sufrimen ta kaltea!
 Ta itxuraz hezi ezin zutenez
 eten zieten katea
 ta horregatik egokitu zen
 haurra neri ematea
 baina egun batean itzuliko da
 zabalduko dut atea
 ta urtetarako izan liteke
 gaur bost ordu den tartea.
 Zaila zait baina desio dizut
 zoriontsu izatea.

32. *Lana vs Familia*

32. gaia: Lanpostu berrian hasi zarenetik, etxera iristen zarenean familia osoa lo egoten da.

Doinua: haizea dator ifarraldetik

1. Mundu honetan egongo dira
 hamaika ni bezalako
 ostalaritzan lan egiten dut

eta ez nabil galako
bai jateko ta bai edateko
dena ipintzen det bapo
alkandora beltz bat ipinita
lanera joaten naiz guapo.
Semeak hiru urtetxo ditu
ta barruan kezka franko
ta bikoteak ere tarteka
ze duda eta ze malko...
Haiek etxean dabiltzanean
ni nabil etxetik kanpo
ta haiek etxetik joaten dira
esnatzen naizenerako.

2. Nik lan honetan urtebete bat
egin det dagoeneko
eguerdiz irten ohi naiz etxetik
ustez umore oneko.
orain bueltatu ta goizaldeko
ordu biak emateko
hilabetean mila ta berrehun
euro umore tristeko.
Semeak badu gogo pixka bat
bizikletan ibiltzeko
badu gogoia etxekoekin
tertulian aritzeko
bere irriak bateko eta
bere negarrak besteko
nik zenbat gauza galtzen ditudana
soldata irabazteko!

3. Eta ohera sartu naiz bueltan
sartzeko zenbat apuru
hanka punttetan atetik hona
hamabost pauso inguru
gure logela bere armairu
ispilu eta liburu
nik bikotea iratzarri ta
jarri gera buruz buruz.
Nik esan diot nahiz ta soldata
lortzea izan helburu

elkar ikusi ezin badugu
ze kristotan dihardugu?
Lana utziko det etorkizuna
nahiz ez ikusi seguru
guk daukaguna galdu aurretik
zerbait asmatuko dugu.

33. *Gerra kazetaria*

33. gaia: Gerra kazetari baten aita zara. Gaur ere albistegian ikusi duzu hango berri ematen.

Doinua: Baneza eta banitu

1. Barruan ez det indarrik
oihu egiteko garrik
badet buila ta marmarrik
nago nekatu xamarrik.
Semeak lana hautatu zuen
horrek ez du ezer txarrik
nahiz aldatzeko esaten niyon
lau aldiz baino alperrik
telebistaren aurrean nago
ta ez det ikusi beharrik
bonba artean ari da hizketan
peto batekin bakarrik.

2. Horko hiriya Alepo:
lau etxe zutik kaleko
hilakuak ere lepo
edozein berri baleko
egunero da nahigaberen bat
munduari esateko.
Semea dago egoskorkeian
nere antzeko da tarteko
hori zergatik egin behar du
bizitzeko ta jateko?
Gogoia daukat abioia hartu
ta bere bila joateko.

3. Bera beltz ta ni zurbila
 mundua da borobila
 arren lasaitu nadila
 oraindik ez dago hila
 bainan aita naiz ta ez naiz jarriko
 mutua edo isila
 noizbehinka hartzera ausartzen da ta
 haurtu behar det mobila
 esango dio «adi zak, Aitor
 ni ez niak hire bila!»,
 baina aita gaizki jarri aurretik
 etxera etorri dadila.

8.4. Harreman afektiboak

2001	120
34. Larrosak	120
34. Bananduak	122
36. Diskoteka	124
37. Amodioa	126
38. Irakasle maitemindua	128
39. Senar okupatua	129
40. Su Bila	131
2017	133
41. Igogailuan	133
42. Koadrilakoaren tratua	134
43. Ikaskide ohien afaria	136
44. Lagun imaginarioa	137

2001

34. *Larrosak*

34. gaia: Elkarrekin bizi zaretan neska-mutilak zarete. Jon, neska, egunero joaten zara lanera. Jexux Mari, mutila, etxean gelditzen da etxeko lanak egiten. lana bukatu eta gosez amorratzen etorri zara, Jon, etxera, baina mahai gainean lore sorta eder bat aurkitu duzu. Hiru bertso, zortziko handian, Jon hasita.

Doinua: Balentin Berriotxoarena

1. Non ote daude maitasuna
ta adeitasunaren marrak?
Orain makalak izan gaitezke,
hurrena berriz azkarrak.
Krabelin batzuk mahai gainean,
ez dira bat'e zatarrak,
politik dira baina agian
digestiorako txarrak. (bis)
2. Gaur hiru urte biok batera
elkarrekin ginen hasi,
harremanak ta etxeko lanak
behar nituen nahasi.
Arrazoi dezu, krabelin batzuk
jarri dizkizut lehenbizi,
ta afaria gelan daukazu
bere postre eta guzi. (bis)
3. Mutil jatorra topatu nuen,
baina agian epela;
ez nuen uste lanetik bueltan
sentitzerikan horrela.
Tranpa eginaz ote zabilta
ikusten dudan bezela?
Nik uste nuen gela kontua
afalostekoa zela. (bis)
4. Zure esperantza afaria zen,
hori zenuen espero;
biok sarritan izandu gera
mantapearen bezero.
Afaririkan ez dizut jarri ta
gaurkoa hala bego;
igoal goserik ez zan izango
hortik afaldu ta gero. (bis)
5. Lore sortakin zuzen liteke
harremanaren norantza;
lore sorta bat izan liteke
detalle baten ardatza;

lore sortaren gozamenean
 egin dezakegu dantza,
 baina gaurkoan lore sorta horrek
 sartu dit neri arantza. (bis)

6. Zure zai negon bakar-bakarrik
 maitasunean urtua;
 zuretzat al da lore polit hau
 arantz zorrotz bihurtua?
 Kopet beltzeko jarri zera bai,
 jenioz oso txartua,
 nere lorerik nahi ez badezu,
 badaukat zeinek hartua. (bis)

35. *Bananduak*

35. gaia: Hirurogeita bost bat urteko bi emakume zarete, adiskideak. Bizitza latza eman duzue zuen senarraren ondoan. Zuk, Sustrai, gehiago ezin eta banatzeko erabakia hartu duzu. Andoniri gogorra egiten zaio bide hori hartzea. Hiruna bertso, zortziko handian, Sustrai hasita.

Doinua: Erreguetan ari nintzela

1. Erregu asko egiten ditu
 ta etxeko lanak guti,
 zeozer gaizki egiten badut
 bronka sentitzen dut aurki;
 senarrarekiko ez dut sumatzen
 ez beldur ta ez erruki,
 bizitza zer den ikas dezala
 baina nigandik urruti.

2. Nik ezingo dut urrunduarazi
 ohekide dudan prenda,
 nahiz aspaldian hartu-eman
 dagon zeharo etenda.
 Errutinara iritsi ginen
 maitasunetik irtenda,
 ta errutina pasata ere
 errukia gelditzen da.

3. Lehenago asko maitatzen nuen
ta orain berriz gorrota,
gure artekoa bihurtu baita
eguneroko borroka.
Amodioa bertan hiltzea
ez zait batere inporta,
beste norbaiten morroi izaten
nazkaturikan nago-ta.

4. Mirestekoa iruditzen zait
azaltzen dezun indarra,
baina nik jasan egin beharko
gure etxeko oilarra.
Nahiz banatzea gerta litekeen
hautu egoki samarra,
ez det jasango gure herriko
beste atsoen marmarra.

5. Zu zaude lasai ni Ortentsiri
aurre egiteko prest nago,
nere burua maitatzen baitut
hoi baino askoz gehiago.
Haizia hartzera bidali zazu,
egin zaiozu hordago,
edo bestela zu hilko zara
senarra baino lehenago.

6. Oraindik ere badet hainbeste
proiektu ta egitamu,
nere senarra bihurtu arren
nere zoritxarren amu.
Biok berdintsu aurkitzen gera:
zuk pena eta nik damu;
nahiago nuke barruan dezun
indar hori baldin banu!

36. *Diskoteka*

36. gaia: Zuk Maialen, asteburuan diskotekan mutil batekin dantza egin ondoren zeharo lotsatuta bukatu zenuenez, dantza akademiara joatea erabaki duzu. Han, atea ireki eta Jon, Igandeko neska bera, irakasle. Launa bertso, zortziko txikian, Maialen hasita.

Doinua: Dama gazte xarmant bat

1. Kontxo, a ze sorpresa,
mutiko gailena»

Gogoratu zait zure
anuntzioarena.

Zu al zera munduko
irakasle onena,
pasodoblea hiruko
egiten zuena?

2. Ni naiz mutiko hori

har zazu kontura;
nik han ikusi nizun
zeneukan ardura;
zu zera neska hori,
a ze abentura,
pasodoblea erdi
bihurtu zun hura!

3. Oraindik naiz zurekin

dantzatu desrian,
hankapalon bat edo
ia komeni dan.
Mejikanetan ere
jiran eta biran,
belaunarekin tripan
ematen zenidan.

4. Nik honi ezin diot

ezer erakutsi
baina etorri da ta
hori ez da gutxi.
lehenengo aholkua:

indarrakin eutsi,
lepotik heldu eta
hankak libre utzi.

5. Gero nahi nuen euskal
dantzak dantzatzea,
besoak gora jaso,
buruan haizea.
Hanka haundi hoiekin
normal nekatea,
kosta behar zaizu hanka
puntetan jartzea!

6. Ez zen mejikanarik
ez pasodobleka,
euskal musika ere
ezzegon uneka.
musikaz ezer ere
ez dakizu neska,
han soilik bakailaua
entzuten zen-eta.

7. Baina nik nahiko nuke
musika hura ken,
bakailauak ez baitzun
nahi aina iraupen.
Nola mirari haundirik
ein ez genezakeen,
ia ikasten degun
kalejiran joaten.

8. Kalejirakin egin
liteke balantza;
nik orain hartzen dizut
ahateen antza.
Parkularretara
zatoz etxerantza,
nik ondoen etzanda
egiten dut dantza.

37. *Amodioa*

37. gaia: Zuek, Unai eta Sustrai, lagunak zarete. Zuri, Unai, amodioa era tradizionalen egitea gustatzen zaizu. Sustrairi, ordea, ohiko ez diren leku eta egoeretan. Launa bertso, zortziko txikian, Unai hasita.

Doinua: Kantatzera nijo

1. Tradizionala naiz ni
bizar eta guzti,
modu tradizionalen
gura dut nik busti;
misionero postura
ezdagohain gaizki,
ta, hori bai, kaltzontzilo
zuriekin noski! (bis)

2. Lehenik igogailuan
goxo bapo-bapo;
parkean izaten da
buruhauste pranko;
kateekilan edo
armariotik salto...
Bizi geran artean
probatu beharko. (bis)

3. Edonoiz ta edozelan
sexuari ekin,
zer etorri litekeen
Sustrai, ezin jakin;
kontuz hainbeste salto
ta hainbeste puentin,
esperimentuak beti
gaseosarekin. (bis)

4. Gaseosa beharda
lagunan epaian,
morbo kontutan gabiltz
hementxe ezbaian.
Nik gero jo behar dut,

ta era lasaian,
Iturriaga bakarka
ari dan garaian. (bis)

5. Ontxe geratuzara
Sustrai barregarri,
zu sexujardunean
ta ni larri-larri;
naturala izaten
naizenez nisarri,
ni entzuterako orduan
kondoirikez jarri. (bis)

6. Gozatu bat hartzea
da nere erronka,
hementxe ibiltzen naiz
kota eta kota.
Belodromoarena
gaur zaila dago-ta,
argirik gabe ere
ez dio inporta. (bis)

7. Neroni ere egon naiz
horixe pentsatuz,
argiaren kontua
larruari lotuz.
Argia joan ta etorri...
ibil zaitez kontuz,
hori izan liteke
coitus interruptus. (bis)

8. Hori'reprobatzea
ona da tarteka,
behera, gora, nun kristo
al dago oreka?
Bainabukadezagun
azkar ta lasterka,
neska-lagunarekin
geratunaiz eta. (bis)

38. *Irakasle maitemindua*

38. gaia: Hemezortzi urteko ikasle batez maitemindu zaren berrogeita bost urteko irakaslea zara. Zure burua eta bihotza ezin dira bat etorri. Hiru bertso, nahi duzun neurri eta doinuan.

Doinua: Munduko ilunabarra

1. Sentimentuen ardagai,
nere izar denen sabai,
ikuspegi oron talai,
jaiotza eta hil kanpai.
Nere ikasle bat ezagutu nun,
hasieran ez nuen nahi;
begi aurrean jartzen zitzaidan,
ez nintzen sentitzen lasai.
Ezkondua naiz, orain artean
banuen hainbeste dohai;
hainbesteraino txatxutu al naiz?
Nik zer egin behar dut, ai!
Ulertu ez dut ulertzen baina
bizi eta sentitu bai. (bis)

2. Bizitza dugun ruleta,
beti jira eta buelta,
hari begira zer gerta,
pasibokeriz beteta.
Alde batetik nere andrea
dut bihotzean gordeta;
bestekaldetik orain sortu zait
nexka horrekin apeta.
Egia esan maitemina da,
ez da gero berriketa!
Zer egingo det, nola jokatu,
aidera bota pezeta?
Azken batean bizitza ere
leon-castillo da-eta. (bis)

3. Nere bihotz ta teilatu,
behin behar eta banatu,
batek bestea ukatu,
erabakiak nekatu.

Leon-castillo esan det baina
 patua beti da patu;
 ez dakit ziur nere andrean
 ondoan neu orekatu,
 edo bestela gazteaz joan,
 abentura ferekatu.
 Pentsatzen ia ahitu naiz eta
 ohean nahi nuke sartu,
 ta erabakia almohadakin
 ta halare nik neuk hartu. (bis)

39. *Senar okupatua*

39. gaia: Bikotea zarete, zu, Igor, emaztea, eta Aitor senarra. Aitor oso okupatuta bizi da nonbait: goizean bilera, eguerdian bestea, arratsaldean bi... Iluntzean etxera etorri denean, zuk, Igor, eguneko bilerrik garrantzitsuena antolatu diozu, bion artekoa. Hiruna bertso, hamarreko txikian, Igor hasita.

Doinua: Lagundurikan denoi I

1. Postu ona lortzeko
 egon zinen ernai,
 antza lanean duzu
 behar beste dohai.
 Zuk egun osoan lan,
 ni berriz zure zai;
 orain nire ondora
 zatoz lasai-lasai,
 nik maitasuna behar dut
 eta zuk ere bai.
2. Maitasunaren hortan
 ez dezu okerrik,
 eskeini ta ez zaizu
 faltako eskerrik.
 Lanetik itzuli naiz
 nekatu samarrik;
 postu ona daukat bai,
 eta ez alperrik,
 baina ez dit ematen
 soldata bakarrik.

3. Soldata eman ta lanak
emateagatik
orain triste jartzea
esan zeuk zergatik.
Etxean lasai-lasai
gaude gu haatik,
eta lan arazoak
kendu buru hortatik,
zure estresa nola
gainditu badakit.

4. Nere lanaren karga
zail da eramaten,
nola neure postuan
lan asko daukaten.
Baina geure lotura
ere ezin eten;
emateko dezuna
hasi ba ematen,
ta barka ez badizut
nik ezer esaten.

5. Beti buruhaustea
eta beti presa,
zure bizimoduan
gainditu estresa.
Baina bilatzen duzu
zuk nire babesa;
arren ez zaitezela
horrenbeste kexa;
nik dudan lana ere
ez da hain erreza.

6. Lanean beti sobra
buruhauste batzuk
eta hoiek gainera
botatzen dizkizut.
Lana sobra dezula
esan didazu zuk,
hala ere aurrera
egin dezagun guk;
ez du ematen baina
asko maite zaitut.

40. *Su bila*

40. gaia: Laurogei urteko aitona-amonak zarete. Maialen amonak, etxeko berogailua garestia dela eta zu Andoni, aitona, basora bidali nahi zaitu sutarako egurra egitera. Launa bertso, zortziko txikian Andoni hasita.

Doinua: Dama gazte xarmant bat

1. Egiten dun hotzakin
nola kristo irten?
Egurrik ez al dago
hemen txoko baten?
Ulertzen dut: ondolik
ez nazakezu ken;
beste modu batera
esan zenezakeen! (bis)

2. Keba, nere ondoan
nahi zintuzket, hara,
baina horrela biok
izoztuko gara.
Andoni, zu jartzea
nere gain hontara,
izara bat jartzea
bezelakoa da. (bis)

3. Erantzun behar dizut
amona polita,
nik daukadan bakailau
sikuaren pinta,
flako nagola eta
hainbat kalapita...
Hau konpondu liteke
bat sarri jarrita. (bis)

4. Beraz sarri jartzeko
zure abisuak,
basora juan nahi ez
aitona txintxoak.
Ze-nolako hotzikarak,
ze dardarizoak,

eroriko zaizkigu
hortza postizoak! (bis)

5. Gu biok hortzak kas-kas,
hauxe hotzikara!
Hortatikan arrazoi
izan dezu, hara!
Holakorik hotzari
ezin zaio laga,
jarri berriak ditut
ta a ze putada! (bis)

6. Zuri hezurak zaizkizu
bapo nabarmendu,
hezur junturak eta
azala gailendu;
ni azkenaldian naiz
dexente gizendu,
baina zure dardarrak
hotsa ateratzen du. (bis)

7. Nere hezur junturak
zarata almazen,
baina basokoari
ezetz diot ozen.
Sarri jolastu ginan
gaztetan hain xuxen,
haiek gogoratuaz
berotu gaitezen. (bis)

8. Zoaz, maite, basora
umil eta trebe,
ta gutxinez ekarri
dozena bat lore.
Gure garai zahar haiei
hainbeste amore...
Gaur ez zaigu berotzen
memoria ere! (bis)

2017

41. *Igogailuan*

41. gaia: Bizilagunak dira Igor eta Maialen. Bart gauean birritan esnatu du Igor Maialenek sexu jolasetan zebilela. Gaur goizean, igogailuan egin dute topo.

Doinua: Orioko balearena

1. Egun on, ustez atzo
zenbiltzan ta ongi,
ni logureak nago
ta zu berriz grogi.
Hori bai bart gauen
zu zenbiltzan yori
kendu ezazu tonto
irriparre hori.

2. Sexua suertea da
eta ez da luxu
bart gauez dena irrintzi
ta izerdi putzu.
Zuk berriz beakoa
serioa duzu
duzun inbidi horrek
zimeldu zaitu zu.

3. Batzuentzat bizitza
bero ta maitasun
besteontzako berriz
sasi eta asun.
Sexua suerte dela
hala dizut entzun
ta antza dena zeuri
tokatu zitzaizun.

4. Izan ere zu zaude
hain muker ta erkin
ez dezu ligatuko
jarrera horrekin.
Baina bart zeure kabuz

al zenuen ekin,
gure etxeko efektu
espezialekin.

5. Logure nintzen baina
belarriak arin
alboan bazen zenbait
sexu-joko gordin
diozu nik gozatu
nezakela berdin
ta zeinek esan dizu
ez nuela egin.

6. Zu tristetzeko ez det
hainbeste interes,
baino irrifarre bat
egizu mesedez.
zer nolatan zabiltzan
bisaia da juez
egin igual in zendun
baina gozatu ez.

42. *Koadrilakoaren tratua*

42. gaia: Lagunak dira Unai eta Aitor. Ez zaie gustatzen beren kua-drillako bati bikotekideak nola hitz egiten dion, eta Aitorrek Unairi esan dio beren lagunarekin hitz egin behar luketeela.

Doinua: Aresoarren bandera

1. Hau ez da gauza normala!
Horrena ez da kabala!
Bikote tonto horrek darabil
edozer bezala
kalean badabil hala
neurriak hartu ditzala
ta ez dakigun zerbait badago
salatu dezala!

2. Entzun bertatik bertara
ta sortzen zait hotzikara
bikote baten hitz egiteko

ere hau al da ba?
Dena araua ta traba
Miren bere oinetara
bai maitasunan itsua omen da
itsuegia da.

3. Bikotean propaganda
tokatu zaiona ganga
gauzak garbiro azaldu behar
egia esanda
nola lagunak geran ba
joan ta esan daiogun danba!
Bioi ez digu kaso egingo
bakarrikan joanda.

4. Ia ari naiz zapuzten
ezinegon bat gorpuzten
bola bat dabil nere barruan
puzten eta puzten
ai, zer esango nituzkeen!
Asko kostatzen zait eusten
baina zer egin berak ez badu
berdina ikusten?

5. Badaukat kezka ugari
egurra bota suari
odola daukat borborka eta
ez al da nabari?
Miren ez badago adi
hizketan zergatik ari?
Agian zerbait esan behar zaio
bere mutilari.

6. Bera zeru, Miren zoru
gero ze hizketa modu
kale edo bale egigun zerbait
ez galdu bi ordu.
Banaka ez gera joango gu
biok esango diogu
ta erabaki behar duenak
erabakiko du.

43. *Ikaskide oihen afarira*

43. gaia: Umetan iseka edo trufa egiten zizuten eskolan. Urteak igaro dira geroztik, eta gaur ikaskide oihen afarira joateko gonbidapena bidali dizute.

Doinua: Tabuak min direnean

1. Nahiz amaigabea izan
 duda ta kezken ilada
 paperak hartu eta bota
 ditut ezdeusen pilara.
 Ikasle txarra nintzela
 joan dira lau hamarkada
 ta munduan aldatzea
 zilegi da, kamarada!
 Nahiz lehen denek parre egin
 sartu orduko gelara
 ta denek esan «Inigo
 ipurdi gizen bat zara!»
 nahiz ta oraindik mintzatzen
 naizen makinan gisara
 klaseko tontoa zena
 orain lehendakaria da.

2. Erruak ta barkamenak
 zenbat daukate kulpatik?
 Zahartu ahala bota ditut
 konpleju denak popatik.
 Iritsi naizen tokira
 iritsi naiz horregatik
 ta inbiditan daudela
 nik ezin hobeto dakit.
 Afarian ez zen falta
 Mikelik eta Beñatik
 ahoa bete diete
 ez dakit zenbat aitzakik
 bi aldiz lotsatu dira:
 behin burla egiteagatik
 eta bi bizitzan zehar
 bihurtu direnagatik.

3. Iritsi ta haien artean
 nahiz ta sentitu sasiko
 gaur inorrek ez dit deitu
 tonto edo parasito
 neure lekuan jarri naiz
 beti bezala klasiko
 ta eztabaida luzatu dut
 nahiz ta izan hiz gutxiko
 seriotasun bat antzeman
 diet bazkari guziko
 itxuraz aurrerantzean
 ez dira lasai biziko
 nahiz ta bengantza txiki hau
 izan den nere graziko
 seguruenik ez nuen
 botorik irabaziko.

44. *Lagun imaginarioa*

44. gaia: Aitor sei urteko umearen lagun imaginarioa da Maialen. Gaur esan dio Aitorrek Maialeni dagoeneko ez duela bere beharrik.

Doinua: Maritxu nora zoaz I

1. Adin hontara heldu
 ta hau da pikea!
 Kostatu zait nor nintzen
 ere jakitea!
 Uste al dezu zurea
 dela agintea?
 Orain kostako zaizu
 ni desegitea!

2. Baina ez da alperrik
 pasatzen denbora
 ia ez zaitut behar
 ta ez zaude gustora
 sortu zinen begiak
 itxi ta gerora
 ta berriz zabaltzea
 aski izango da.

3. Pixka bat heldu da ta
harrotu da dena!
Erabat jua ziao
umearen sena
aizu, helduaroa da
denik ta tristeena
gero're beharko dezu
zuk irudimena.

4. Beti babes aurkitu
ohi da lagunan
baina sobran da adin
gehio degunean
ez naiz bakara izango
zure jardunean
zebagarrena nintzen
curriculumean?

5. Zu lehenengo zinen
sinistu benetan
ni fidelena bainai
aizu fideletan
ez baldin banauzu nahi
zure ondoan, bertan
azalduko natzaizu
amets gaiztoetan.

6. Lehenago ere ez zaude
gutxi eraginda
ta aurretzean ez
gehio eragin ba!
Agurtu behar zenuke
gauza jakinda:
ez da zure erruz baina
bukatu egin da.

7. Gero ez zazula ba
balkorikan xuka!
Gero ez zazula izan
lehengoan gomuta!
Pena da bukatzea
eta nola buka

behin horrela gauza
ederra sortuta!

8. Pena dela zenion
penaz al zaude zu?
Aurrera begiratu
asma dezakezu
denei berdin eskeintzen
baldin badiezu
lasai beste lagun bat
aurkituko dezu.

8.5. Politika / Euskal Herria

2001	139
45. Nortasun agiriak	139
46. Militanteak	141
47. Kartzelako zaharra/gaztea	143
48. Aturritik.	144
49. Seme hilak	145
50. Kamiltxo	146
51. Himalaya	148
2017	148
52. Euskara elkarteak	148
53. Ardiak	149
54. Pisukideak telebista	151
55. Bake artisauak	152
56. Autoa	153

2001

45. *Nortasun agiriak*

45. gaia: Zuek nortasun agiri edo identifikazio kartak zarete. Aitor, ENA edo Euskal Nortasun Agiria zara, eta Maialen, Espainiako nortasun agiria. Biok zaudete pertsona beraren karteran. Hiruna bertso, zor-ziko handian, Aitor hasita.

Doinua: Ludi bizitza abesti gozoz

1. Gaur bi agirik topa egin degu,
baina zer demontre da hau?
Bistakoa da: bere buruan
aurretik eginak dirau.
Nahi ez duela heldu zaizkio
hainbat lege, hainbat arau.
Zu jarrarazi egin zaituzte
eta ni berak jarri nau.

2. Baina bidea nik libre daukat
ta zuk bete-bete trabaz;
ni gazteleraz inprimatua
eta zu berriz euskaraz.
Gure jabea beti dabil zu
beste baterako lagaz,
argazia ere munituta dezu
izango zuen dardaraz!

3. Biak batera zeuzkan ordea
dardara eta zentzuna.
Ni egitea izan da beraz
zurekiko erantzuna.
Nik azaltzen det jabeak duen
berearen maitasuna;
zuk bere izena azaltzen dezu
ta nik bere nortasuna.

4. Biak patrika berean gaude,
biak elkarren hurrean
ni zurekin ez baina zu zaude
nerekiko haserrean.
Zu nortasuna omen zerala
diozu modu errean,
nortasuna ere galtzen du batek
goardia zibilen aurrean!

5. Goardia zibilen aurrean nahiz ta
susto bat duen hartua,
ni atera nau nahiz eta izan
zuregatik galdetua.

Jarrera horrek ni indartzen nau
ta zu zera kaltetua;
indarra dezu baina horrela
kenduko dizut lekua.

6. Neri lekua kendu nahiean
al da zure jo ta kea?
Oraindik indar haundia daukat,
beharko dezu tartea.
Nere aurpegiak sortarazten du
patxarra eta pakea;
zure aurpegiak irekitzen du
kalabozoko atea.

46. *Militanteak*

46. gaia: Berrogei urte jiratuta dituzue biok, Jon eta Aitor. Hogei urte zenituztenean, herriaren alde ari zinetelakoan, saltsa guztietako perrexila zineten. Gaur, Jonek, ibilera hauek utzita dauzka albora. Aitorrek lehengoan jarraitzen du. Hiruna bertso, seiko motzean, Jon hasita.

Doinua: Aizak bi mutil mainontzi

1. Honuntza eta harantza,
gogorra izan det martxa,
bihotz erdian iltzatu zaizkit
hamaika arantza!
Orain utzi det balantza
lehenago neraman saltsa;
Euskal Herriko gazteriarengan
daukat esperantza. (bis)

2. Gaztedia inguratu,
jarraipenera ausartu,
baina zuk uzten dezun bidean
ez itzazu sartu.
Nahiz urteek zama hartu,
ezin gintezke geratu;
nik lehengo amets berberak ditut,
ez ditut aldatu. (bis)

3. Beti lehengo ametsetan,
ta beti lehengo penetan;
ni ere hortan nago oraindik,
jarraitzen dut bertan.
Baina esanik benetan,
bizi ditugun unetan,
odol berria behar da gure
herriko zainetan. (bis)

4. Geure zainetan barrena
odola badatorrena
nabarmena da, baina lehengoaz
pentsatu aurrena.
Nahiz ta izan gazteena
borrokatzeko kemena,
norbait behar du norabidea
jarriko duena. (bis)

5. Beraz nahiko borondate
izatea ez da kalte,
nik ere gogor eutsi det beti
gelditu bitarte.
Orain berriz ere gazte,
hautsi lotura ta kate,
nere laguntza behar denean
hor izango naute. (bis)

6. Ez zera betiko gorde,
oraindik gertuan zaude,
borrokatzeko ta laguntzeko
edozeinen pare;
zera jakintzaren jabe,
zeure laguntza, halare,
zerorrek eman behar zenduke
geuk eskatu gabe. (bis)

47. Kartzelako zaharra/gaztea

47. gaia: Zuk, Andoni, hamabost urte daramatzazu kartzelan. Gaur, aurreneko aldiz kartzelara sartu duten Jon gaztea ekarri dute zelda berera izuturik. Hiruna bertso, hamarreko txikian, Andoni hasita.

Doinua: Espainian behera

1. Lau horma beltz hauekin
luzaroan teman,
sentimentu pila bat
bildu det niregan;
zulehenbizikoaldiz
gaur zaude ziegan,
ez zaite dardar hasi
lertxun hosto eran,
satisfakzio hori
ez zaiezu eman. (bis)

2. Kartzelaezin izan
ametsen arrago.
Komisaldegi baten
egon naiz luzaro;
torturatu egin naute,
ez da hain arraro;
nik eutsi egin diet,
nahiz ta jo hordago!
Txikitu egin naute,
baina zutik nago. (bis)

3. Aurpegia dakarzu
oskorri kolore,
atzapar bi zuriak,
hainbat kolpe more.
Barreneko beldurra
barrenean gorde;
hemen egongo zera
gaur eta gero're,
bilakatu ezazu
ikara adore. (bis)

4. Ikaratzea beti
 gaiztoen gurari,
 ni zutik egotea
 ez al da mirari?
 Zuri jarri natzaizu
 begiratzen adi;
 zuk hel zaiozu nere
 gaztetasunari,
 eta nik berriz zure
 duintasunari. (bis)

5. Goardian dagon hori
 a ze marrazoa!
 Erori zera eta
 hark ezin jasoa.
 Nere burruka fede
 trinko temosoa,
 zure gaztetasuna
 herabe goxoa..
 Biok osatzen degu
 preso bat osoa. (bis)

6. Biokbat geranoski,
 benetan hala da,
 nahiz eta egoera
 ezin den konpara.
 Zuk sortuko didazu
 nahi dudan zirrara,
 ta ni bainolehenago
 irtetzen bazara,
 nigangordeko zaitut
 eredu gisara. (bis)

48. *Aturritik*

48. gaia: Aturritik Ebrora herri bat badela Belodromoa izan liteke lekuko. Urte asko daramatzazu zuk nahi baino tristura gehiago ikusiz. Zure ondorengoentzat beste zerbait nahi zenuke. Hiru bertso, nahi duzun neurri eta doinuan¹⁴.

¹⁴ Gai honen azterketa eginda dago.

49. *Seme hilak*

49. gaia: Euskal Herrian aspalditxotik bizi dugun gatazka honetan seme bana galdu duzue biok. Zuk, Maialen, seme iheslaria galdu zenuen; Andonik seme ertzaina. Hilerritik etxera bidean hizketan hasi zarete. Hiruna bertso, Iparragirre doinuan, Maialen hasita.

Doinua: Iparragirre abila dela

1. Nere semeak alde egin zuen
herri urrun batetara;
han minbiziak jo zuen eta
ez da itzuliko jada.
Ni behin ama izana,
eta zu ere ama,
ulertu zaitzaket, hara:
modua ez da berdina baina
hutsunea berbera da. (bis)

2. Zure semea herriz kanpora
joan, hori zuen xede,
borroka baten ilusioak
egin baizituen bere.
Nere zenak soldata
nominaz aterata
bizibehar, alafede!
Nere semeak ez zuen izan
aukeratzerikan ere. (bis)

3. Ez batentzat ta ez besteantzat
ez da amaiera polita,
amak ez dauka zertan sufritu
bere semearen kinka.
Zurea zan polizi,
boterean kutizi,
nerea tiroz hasita...
Baina ama baten ideologia
maitasuna bakarrik da. (bis)

4. Nere semean oroitzapenik
ez zait ahaztuko sekula,
hain gendun mutil gazte sanoa,

formala eta mardula.
 Zatoz nere ondora,
 bihotzetik kolkora
 zera nahi dizut xuxurla:
 gauza batean seguru nago,
 berdin maite genitula. (bis)

5. Atzapar beltzak harrapatu zun
 ta hura nigandik kendu;
 ez esker on ta ez animo hots,
 gaur ezer ez da ukendu.
 Zu ere zabiltz berdin,
 bizitza dezu samin,
 ta nahi nuke nabarmendu:
 seme-alaba bat hiltzen duenak
 bere ama ere hiltzen du. (bis)

6. Ez det pentsatzen geranik ere
 zu laiotz ni egutera;
 biok daukagu gure bihotza
 sufrimenduz egarbera.
 Kontuak esateko,
 lagunak izateko,
 goazen taberna batera;
 gure hutsunea berdina bada,
 bete dezagun batera. (bis)

50. *Kamiltxo*

50. gaia: Sarritan egiten diezu errieta zure seme eta errainari elkarrekin erdaraz aritzen direlako. Gaur, euren haurrari Kamiltxo, hartz euskalduna, oparitu diotela ikusi duzu. Hiru bertso, nahi duzun neurri eta doinuan.

Doinua: Baserrian jaio nintzan (Habanera)

1. Sarritan diskursoetan
 hartu ohi degu anparu
 ta eguneroko martxa
 ez degu ikusten klaru.
 Gure etxian erderaz

hainbeste ume koitadu,
ta nere haserreak'e
hartu ditu nahiko gradu.
Denak erdera hutsean
dabiltza hemen ni salbu;
etorkizuna horrela
oso ustela daukagu.
Ez det juzgatzen dotore,
ez det juzgatzen ondradu, hartz
batek egiten duna
umeak egiten ez badu.

2. Hartz txikitxo bat da eta
Kamiltxo dauka izena,
Durangon ere izan zun
hain salmenta nabarmena.
Askoren ustez ote da
ekintzarikan gorena?
«Erosiozu haurrari»
etxe askotan ordena,
baina hor ikus liteke
barru-barruan garena;
zertan zabiltza erderaz
ai, hipokrita alena!
Nahiz hartza polita izan,
polita eta zuzena,
euskeraz egitea da
oparirik ederrena.

3. Hitzik ere ez dut jada
behin ipar hori galtzean;
orain bertan sentitzen naiz
atsekabetu antzean,
nere etxe bertan nago
amorruren ertzean,
ezin besterik sentitu
horretaz konturatzean.
Zer izkutatzen dezute
opari horren atzean?
Euskara sartu behar degu
behin ta betiko trantzean.

Garbi geratu dadila,
 gutxinez nere etxean:
 euskara ez dago patrikan
 baizik eta bihotzean.

51. *Himalaya*

51. gaia: Zure lagun min bat hil zen joan den astean Himalayan. Gaur jaso duzu berak handik bidalitako postala. Hiru bertso, nahi duzun neurri eta doinuan.

2017

52. *Euskara elkartea*

52. gaia: Euskara-elkarte bateko borondatezko bi kide dira Igor eta Aitor. Igorrek uste du taldearen jarduna profesionalizatzen hasi beharra dagoela. Aitor ez dago ados.

Doinua: Uso zuri bat inguratu zait A

1. Gure haserak gogoratzeko
 joan behar da urrutira
 garai guztiak ez dira berdin
 onartu dezagun tira.
 Lehen kalean zebiltzan haiek
 etxean daude begira
 ta bolondresik ez baldin bada
 langileak behar dira.

2. Honetaraino ekarri gaitu
 bolondresen adioak
 ez direlako nahi gisako
 jendearen jarioak.
 Hori eginez galdu litezke
 haserako balioak
 hiztunak behar ditu euskarak
 ez funtzionarioak.

3. Gure herria beti izan da
 ekin gogor, gogor ekin

baina ez bada bolondresik gaur
ibiliko gara erkin
aurrera egin behar da teknikari
eta soziolinguistekin
urrutirago ez gara helduko
boluntarismoarekin.

4. Jarri itzazu hiru langile
ekarri gure festara,
eta berdin zait ze ekimen den
kasu honetan euskara.
Azken batean itxura baino
gehiago ere ezkara,
horrek guztiak ez du balio
borondaterik ez bada.

53. *Ardiak*

53. gaia: Beñat artzaina da. Ardiak belardi batetik bestera eramaten ari dela, Amets herritarra ikusi du bere ardiak norabide okerretik bidaltzen.

Doinua: Igaran egun batez

1. Neguan egiteko
hotzaren defentsa
iritsi da ardiak
mugitzeko fetxa.
Gaizki pasatu duzu
hesolako ertza
hara deskubritu det
nere ardi beltza.

2. Udan bero egiten du
eta neguan hotz
barkatu artzai lana
egiten zait arrotz.
Barkamena eskatu
nahi nizuke ahoz,
bat bakarrik nahi nuen
baina denak datoz.

3. Ta artaldean dauzkat
hirurehun inguru
denak ahal den ondoen
zaindu ohi ditugu
hau kalekume bat da
badakit seguru.
Ardia hartu nahi ta
haria hartu du.

4. Zu geldit zaitez hor
lasai trankil ta zut
igual ardi guztiak
hartuko dizkizut,
nik neuk jetziko ditut
deskantsatzeko zuk.
Hurrena gazta bueltan
eramango dizut.

5. Hau gizon egoskorra
ez al da ospera?
azkar arrimatua
da nere ospera.
Gazta egiten ez zaitez
zu hasi ostera,
azokara etorri
zaitez eroatera.

6. Ai artzai poetiko
ta artzai abstraktu
zuk beti zazpi bertso
dituzu kantatu.
Hurrena erne ibili
lana ondo hartu
gutxio kantatu ta
gehio begiratu.

54. *Pisukideak telebista*

54. gaia: Pisukideak dira Beñat eta Sustrai. Duela gutxi jarri ziren elkarrekin bizitzen. Beñati afalostean telebistako eztabaida politikoak ikustea eta komentatzea gustatzen zaio. Sustrairi, berriz, ez.

Doinua: Beti penetan, beti penetan

1. Telebistari begira egin
ditugu hamaika froga,
Ta politika da engantxatuta
utzi ezin dudan droga.
Gure afari, plater-garbitze
Komun eta labadora.
Baina munduak aurrera darrai
gure pisutik kanpora.
2. Lokartzeraino geratu aurretik
telebistari begira
Mahai ertzean eser gaitezen
Ta landu alternatiba.
Zaborra gaika bereizi edo
ta bota edukiontzira
Gure eskutan dago debate
politiko bat hori da.
3. Politikara eraman dezu
zuk hamaika kontu ñaño
Euskal Herrian azken urtetan
bada mila desengaino.
Gure eztabaidak ordu txikitan
ere luzatzen dira ño,
nik nahiago det horiei entzun
zuri entzutea baino.
4. Ni debateak hasten dira ta
Beñat apurka-apurka,
manta goraino tiratzen dut ta
ia hasten naiz zurrunka.
Nik ez nuke nahi jendarte oso bat
telebistak lelotuta
nahiago ditut norbanakoak
autodeterminatuta.

5. Ba ni libratzen hasia nago
 orain hamarren bat urte
 ta zenbat neke hamar orduko
 lan gogorren baten truke
 telebistako debate hoiek
 ai sustrai zenbat bertute.
 Lo egiteko infusioek
 adina laguntzen dute.

6. Joseba Arregi ta Iñaki
 Soto hasterakoan ezbaian
 armiarma bat ikusi ohi dut
 sarea egiten sabaian.
 Nahi eta ere lokartzen bainaiz
 berdin teman ala gaian,
 askoz arazo gutxio zegon
 Goenkaleren garaian.

55. *Bake artisauak*

55. gaia: Bakeak artisau dira Aitor eta Maialen. Lehengo larunbatean lanean aritu ziren Parisen. Astebete pasatu da, eta etorkizunari begira jarri dira.

Doinua: Oraindik hango oihartzun hots bat

1. Oraindik hango oihartzun hots bat
 besterik ez det aditzen
 herriak zerbait behar zuela
 lehengo astean argi zen
 eta nahiz eta saiatu geran
 gu bide hori argitzen
 bidea ez zen Parisen hasi
 ta ez da amaitzen Parisen.

2. Parisekoa bakarrik baitzen
 abiapuntu, pretestu
 alderdi denek onartu dute
 alderdi denek babestu
 baina ez dakit Hegoaldean
 dauden hontarako prestu
 desarmea eskuz egin genuan
 ta bakea eskuz esku.

3. Bidea horrek izan behar du
gure aldetik argi da
beste aldearen joera berriz
atera arren argira
berriz baldintzak, berriz legeak
beti ateratzen dira
baina ez gera eurentzat ari
baizik barrura begira.

4. Baina barruan ere guztiak
ez dira gure hitzeko
jendea dugu hemen kolore
ta iritzi anitzeko
«ezinezko da» saltzen digute
guk ezer ez ukitzeko
laborariak gai izan gara
bi gobernu mugitzeko.

4. Pakea baita gure helburu
eta ahalegina arau
bai gobernu bat ta bai bestea
lehengoak lehengoan dirau
baina jendeak konprenitzeko
momentu polita da hau
gu ez garela ilusioak
egiten gaitu artisau.

5. Konpon ditzagun lehengo biktima
ta lehengo bonba zartada
ekar ditzagun behingoz presoak
herrira, euren etxeetara
eta goazen bada pakerantz
ortzemuga den hartara
pakea ez da inoiz helduko
pakea joatea da.

56. *Autoa*

56. gaia: Bada ordu erdi auto bera atzetik duzula.

GIZARTE ETA KOMUNIKAZIO
ZIENTZIEN FAKULTATEA

FACULTAD DE CIENCIAS SOCIALES
Y DE LA COMUNICACIÓN



euskal
soziologia eta
zientzia
politikoaren
elkartea



asociación
vasca
de sociología
y ciencia política

UNIBERTSITATEKO ESKULIBURUAK
MANUALES UNIVERSITARIOS

INFORMAZIOA ETA ESKARIAK • INFORMACIÓN Y PEDIDOS

UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua • Servicio Editorial de la UPV/EHU
argitaletxea@ehu.eus • editorial@ehu.eus
1397 Posta Kutxatila - 48080 Bilbo • Apartado 1397 - 48080 Bilbao
Tfn.: 94 601 2227 • www.ehu.eus/argitalpenak

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea